



Neoliberalismoa

Liberalismoaren berrikuntza eta kapitalismoaren eragina

Liberalismoa

Liberalismoaren berrikuntza eta kapitalismoaren eragina

Liberalismoa

NEW
liberalismoaren berrikuntza eta kapitalismoaren eragina

Neoliberalismoa

edo egungo gizartea irudikatzeko
zenbait zertzelada

Alberto de Abajo Gonzalez (arg.)

© Alberto de Abajo Gonzalez
© Udako Euskal Unibertsitatea

ISBN: 84-8438-003-3

Lege-gordailua: SS-1287-99

Inprimategia: ANTZA, Lasarte Oria
Azaleko diseinua: Iñigo Ordozgoiti

Banatzaileak: UEU. Concha Jenerala 25, 4. BILBO telf. 94-4217145
e-mail: bulegoa@ueu.org www.ueu.org

Zabaltzen: Igerabide, 88 DONOSTIA

Aurkibidea

HITZAURREA.....	7
1. NEOLIBERALISMOAREN OINARRI FILOSOFIKOAK.....	9
<i>Jesus Casquette</i> (UPV/EHUko Gizarte- eta Komunikazio-Zientzien Fakultateko irakaslea eta UEUKidea.)	
2. EKONOMI POLITIKA NEOLIBERALA ETA BERE ALTERNATIBAK	29
<i>Xabier Barrutia</i> (UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa-Zientzien Fakultateko Irakaslea eta UEUKidea)	
3. NEOLIBERALISMOAREN ERAGINA ZUZENBIDEAN	47
<i>Koldo Gorostiaga</i> (Abokatua eta UEUKidea)	
4. NEOLIBERALISMOAREN AURREAN, ZER EGIN?	57
<i>Mario Zubiaga</i> (UPV/EHUko Gizarte- eta Komunikazio-Zientzien Fakultateko irakaslea eta UEUKidea.)	
5. GIZARTE-MUGIMENDUAK ETA GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEAK NEOLIBERALISMOAREN GARAIAN	75
<i>Iñaki Barcena</i> (UPV/EHUko Gizarte- eta Komunikazio-Zientzien Fakultateko irakaslea eta UEUKidea.)	
6. HERRI-MUGIMENDUAK ALTERNATIBA SORTU NAHIAN: ZAPATISMOAREN HAIZE BERRIAK	87
<i>Zesar Martinez</i> (UPV/EHUko Gizarte- eta Komunikazio-Zientzien Fakultateko irakaslea eta UEUKidea.)	
7. NEOLIBERALISMOA TEORIAN ETA PRAKTIKAN	105
<i>Baleren Bakaikoa</i> (UPV/EHUko Zuzenbide Fakultateko Irakaslea eta UEUKidea)	
8. NEOLIBERALISMOAREN ERAGINA LAN-ZUZENBIDEAN: PREKARITATEA	117
<i>Aitor Bengoetxea</i> (UPV/EHUko Zuzenbide Fakultateko Irakaslea eta UEUKidea)	

Hitzaurrea

Eskuartearen duzuen liburu honen abiapuntua 1997ko Udako Ikastaroetan aurkituko duzue. Udako **Euskal Unibertsitateak** merezimendu osoz bere zilarrezko ezteiak ospatzen zituen uda horretan garatu genuen **NEOLIBERALIS-MOA: egungo gizarteari** so ikastaroa. Uztailaren 21etik 25era bitartean Soziologia eta Zientzia Politikoetako Sailak burutu zuen aipatu ikastaroa. Lehenengo bi egunetan, ordea, diziplinarteko auzolanean, Ekonomia eta Zuzenbide Sailekin batera saio komun oparokak burutu ziren; eta oparotasun horretan jaio da liburu hau. Hala ere, ezin hemen bildu bertan aztertu, hausnartu eta azaldutako guztia.

Liburuaren xedea, ordea, bestelakoa da. Hots, irakurlea, Gizarte Zientzietan murgilduta egon ala ez, Neoliberalismoaren auzira hurbiltzea. Nola, ordea? Neoliberalismoa sostengatu eta justifikatzen duen filosofia aztertuz, neoliberalismoaren aroan aplikatutako politikak kritikatzuz, neoliberalismoari aurre egiten eszenatoki berriak eraikitzen aritu diren aktoreak eta irudikatutako eszenatokiak aurkeztuz, neoliberalismoaren edukiak arakatzuz, aztarna historikoak bilatuz, bere eraginak aztertuz,... Hots, Baleren Bakaikoaren artikuluen izenburuak dioen antzera, *Neoliberalismora Teorian eta Praktikan* hurbildu nahi izan dugu.

Hurbilketa hau gauzatu ahal izateko ezinbestekoa izan da artikuluegileek hartu duten lana. Udako Ikastaroetan parte hartu eta gero artikuluen eraketan emandako denbora beste zeregin batzuei lapurtu izan behar baitiote; beraiei, milesker. Milesker Udako **Euskal Unibertsitatea** osatzen duten guztiei ere, bazkideak izan zein UEUren sailetan eta jardueran parte hartzen duen orori. UEUren bulegotik lana errazten duten langile finei, Nekaneri bereziki, bera izan baita liburu honen errudunetako bat. Joxerra Etxebarria barik ezin lan hau behar bezala aurkeztu; milesker testuak zuzentzen hartu duen lanagatik.

Mileskerrak, nola ez, 1997ko Udako ikastaroetan parte hartu zuten Soziologia eta Zientzia Politikoetako ikasle eta irakasleei: Ianire Abendibar Telleria, Amaia Agirregabiria Alberdi, Karmele Aguayo Rico, Xabier Aierdi Urroza, Betisa Anda Arruabarrena, Ihintza Angoitia Bernaola, Mertxe Ansa Irizar, Adolfo Araitx Flamarique, Jon Aristi Aramendi, Ainhoa Arzoiz Urroz, Iera Azkarate de la Cruz, Joseba Azkarraga Etxegibel, Iñaki Barcena Hinojal, Martin Barriuso Alonso, Ainhoa Belaustegi Malaxetxebarria, Maribi Benitez Garcia, Asier Blas Mendoza, Mertxe Casas Sanchez, Jokin Del Hoyo Arce, Virginia Eraso Barrio, Ixiar Erasun Urzelaieta, Olatz Estensoro Garcia, Gabirel Ezkurdia Arteaga, Eñaut Gantxegi Maritxalar, Oier Gonzalez Bilbatua, Edurne Goñi Olite, Iban Gortazar Iturriaga,

Luis Guridi Aldanondo, Enara Insausti Garmendia, Itziar Insausti Mujika, Olatz Iztueta Garaikoetxea, Matxalen Legarreta Iza, Zesar Martinez Garcia, Nagore Martinez Ortuzar, Alberto Mayor Beitia, Aitzol Mendiola Agirre, Gurutze Mendizabal Mujika, Dorleta Mikeo Zubillaga, Alaitz Murgoitio Aranbalza, Idoya Natera Benito, Aitziber Olabarrieta Urdaniz, Aloña Olanga Atxa, Galder Olibares Yurrebaso, Xabier Rojo Escudero, Maite Sabalza Baztan, Ane Uncilla Urizar, Iker Yurrebaso Picaza, Mario Zubiaga Garate, Aritz Zubiate Garay-Yurrebaso. Ekonomiako parte hartzaileei: Oroitz Aldasoro Aranburu, M. Jose Aranguren Kerejeta, Josu Aztiria Urtaran, Baleren Bakaikoa, Xabier Barrutia Etxebarria, M. Uxue Blanco Arbe, Jose M. Cabo Airas, Anjel Mari Errasti Amozarrain, Helena Franco Ibarzabal, Aintzane Garcia Andueza, Joseba Mikel Garmendia Albarracin, Eusebio Lasa Altuna, Saioa Loizate Etxearte, Xabier Renteria Uriarte, Xabier Salanueva Ruiz, Antton Satrustegi Cordier, Solange Mariluz, Jose M. Zendoia Sainz, Mikel Zurbano Irizar. Eta, azkenik, zuzenbideko parte hartzaileei: Ainara Agirre Jauregi, Lucia Arzuaga Etxaniz, Gentzane Atxa Romo, Amaia Ayesta Ugarriza, Maite Badiola Unamuno, Luix Barinagarrementeria Olaizola, Aitor Bengoetxea Alkorta, Miriam Berastegi Del Castillo, Aitziber Celada Hernandez, Veronica Crespo Diez, Amaia De Miguel Arnaiz, Izaskun De Miguel Barco, Marta Del Campo Uribarrena, Olatz Elortza Aranoa, Arkaitz Estiballes Ormaetxea, Nekane Fdez. de Arroiabe Zelaieta, Monika Gonzalez Manzano, Koldo Gorostiaga Atxalandabaso, Nerea Ibarquengoitia Basterretxea, Mainer Imaz Mendizabal, Xabier Iriondo Arana, Unai Iturriotz Erdotziain, Garbiñe Larrea Iturralde, Maite Lasa Altuna, Virginia Marcos Osua, Ziortza Merino Valdeolmillos, Irune Olabbarri Fernandez, Zaida Olabarria Bengoetxea, Joseba Otano Villavuenaa, Zuriñe Rodriguez Bergara, Iñigo Santxo Uriarte, Leire Uranga Iturralde, Amagoia Urigain Sanchez, Miren Jasone Urkola Iriarte.

Eta milesker zuri, irakurle, zu baitzara liburu honen benetako erruduna.

Azken ezinbesteko aipua: liburu hau Neoliberalismoa bere osotasunean ikusteko lagungarri gertatu bazaizu, guretzat nahikoa.

Alberto De Abajo Gonzalez
UEUKidea

1. Neoliberalismoaren oinarri filosofikoak

Jesus Casquette

UPV/EHUKo irakaslea eta UEUKidea

Neoliberalismoa hitzetik hortzera aditzen den terminoa dugu. Gaur egungo sistema politiko eta ekonomikoak hartzen ari diren norabidearekin bere egonezintasuna agertzen duten argitalpenei (izaera akademikokoak direnei zein egunkari edota aldizkariari) begirada bat eman besterik ez dago termino horrek azkenengo urteotan hartu duen gailentasunaz jabetzeko. Globalizazioa, nazioarteko erakunde finantzierok ekonomia-arloan duten betebeharra, garapenaren auzia (edota, eufemismorik gabe, “pobreziaren holokaustoa” deitzen ahal duguna) edota lan-merkatuaren malgutasuna, hauek guztiak politika neoliberalen ondorioztat jo daitezkeen arazoak dira, gaur egun mundu-mailan gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari diren arazoak, alegia.

Idazki honen asmoa ez da izango arazo hauen guztien azterketa burutzea. Laburki esatearren, batzuentzat mamuaren parekoa den eta bestetzuentzat, aldiz, sistema kapitalista bere krisialdi ekonomikotik atera dezakeen irtenbide bakarra den neoliberalismoa sostengatu eta justifikatzen duen filosofia aztertuko dugu. Helburua hori izanik, jarraituko dugun argudio-haria honako hau izango da. Lehenik, argitze terminologiko bati ekingo diogu, neoliberalismoa edota (eskuineko) libertarismoa¹ beste filosofia politikoetatik ezberdinduko dugularik; horretan, arreta berezia eskeiniko diegu liberalismoaren beste lerro batzuekiko (ezkerreko libertarismo eta liberal-igualitarismoarekiko, alegia) eta sarri askotan sinonimoak balira bezala baina errealitatean ezberdina den neokontserbadurismoarekiko dituen ezberdintasunei. Bigarrenik, azkenengo mende laurdenean filosofia politikoaren esparrua birpiztarazi eta, oro har, ardazu duen John Rawls-en “justiziaren teoria” gainbegiratu dugu, labur bada ere. Izan ere, bere burua liberal-igualitaristen artean kokatua izan den filosofo moral eta politiko honen ikuspegia aztertu barik, zail egingo zaigu filosofia libertarioaren nondik-norakoak behar bezala ulertzea.

¹ Neoliberalismoa eta (eskuineko) libertarismoa gauza bera dela esan daiteke. Oro har, lehenengo hitzaren erabilera hedatuago dago ekonomia-arloan; filosofia politiko eta moralaren alorretan, aldiz, libertarismo hitzarekin sarriagotan egingo dugu topo. Akademiak bultzatzen duen jakintza-arlo ezberdinen arteko banaketak hau bezalako egoera bat dakar, hots, arloan arloko hizkera edota idazkera ezberdinak erabiltzea errealitate berberaz aritzeko. Guri dagokigunez, eta liburu honen terminologia komuna errespetatzearen, gehienetan neoliberalismo hitza aipatuko dugu, baina argi utzirik berau ez dela irakurleak filosofia politikoari buruzko liburu gehienetan topatuko duen hitza, libertarismoa baizik.

Hirugarrenik, sakonean aztertuko dugu filosofia politikoaren arloan eragin handiena izan duen autore neoliberala. Robert Nozick filosofo iparramerikarrari buruz ari gara, 1974an *Anarchy, State, and Utopia* izenburuko liburua argitara eman zuenetik bera bilakatu baita estatuaren eginkizunak ahalik eta murriztuen izan behar direneko (horrela laburbiltzen baita, geroxeago ikusiko dugun bezala, neoliberalen egitasmo politiko) ideia-aren zutoihaldun eta gorputzaile ezagunenean.²

Gure gaiarekin (hots, neoliberalismoaren oinarri filosofikoekin) zerikusi estuen duen hirugarren atal honetan, aztergai izango ditugun galderen artean honako hauek aipa ditzakegu: zein da neoliberalismoaren filosofia moralala?, zertan sostengatzen da?, nola zehazten dute botere publikoen eginkizun-zabalera?, zein da neoliberalentzat justizia, askatasuna eta berdintasunaren arteko harremana?

Liberalismoaren munduak eta “eskuina berria”

Liberalismoa askotariko mundua dela esan ohi da, esapide honekin liberalismo-mota bat baino gehiago dagoela adierazi nahi delarik. Aniztasun horren oinarrian, ordea, badago ezaugarri bat beren burua liberaltzat jotzen dituzten guztiek adostuko dutena: balore politikorik gorentzat gizabanakoaren askatasuna defendatzen duen ideologia da liberalismoa. Ideia-ardatz honek osatzen du liberalismoaren sakon-sakoneko muin moralala. Ondorioz, mota guztietako erakunde zein jokabide publikoen balorapena aipaturiko helburu hori (hots, gizabanakoaren askatasuna) zein neurritan babesten, errespetatzen eta bultzatzen duen araberakoa izango da. Hauxe liberalismoaren definizio adostu bat izango litzateke, hau da, era zabal horretan planteatuta, inork gutxik (liberalismoaren esparru zabalaren barruan daudenen artean esan nahi dugu, jakina) ukatuko lukeen definizioa. Dena den, askatasuna zer den eta zertan datzan eztabaidatzen hasi bezain laster, desadostasunak azaleratzen dira liberalen artean. Izan ere, zer da askatasuna?, askatasuna eta berdintasunaren asmoak, zer neurritan dira bateragarriak?, noiz esan daiteke gizarte bat justua dela? Ur handitan sartzea izango litzateke galdera hauei guztiei heltzea, gainera bada ere, baina, laburbilduz, bi (edo hiru) erantzun-mota daudela esan daiteke. Alde batetik, teoria politikoaren esparruan korrante liberal-igualitarista deritzona (Rawls edo Dworkin bezalako filosofoek ordezkatzeko duten korrantea) ikuspuntu moral eta politiko batetik bizitza sozial eta ekonomikoan estatuaren partehartzea justifikatzen saiatzen da. Europar kontinentearen praktika politiko-historikoari erreparatzen badiogu, hauek dira kapitalismoaren oinarriko erakundeak (gobernu ordezkatzaillea eta merkaturia, batez ere) onesten duten liberalak, baina aldi berean merkatuak sortarazten dituen gehiegizko bidegabekeriei

2. Argitu beharra dago, Robert Nozick libertarismoaren defendatzaile nagusi bezala hartzean, filosofia politikoaren esparruaz ari garela soilik. Dударik ez dago beste jakintza-arlo batzuetan, ekonomian bereziki, F. von Hayek, M. Friedman edota Murray N. Rothbard bezalako pentsalariak alboraezinak direla neoliberalismoaren planteamenduak sakonean ezagutzeko, besteak beste aipaturiko ekonomialari hauek *laissez-faire* antolamenduaren eraginkortasuna beste antolamendu ekonomikoaren aldean azpimarratzen dutelako. Ikus Wolff, 137.or.

nolabaiteko mugak ezartzen ere saiatzen direnak. Asmo horrekin, aipaturiko liberal-igualitarista edota sozialdemokrata hauek Ongizate Estatuaren defendatzaile sutsuenetarikoak dira.³

Beste alde batetik, neoliberalak ditugu.⁴ Funtsean, geroxeago ikusiko dugun bezala, pentsamendu-lerro honen jarraitzaileek uste dute, gobernuak buruturiko eginkizun legitimo bakarrak barne-babesa ziurtatu, hitzarmenen antolamendu egoki baterako markoa eskaini, eta herrialde baten kanpoko herrialdeekiko babesa bermatzea helburu dutenak direla. Eginkizun horiez arduratzen diren erakundeak (hots, polizia, sistema judiziala eta ejerzittoa) estatuaren gorputz legitimo bakarrak dira, beraiek bermatzen baitituzte gizabanakoaren bizitza eta jabegoa. Gainerako eginkizun guztiek, esate baterako heziketa eta osasuna bezalako zerbitzuak biztanleria osoari eskaintzeak, zergen bidez buruturiko ondasunen berbanaketa eskatzen dute, eta hori, neoliberalen ustez, gizabanakoaren berezko eta bortxaezina den askatasunaren kontrako neurria da. Esan bezala, honako ideia hauek defendatzen dituen Robert Nozick da aurrerago aztergai izango dugun neoliberalismoaren ordezkaria.

Goian hiru liberal-mota izan zitezkeela iradoki dugu. Izan ere, sarri askotan Proudhom, Bakunin edota Kropotkin bezalako ezkerreko libertarioak (edota anarkistak), gizabanakoaren askatasuna gauza ororen gainetik dagoen balorea defendatzen duten neurrian, ados egongo lirateke liberalismoaz lehen eman dugun definizioarekin. Baina ezkerreko libertarioek, liberal-igualitaristek eta eskuineko liberalek ez bezala, gizabanakoaren erabateko subironatasunaren gain ezartzen den gobernu oro ilegitimoa dela esango dute.

Ondorioz, estatuarekiko mesfidantza anarkismoaren ezaugarriarik nabarmenatarikoa izango da. Izan ere, etimologikoki grekotik datorren “anarkia” hitzak “gobernurik gabea” esan nahi du. Neoliberalismoak, aitzitik, “miniarkistak” lirateke, “gutxieneko gobernu edota gobernu minimo” bat onartzeko prest daudelako, merkatuak funtzionamendu oztopogabetua izatea helburu duen gobernu, alegia.

Beste alde batetik, neoliberalismoa eta eskuineko beste filosofia den neokontserbadurismoa bereizi beharra dago. Bientzat zergen bidez burututako ondasunen birbanaketak edota baliabideen transferentzia, neurri okerra da, ezinbestez gizabanakoaren eskubideen kontra jotzen duelako. Amankomunean duten merkatu askatasunaren defentsari esker Eskuin Berria deritzon mugimenduaren barruan kokatu izan dira bi filosofia hauek. Reagan eta Thatcher-en agin-

3. Liberal-igualitarista terminoa, edo liberal besterik gabe, maizago erabiltzen da Iparrameriketan. European, aldiz, sozialdemokrata hitza hedatuago dago pentsalari hauen aipamen egitean. Nolanahi ere, biek Ongizatearen Estatu defendatzen dute, merkatuak sortaraz ditzakeen “desoreka funtzionalak” konpontzeko tresna legitimo eta eraginkor modura.

4. Honako gai hauetan murgiltzera animatzen den irakurleak irakurri ahal izango du, “neoliberal” eta “libertario”-ez gain, “anarkokapitalista” eta “miniarkistak” (*miniarchists*) terminoak autore hauei buruz hitz egitean.

taldiek erakusten dute argi baino hobeto Eskuin Berri honen egitasmo politikoa. Nolanahi ere, neoliberalismoa eta neokontserbadurismoa ezberdin egin behar ditugu, ezberdinak direlako zentsu esanguratsu batean, nahiz eta batzuetan koalizio modura jokatu. Neoliberalak, neokontserbadoreek bezala, merkatu askatasuna defendatzen dute, beren ustez askatasun pertsonala balorerik eta altxorrik preziatuena delako. Baina neokontserbadoreek ez bezala, neoliberalak nor bere buruaren jabe bakarra indibiduo bera den ideia, bizitzaren arlo guztietara zabaltzen dute. Ondorioz, neoliberalak homosexualitate, abortu, droga, eutanasia, eta abarri buruzko legeen liberalizazioa bultzatzen dute, merkatuaren logikari jarraituz honako arlo hauek funtzionamendu egokiagoa izango dutelakoan. Neokontserbadoreen kezka, beste alde batetik, hau da: “arduraten dira, batez ere, balore tradizionalak berrezartzeaz... aberri eta familiarekiko sentimenduak indarberrituz, kanpo-politika nabarmenki nazionalista edota antikomunista bati jarraituz, eta autoritatea errespetatua izatea lortuz”, eta horrek denak ekar dezake berekin “salagarriak diren bizitza-estilo mugak ezartzea” (Brittan, 1988: 213. Kymlicka-k aipatua, 1995, 110. or).⁵

Atal hau bukatutzat emateko, aipaturiko pentsamendu-lerro bakoitzak filosofia politikoaren arloan duen pisu espezifikoaz ohar inpresionista bat egin behar dugu. Salbuespenak salbuespen, sozialismo errealearen hondamendiaren ostean liberalismoa dugu ideologia nagusia (baina inola ere ez bakarra), bai praktika politikoan eta bai, hemen interesatzen zaigun ikuspuntutik, teoria politikoaren arloan ere. Baina unibertso liberalaren barruan, aipatu ditugun hiru ildoetatik (hau da, liberal-igualitaristak, neoliberalak eta anarkistak), arlo akademikoan gizabanakoaren askatasuna defendatu bai, baina horrela izan dadin gutxieneko oinarri materialak bermatzen saiatzen diren pentsalariak nolabaiteko gailentasuna lortu dutela esan daiteke. Autore hauek ongizate-estatuaren egiturak defendatzen dituzten liberal-igualitaristak dira. Esparru akademikoan duten gailentasun honek ez du esan nahi, ordea, politika praktikoan nagusitasun bera daukatenik. Izan ere, ezagutzaren so-

5. Neoliberalak gizabanakoaren erabateko askatasuna arlo guztietan defendatzen dutela argitzeko hiru adibide jarriko ditugu, bi egiazkoak eta hirugarrena fikziokoa. *The Economist* aldizkarian (ekonomia neoliberalaren zalantzarik gabeko defendatzailea), bere 1997ko ekainaren 21eko alean honela zioen eutanasiaren bere editorialean: “Mendebaldeko erlijioek utzezina den erantzun bat eskaintzen dute: gizabanakoek ezin dute bere buruaz beste egin, bizitza Jaungoikoak emana baita. Liberalismo klasikoaren arabera, eta hau da *The Economist*-ek jarraitzen duen pentsamendua, honi [eutanasiari] buruzko ikuspegia bestelakoa da. Gizabanakoek autodeterminatzeko eskubidea daukate, honen barruan —agian hori izango litzateke bere adierazpenik gorena— nor bere burua hiltzeko eskubidea ere sartzen delarik”.

Beste adibide bat neoliberalen eta neokontserbadoreen artean dagoen aldeaz jabetzeko. New York-eko *Gay Parade*-etan (hots, homosexualen harrotasunaren egunean, ekainaren bukaera aldera ospatzen dena) ohiko partehartzartzaileen artean *Libertarian Party*-a dago, neoliberalismoaren ideia nagusiak bere azkenengo ondorioetara eramaten dituen alderdi politiko bat, hain zuzen ere.

Azkenik, imajina dezagun ondoko adibidea. Familia noble bat bere oinetxea fabrika bat eraikitzeko asmoa duen enpresari bati saltzera beharturik dago. Oinetxeak balore arkitektoniko eta historiko handia dauka. Neoliberalak begi onez ikusiko dute ondasunaren salmenta, hala agintzen baitu merkatuaren legeak. Kontserbadoreak, aldiz, penaturik ikusiko du tradizio estimatu baten gordelekua den oinetxearen desagertzea. Kasu honetan, beraz, norabide ezberdinak hartzen dituzte batzuk eta besteak.

ziologiaren irakaspen handienetarikoa bat honako hau da, alegia, ideia batzuk ez dira berez beste batzuk baino “egiagoak” edo “zuzenagoak”. Neurri handi batean, ideia-multzo bakoitzaren sinesgarritasuna eta, ondorioz, bere eragin sozial eta politikoa, beste zerbaiten arabera dago: ideia-multzo bakoitza egiazat hartzen duten giza-aktoreen boterearen arabera, hain zuzen ere. Honela, bada, neoliberalismoaren analisi eta proposamenak egokitzen ematen dituzten aktoreak zenbat eta botere-tsuagoak izan, neoliberalismoak hainbat eta eragin zuzenagoa izango du politika-eta ekonomia-esparruetan. Mundu materialaren eta idealaren arteko harremanak (edo, Marx-en terminologiaz baliatuz, azpiegituraren eta gainegituraren artekoak) azaltzen duen ikuspegi honek neoliberalismoak mundu politikoan duen pisu espezifikoa ulertzen laguntzen digu. Izen eta abizenak ematearren, filosofo neoliberalen ideiak egokitzen hartzen dituen aktore nagusia “nazioarteko kapital finantziarioa” dela esan daiteke (de Sebastián, 1997: 19).

Ralws-en justiziaren teoria

Anarchy, State, and Utopia delako liburuan, Robert Nozick (esan dugun bezala, filosofia politikoaren arloan neoliberalismoaren defentsa biribilduena eskaini duen autorea) John Rawls-ek proposaturiko justiziaren teoriari alternatiba bat eskaintzen saiatu da. Oso goiz liburuan, lehenengo orrialdeetan agertzen du asmo hori, itzulginguruka ibili gabe, honako hau aitortzen duenean “...teoria honen egitura [berea, eskubideen teoria —*entitlement theory*— deitzen duena] justiziaren teoria banatzaile batzuk aztertu eta kritikatzeko erabiliko dut, estatu zabalago bat ontzat hartzen duten teoriak, alegia; teoria horietatik guztietatik, John Rawls-ek eskaini berri duen teoria sutsuan arreta berezia jarriko dut” (Nozick, 1988: 9). Nozick-ek Harvard unibertsitatean bere lankidea den John Rawls interlokutore nagusi modura hartzea ez da, inola ere, kasualitatea. Izan ere, Rawls-en ekarpena gaur egungo teoria politikoaren erdigunean egon da, eta badago oraindik ere, 1971n *A Theory of Justice* delako liburu mardul, mamitsu eta itzal handikoa argitaratu zuenetik.⁶ Horrez geroztik, neurri handi batean filosofia politiko eta morala bere ekarpenaren itzalpean garatu direla esan daiteke.

Oso argudiaketa konplexua dena, halaberharrez laburtu beharreko Rawls-en asmoa modu honetan laburbil daiteke: “gizartearen oinarriko egitura”-ri (horren barnean pentsamendu eta kontzientziaren askatasuna babesten duten erakundeak, merkatu konpetigarriak, ekoizpen-bitartekoen jabe go pribatua eta familia monogamoak sartzen direlarik) dagozkion justizia sozialaren arauak zehaztu nahi ditu, justizia baita, Rawls-en ustez, eraginkortasun edota egonkortasuna moduko helburuen gainetik, giza erakundeentzako bertuterik desiragarriena. Horretarako, gizarte-hitzarmenaren tradizioa jotzen du. Baina gizarte-hitzarmenaren tradizio

6. Rawls-en harira, gaur egungo teoria politikoak ardatz bi dituela esan daiteke: askatasuna/berdintasunaren binomioaren inguruan garatzen dena, eta liberalismo/komunitarismo deritzon eztabaida akademikoaren artean eztabaidatzen dena. Ezberdinketa hau analitiko izanik (errealitatean biak elkarrekin nahastuta baitaude), oro har, Nozick lehenengo binomioarekin kezkatuago agertzen dela esan daiteke.

klasikoak (Hobbes-ek, Locke-k edota Kantek-ek ordezkaten duten tradizioa, alegia) gobernu legitimo bat ezartzea helburu duen bitartean, Rawls-en bertsioaren asmoa justizia sozialaren printzipio batzuk adostea da. Beste hitzetan esanda, Rawls-ek elkarbizitza sozial eta politikoaren oinarritzapena burutu nahi du. Asmoa hori izanik, honela jarraitzen du bere argudiaketa: “jatorrizko egoera”-n (*original position*) aurkitzen diren gizabanakoak irudikatzen ditu. Egoera hau guztiz hipotetikoa da, tresna heuristikoa bat, zeinean gizabanakoek ez dakiten ezer beren dohai eta trebetasunez, ezta beren ezaugarri pertsonalez ere (hau da, ez dakite gizonezko ala emakumezkoak diren, zuriak ala beltzak, aberatsak ala txiroak, azkarrak ala txepelak, e.a.; Rawls-en hitzetan, jatorrizko egoeran aurkitzen diren gizabanako hauek “ezjakintasunaren eztalkia”-ren atzean daude). Bizitzan zer helburu duen (hots, bere bizitza onaren ikuskera) ere ez daki gizabanakoak, baina bai, ordea, “ontasun primario” (*primary goods*) batzuk eskuratzea oso lagungarri izango zaiola aipaturiko eta norberak osatutakoa den bizimodu ona izateko.

Ontasun primario hauek eskubide eta askatasunak dira, aukerak eta botereak, diru-sarrerak eta ondasunak, hala nola nork bere burua errespetatzeko eta estimatzeko beharrezkoak diren oinarriak. Gizabanako oro aipaturiko ontasun hauetatik ahalik eta gehien izaten ahaleginduko da, baina, Rawls-ek jatorrizko egoeran indarrean jarri duen ezjakintasunaren estalkiaren baldintzari esker, zuzena den gizabanakoak justizia sozialaren honako bi printzipio hauei helduko die (Rawls, 1978: 340):

- Lehenengo printzipioa: Pertsona bakoitzak izan behar duen eskubideak, guztientzako antzeko askatasunen sistema batekin bateragarria den oinarritzko eskubide berdinen sistema zabalak eskaintzen duena behar du izan.
- Bigarren printzipioa: Desberdintasun ekonomiko eta sozialak honako bi helburuak aldi berean lortzeko moduan artikulatu behar dira: a) gutxien dutenek onurarik handiena izan dezaten, eta hori aurrezki justuen printzipioarekin bateragarri eginez; b) aukera-berdintasuneko baldintzetan, guztientzako eskuragarri diren kargu eta posizioei lotuta egon daitezten.

Lehenengo printzipioa askatasunari dagokio. Printzipio honekin, Rawls-ek tradizio liberalari eusten dio bete-betean. Bigarren printzipioan, a) zatian batez ere, ordea, berdintasunarekin kezkatuago agertzen da. Bi printzipio nagusi hauen arteko uztarketa modu honetan azaltzen du Rawls-ek. Askatasun zibilak eta aukerak banatzean berdintasunez jokatu behar da (hau izango litzateke lehenengo printzipioa edota “herritarrek askatasun berbera izatearen printzipioa” eta b) printzipioaren —“aukera-berdintasun baliokidearen printzipioa”— arteko batuketari; baina, beste alde batetik, botere, errenta eta aberastasunen banaketa onargarria da, baldin eta banaketa horrek giza talde ahulenen alde jokatzeko badu (printzipio honi Rawls-ek “ezberdintasunaren printzipioa” deitzen dio). Azkenengo printzipio honen arabera, pizgarri gisa funtzionatzen duten ezberdintasun mate-

rialak onesten ditu, merkatu-ekonomia baten barruan ematen diren ezberdintasunak, esaterako. Justiziaren printzipioetatik ondoriozta daitezkeen balizko gatazken aurrean, Rawls-ek “ordena serial edo lexikografikoan” dauden lehentasun-arauak zehazten ditu. Arau hauen arabera, lehenengo printzipioak lehentasuna izan behar du bigarrenaren aldean, eta azken printzipioaren barruan, bigarren zatiak lehentasuna dauka lehenengoaren aldean. Nolabait esatearren, Rawls-en eskemaren arabera askatasunak lehentasuna dauka berdintasunaren aldean.

Ikuspuntu politiko-praktiko batetik, Rawls-ek, ondasun eta baliabideen birbanaketa onartzean, ongizate-estatuaren egiturei eusten diela esan daiteke. Merkatuak sortarazten dituen bidegabekeriak zuzentzeko ondasunen birbanaketa defendatzen duen neurrian, Rawls liberal-igualitarismoaren (edota sozialdemokrasiaren) esparruan sartzen da bete-betean, berdintasuna bermatzera bideratuta dauden neurriak askatasunaren menpean jartzen baititu.

Robert Nozick-en filosofia neoliberalaren defentsa

Lehen aipatu dugun bezala, Robert Nozick iparramerikarrak filosofia neoliberalaren defentsa biribilduena gauzatu du. Guri interesatzen zaigun ikuspuntutik, 1974an argitaratu zuen *Anarchy, State, and Utopia* [*Anarquía, estado y utopía*, 1988] delako liburuan arreta berezia jarriko dugu.⁷ Bertan Rawls-ek proposaturiko justiziaren teoriari (zeinaren arabera liberal-igualitarismoa eta, beraz, ongizate-estatuaren erakundearen justificazio filosofiko-morala eskaintzen den) alternatiba bat eskaintzen saiatuko da. Izan ere, eta egitasmo honen adierazgarri gisa, liburuan Nozick-ek hauxe aitortzen du: “justiziaren teoria bat garatuko dut (teoria erretributiboa). Teoria honek ez du estatu zabalago baten beharrik. Nire teoria honen tresneria erabiliko dut justizia banatzailearen adierazgarri diren eta estatu zabalago bat onartzen duten beste teoria birbanatzaile batzuk aztertu eta salatuzeko” (Nozick, 1988: 9).

Rawls-ek eta, oro har, liberal-igualitaristek ez bezala, Nozick-ek ez du jarraitzaile ugari filosofia politikoaren arloan. Baieztapen honek ez du esan nahi, ordea, eginkizun politiko zehatzetan eraginik ez duenik. Alderantziz, azken hamarkadetan mendebaldeko gobernuak ongizate-estatuaren aurrean praktikara eramanez dituzten politikari erreparatzen badiegu, esan daiteke, ez bairik gabe, Nozick gaurkotasunez beteriko pentsalaria dela.

Jarraian, sakonean ikusiko ditugu Nozick-en teoriaren zutabeak. Lehenengoz, bere justiziaren teoria ulertu ahal izateko ezinbestekoa den bere filosofia moralaren azterketari ekingo diogu, hori baita bere justiziaren proposamenaren azpian dagoen

7. Nozick-ekin zintzo izatearren, esan beharra dago *The Examined Life* (1989) delako liburuan iritzi-aldaketa bat izan duela aitortzen duela. Oraingoan esaten du ez duela bere burua eskuineko libertarioekin identifikatzen. Dena den, aitortzen du ez da nahikoa izan bere izena libertarismotik aldentzeko, oraindik ere Nozick-en izena filosofia politiko honen adierazgarri nagusi modura aurkezten baita.

oinarria. Katearen bigarren maila modura, bere teoriaren oihartzun zabalena izan duen proposamena ikusiko dugu, gutxieneko estatuaren defentsarena, alegia. Bukatzeko, bere historian erroturiko justiziaren printzipioak (“eskubideen teoria” delakoa) aztertuko ditugu, Rawls-ek luzaturiko printzipioen alternatiba bezala pentsatuta daudenak.

Nozick-en filosofia morala

Nozick-en ustez, badira eskubide batzuk bortxaezinak direnak: “Gizakiek eskubideak dituzte, eta badira zenbait gauza bere eskubideak zanpatu gabe inolako pertsonak edota taldek egin ezin diezaakioketenak” (Nozick, 1988: 7). Esaldi honek hasiera ematen dio Nozick-en liburuari. Esaldi honen mamia, erroa eta ondorioak ongi ulertzeak bere filosofia politiko eta moralaren ulermena izugarri erraztuko digulakoan, ondoren horren azterketari eta atzean izkutatzen diren ideiei ekingo diegu.

Neoliberalismoaren oinarrian aurkitzen dugun funtsezko baieztapena edo axiomarik oinarritzakoa honako hau dela esan daiteke: nor bere buruaren jabe bakarra da. Printzipio honi “norbereburujabetasuna”-ren (*self-ownership*) printzipioa deitu izan zaio. Printzipio honen arabera, gizabanako orok badu bere burua eta ahalmenen gain erabatekoak eta baztertzailerik diren eskubideak, hau da, norberak hoberean irizten dion moduan erabiltzeko eskubideak. Honek esan nahi du, gizabanakoak berak bere baimena ematen ez duen artean, ez diola inori ez zerbitzu ez emaitzarik eman behar.

Nozick-en teoriaren kritika zorrotza eta apur-tzailea eskaini duen Cohen filosofo marxistaren arabera, printzipio honek osatzen du neoliberalismoaren muin morala (Cohen, 1995).⁸ Printzipio honek Kant-ek landutako “inperatibo kategorikoaren bigarren adierazpen”-ean aurkitzen du bere sostengua. Adierazpen honen arabera, gizakiak helburuak balira bezala kontsideratu behar dira, edozein helburutarako bitarteko modura erabilgarri ez direlarik. Honek esan nahi du, gizarteak gizabanakoari berezko, erabateko eta bortxaezinak diren eskubide horiek errespetatu behar dizkiola, zeren eta “azpian datzan kantiar printzipioaren isla baita, zeinaren arabera gizabanakoak helburuak diren berez, eta ez bitartekoak; bere baimenik gabe, ezin dira ez sakrifikuak ez erabiliak izan beste helburu batzuk lortzearen. Gizabanakoak bortxaezinak dira”. (*ibid.*: 43)]. Gizabanako ezberdinak garen aldetik, nork bere nahimen eta bizitza onaren ikuskera propioekin, badira muga batzuk galarazten dizkigutenak, pertsona batzuk beste batzuen mesedetan bere burua sakrifika dezaten eskatzea. Eskubideen teoria batek muga horiek zehaz-

8. Cohen-ek dio, halaber, norbereburujabetasunaren ideia honek marxismoa beste teoria batzuk baino deserosoago sentiarazten duela. Izan ere, nor bere buruaren jabe denaren ideia proletarioek jasaten duten zapalkuntzaren salaketaren oinarrian aurkitzen da. Ondorioz, zail egiten zaie marxistei norbereburujabetasunaren ideien kontra jotzea bere teorian aurkitzen da. Ezinegontasun honek marxistak (askatasuna eta berdintasunaren defendatzaile direnak) norbereburujabetasunaren printzipioa birformulatzea eraman behar ditu. (Cohen, 1995, 6. atala bereziki).

tu beharko lituzke, eta halaxe egiten saiatuko da Nozick, bere proposamen neoliberalera defendatzean.

Nozick-ek filosofia politiko eta moralaren arloan hain hedatuta dagoen utilitarismoa gaitzesten du, gizarte batean zoriontasun- edo ongizate-maila kosta ahala kosta maximizatzen saiatzen delako, gizabanako batzu beste batzuen bitarteko gisa erabiltzeko prest dagoelakoan. Nozick-en ustez, aldiz, bizitza, askatasuna eta jabegoa jomuga modura dituen gizarte batek gizabanakoak hartzen ditu “eskubide indibidualak dituzten pertsona gisa, horrek berekin dakarren duintasunaren jabe modura. Errespetuz tratatuak izateak, hots, gure eskubideak errezpetatuz tratatuak izateak, ahalbidetu egiten digu geure bizimodua erabakitzea, banaka edo guk aukeratutakoekin batera, horrela geure helburuak lortuz edo geure buruei buruzko kontzepzioa landuz, ahal dugun neurrian bederen; eta horretarako, duintasun bereko jabe diren pertsonen lankidetzaz boluntarioaz laguntza izanik”. (*ibid.*: 319).⁹

Funtsean, Nozick-ek gizabanakoari berezko eta bortxaezinak diren eskubide batzuk dagozkiola esaten duenean, buruan dituenak bizitza, askatasuna eta jabego-eskubideak dira. Zeintzuk dira eskubide horien ezaugarriak? Nozick-ek hiru ezaugarri nabarmentzen ditu:

1. Lehenengoz, aipaturiko eskubide horiek negatiboak dira, hau da, gizabanakoak baditu kanpotik etorritako edozein indarren aldetik (botere politikoarena, batez ere) erasotua ez izateko eskubidea. Beste hitzetan esanda, badu interferentziarik ez izateko eskubidea.¹⁰ Eskubide hauek demokraziaren eredu “babeztailea”-k azpimarratu ditu kemen bereziaz. Eredu honetan, Macpherson-en hitzetan, demokrazia antolamendu-forma politikorik egokiena izango litzateke, gobernuaren balizko gehiegikerien aurrean gizabanakoa hoberen defendatzen duena baita (1982: 33. Ikus baita ere Held, 1981).
2. Bigarrenik, eskubide horiek muga zehatzak (zeharkako-mugak, edo “side-constraints”) ezartzen dituzte gainera-ko gizabanakoen ekintzen gain. Hau da, ez da zilegi gizabanako baten askatasuna mugatzea beste askoren, edo guztien, ongizate, zoriontasuna edota askatasuna handitzeko, utilitarismoak egiten duen bezala. Cohen-ek dioen bezala, Nozick-en zeharkako-muga horiek hitzez hitz

9. Giza-zientzietan gertatzen ohi den paradoja bat ikusten dugu Nozick-en ideia kantiar honen defentsan. Izan ere, Rawls-ek ere gizabanakoak helburu modura eta ez bitarteko modura ikustea proposatzen digu. Honek esan nahi du Rawls-en ustez ere filosofia utilitariora hedatuegi dagoela (ikus *Una teoría de la justicia*, besteak beste 20, 31 eta 40. orrialdeak). Beraz, autore bi ditugu ideia bereetik abiatzen direnak eta, hala ere, zeharo ondorio ezberdinetara iristen direnak. Autore bi hauen arteko ezberdintasunak aipatzearen, eta puntu honi dagokionez, hitz gutxitan laburtzearen, hauxe esan dezakegu: Rawls-en ustez, gizabanakoaren eskubiderik garrantzitsuenetakoa gizartearen baliabideen zati bat izatearena da; Nozick-en ustez, aldiz, gehien axola duten eskubideak nor bere buruaren jabe izateetik ondorioztatzen diren etekinak lirateke. Horra hor, beraz, bi filosofia politiko ezberdinen ordezkatzailiek erakusten diguten ezberdintasun garrantzitsu bat.

10. Eskubide negatiboen beste muturrean, eskubide positiboak daude. Eskubide hauen arabera, gizabanakoek badituzte botere publikoen aldetik laguntza jasotzeko eskubide batzuk, esate baterako, hezkuntza edota osasunerako eskubideak.

hartzeak ondorio latzak ekarriko lituzke: “gure gizartean umeak azpiazita badaude, ez guke baimenik izango aberatsei zergak ezartzeko, familia pobreek beharrezko duten esnea finantzatu edo diruz laguntzeko, horrela jokatzeko gero aberatsen eskubide eta ‘duintasunaren’ kontrako neurriak izango bai lirake. Ezin izango guke argudiatu, umeen (eta, handitzen direnean, helduen) askatasun efektiboak handitu egin direla, eta horrek aberatsen askatasunak ez dituela neurri handian gutxitu. Izan ere, Nozick-ek askatasuna murriztarazten duen edozein jokabide galazten du.” (Cohen, 1995: 31-2). Beraz, utilitarismoak ongizatea edo zoriontasuna maximizatu nahi zuen modu berean (nahiz eta horretarako zenbait gizabanakoren eskubideak apurtu beharra izan), Nozick-ek dio berak “eskubideen utilitarismoa” duela helburu. Egitasmo hau luzatu eta berehala, galdera bat etortzen zaigu burura: eskubideak bai, baina norenak? Gizabanakoarenak, jakina, ezin baita suposatu “gizartea” bezalako izaki metafisikoak plazerra edota aiherra sentitzen duenik, hots, bere ongizatea maximiza dezakeenik: “ez dago on bat eta bere etekin bereziaren alde sakrifizioen bati eusten dion inolako *entitate sozialik*. Pertsona indibidualak baino ez daude, pertsona indibidual ezberdinak, bizitza propioak dituztenak. Gizabanako hauek beste batzuen mesedetan erabiltzea, berau erabiltzea eta besteei mesede egitea da. Besterik ez”. (Nozick, 1988: 44).¹¹

3. Azkenik, eskubideen babesak sistema politikoaren ardura bakarra izan behar du. Zentzu honetan, eskubideak sakonak (*exhaustive*) dira. Ez dago arazo bakar bat ere eskubideen gain ezartzen denik, dela erabilgarritasun soziala, dela edertasuna, edo dena delakoa. Ezaugarri hau argitzeko, 5. oin-oharrean jarritako adibidea ekarriko dugu gogora berriro ere. Familia bat balore arkitektonikoa eta historikoa duen oinetxea saltzera beharturik kausitu da. Horren jabegoa justua bada (eta geroxeago zehaztuko dugu horrek zer esan nahi duen Nozick-en arabera), orduan inork ezin izango du etxearen edertasuna argudiatu bere babesa aldarrikatzeko, hori balore bat (estetikoa) eskubide baten gainean (propietatearena, alegia) ezartzea izango bailitzateke.

Eskubideen hiru ezaugarri hauetan oinarrituta —negatiboak, mugak ezartzea besteen jokabideetan eta sakonak—, Nozick-en ustez eskubideek izaera absolutu eta bortxaezina dute. Ezin dira zapalduak izan ez ongizate publikoaren izenean eta, oro har, ezta beste eskubide batzuen izenean ere. Eskubideen zampaketa ez dago inoiz justifikatuta, eskubideak naturalak baitira. Orduan, gizarte politikoaren egin-kizunik garrantzitsuena berauek bermatzea izango da. Ez gehiago, ezta gutxiago ere.

11. Aldera dezagun Nozick-en baieztapen hau 1980ko hamarkadan politika neoliberalaren adierazgarri izan zen M. Thatcher-en honako adierazpen hauekin: “Ez dago gizarteaz hitz egiterik. Gizonezkoak eta emakumeak gizabanako modura daude, eta badaude familiak” Kasualitatea ote da bi adierazpen hauen antza? (M. Thatcher-ekin elkarrizketa, *Woman’s Own*, London, urria, 1987. Denis Duclos-ek aipatua, “Los crímenes del odio como síntoma de una sociedad fragmentada”, *Le Monde Diplomatique*, urtarrila, 1998, 17. orr.).

Miniarkia edo gutxieneko estatuaren defentsa

Seguru aski, gutxieneko estatuaren defentsaren proposamena neoliberalak luzatzen dituzten neurrien arteko ezagunena da. Birbanatzaile izateko asmoz sortu zen ongizate-estatuaren gain neurri honek izan dezakeen eragin nabarmena kontuan hartzen badugu, ez da harrizkoa proposamen honek bazter askotatik erakarri duen arreta.

Bere teoriaren ezaugarri honi dagokionez ere, eta bere filosofia moralaren oinarritzko ideiekin gertatzen zen bezala, Nozick-ek argi uzten du liburuan hasiera batetik, bere ustez Mendebaldeko herrialdeetan estatuak duen eginbearra zein den. Liburuaren lehenengo orrialdean honelaxe dio: “Estuari dagokionez, gure ondoriorik garrantzitsuenak hauxe da, alegia, gutxieneko estatu bat, hau da, bortxa, lapurketa, iruzur, hitzarmenen betetzea. e.a. bezalako betekizun estuak betetzera mugatuta da-goen estatu, justifikaturik dagoela; izan ere, estatu zabalago batek, pertsonak zenbait gauza egitera behartuko dituelako, eskubideak bortxatuko dituela halabeharrez eta, beraz, justifikaziorik ez duela; eta gutxieneko estatu inspiratzailea eta zuzena dela. (ibid: 7). Baieztapen honetan azpimarratu beharrekoak diren ondoko bi ondorio hauek dira: “Estatuak ez lukeela bere tresneria behartzailea erabili behar hiritar batzuk beste batzuk lagundu dezaten, ezta ere bere ongizate edo babesa *propiorako* bideratuta dauden eginkizunak debekatu”.

Honelaxe laburbiltzen da Nozick-ek estatuaz duen ikuspegia, neoliberal askok bere egiten duten ikuspegia, alegia. Jarraian, Nozick-en arabera horren eginkizun zehatz eta mugatuak dituen estatu baten sorrera-prozesuari jarraituko diogu. Horretarako, metodologikoki ezinbestekoa da estaturik gabeko egoera batean kokatzea, eta egoera horren gabeziak azalera ekartzea, bukaeran hortik atera beharra dagoela ikustarazteko.

Estaturik gabeko egoera metaforikoaren erabilpena ez da Nozick-en asmakuntza. Izan ere, gizarte-hitzarmenaren teoria klasikoaren ordezkariak diren Hobbes-ek eta Locke-k¹² estaturik gabeko anarkia-, edota natura-egoera bat ere deritzona, irudikatu zuten, botere konfigurazio zehatz batekiko menpekotasuna legitimatzeko asmoz. Hobbes-en kasuan, natura-egoeraren deskripzioa guztiz ezezkorra zen, bertan bizitza “bakartia, pobrea, nazkagarria, abereen modukoa eta laburra” baitzen (1995: 107). Lockek, aldiz, anarkia-egoera “bake, ongura eta elkarrekiko laguntza eta defentsako estatu” dela esaten du (1983: 16). Dena den, nahiz eta itxura batean oso egoera desiragarria izan, Locke-ren natura-egoera horrek badu gabezia nabarmen bat, eta ez nolana hiko gainera: bertan ez dago ez magistradorik, ez justizia-arauak indarrean jartzeko gai den botererik. Nor bere kasuaren epaile bakarra da, hortik ondoriozta daitekeen inpartzialtasun-ezarekin. Beste hitzetan esanda, natura-egoera eskubideak eta abantailak ez daude behar

12. Neurri handi batean, Nozick-en filosofia Locke-rengan oinarritzen da, zenbaitetan bere ideiekiko zorra aitortzeko, beste zenbaitetan bere argudioak eta baieztapenak kolokan jartzeko.

bezala bermatuta (*ibid.*: 93), bertan gizonezko bakoitzak, nor bere aldetik, berea dena ahalik eta hoberen defendatu behar duelako. Deskribapenak deskribapen, aipaturiko bi autoreen kasuetan, natura- edota anarkia-egoeratik ateratzea eta egoera politiko batetarantz abiatzea premiazko eginkizuna da, gizakiek gizarte bizigarri batean iraun nahi badute, behinik behin. Bi filosofo hauen ustez, egoera batetik besterako transizioa ahalbideratuko duen tresna, gizarte-hitzarmena izango da.

Nozick-ek, bere aldetik, ez du gizarte-hitzarmenaren teoria gaurkotzeko inolako asmorik; bai, ordea, Locke-k formulatu zuen erronkari heltzekoa, honelaxe laburbil dezakeguna: anarkia-egoera morala da, bertan gizabanakoek bizitza, askatasuna eta propietaterako eskubideak dituztelako, eta baita eskubide horiek ahalik eta hoberen defendatzeko eskubidea ere; baina, gobernu eraginkorrik gabeko egoera honetan justizia administratzea zein zail den kontuan hartuta, estatu bat sortzea egundoko aurrerapausua izango litzateke. Nola sortu estatu bat (indarraren erabiltzaile legitimo bakarra izango dena eta, gainera, bere eraginpeko lurraldean bizi diren gizabanako guztiak babestuko dituena; Nozick-en ustez, estatu zilegi batek bi eginkizun horiek bete beharko ditu, eta bi horiek baino ez; ikus 35. eta 117. orr.) era moral batez, hau da, gizabanakoaren eskubideak bortxatu gabe? Hauxe da, estatuaren sortze-prozesuari dagokionez, Nozick-ek buruan duen eginkizun nagusia.

Locke-k ez bezala, Nozick-ek dio natura-egoeraren baitan badirela metodo batzuk justizia era eraginkor batez ezartzeko, baina behin metodo horiek erabiliak izan direnean, estatu baten aurrean aurkituko gara, ia nahi gabe, alde aurretik horrelako zerbaiteko zela inork ez baitzuen aurreikusten. Hauxe da “esku ikustezinaren azalpena”, estatuaren sorruntzari aplikatua. Are gehiago, eta hau Nozick-ek irudikatzen duen ibilbidearen abantaila gehigarria izango litzateke, nahi gabe sorturiko estatuak lege morala errespetatzen du, bere sortze-prozesuan ez baititu inoren eskubideak bortxatzen.

Hasierako puntua anarkia-egoera eta bukaerakoa gutxieneko estatua direlarik, Nozick-ek zenbait pausutan garatzen du bere argudioa. Baina, berriro diogu, bestela Nozick-ek salatuko lukeelako, pausu batetik bestera inoren eskubideak ez dira kalte-urik suertatzen. Ekin diezaiogun, bada, estatuaren sortze-prozesuaren azterketari.

Hasteko, natura-egoeran diren arazoak ekarri behar ditugu gogora. Bertan nor bere buruaren epaile bakarra dela dioen Locke-ren ideian sakonduz, hauxe esaten digu Nozick-ek: “beren kasuen epaile diren gizonak zalantzaren abantaila emango diete beren buruei, eta zuzen direlakoan jokatuko dute. Nozitu duten min edo kalte-maila gainbalioetsiko dute, eta pasioak eraginda saiatuko dira besteak zigortzen, proportzionalki baino haruntzago joz eta gehiegizkoak diren ordainak eskatuz ...[egoera honek] gatazka amaierarik gabeko errepresalia eta ordain eska-

12. Neurri handi batean, Nozicken filosofia Lockerengan oinarritzen da, zenbaitetan bere ideiekiko zorra aitortzeko, beste zenbaitetan bere argudioak eta baieztapenak kolokan jartzeko.

kizunetara daramalarik. Ez dago modu finkorik aipaturiko gatazka *konpontzeko...* Era berean, baliteke natura-egoera batean pertsona batek bere eskubideak indarrean jartzeko adina botere ez izatea; baliteke bere eskubideak bortxatu dituen eta indartsuagoa den arerio bat zigortzeko edo ordaina eskatzeko ezgauza izatea” (*ibid.*: 24). Nola konpoduko ditu natura-egoeran bizi den jendeak arazo korapilatsu hauek? Irtenbiderik naturalena —logikoena, esaten digu Nozick-ek— gizabanako bat beste batzuekin elkartzea eta “elkar-babeserako elkarteak” sortzea izango litza-teke: “Deituz gero, besteak berarekin elkar daitezke defentsa-lanetan. Elkartu egin daitezke... izpiritu zibikoa dutelako, edota lagunak direlako, edota iraganean berak lagundu dielako, edota etorkizunean beraiek ere laguntza jaso nahi dutelako, edota zerbaiten truke” (*ibid.*: 25). Era honetan, norbera baino indartsuago den lege-apurtzaile bati aurre egiten ahal zaio, edo ezbidezko eskakizunak dituen norbaitengandik babestu ahal dira. Honela, bada, natura-egoeratik elkar-babeserako elkarteak daudeneko egoerara doan trantsizioarekin, estatu-sortzearen lehenengo harria jarrita dago.

Elkar-babeserako elkarteak daudeneko egoerak badu abantaila bat natura-egoeraren aldean. Elkartekideek arrazoi sendorik gabe laguntza eskatu zaiela uste badute, orduan uko egin diezaiokete laguntza-deiari. Beste hitzetan, deia jasotzen dutenak, gatazkaren protagonista ez izatean, ez daude pasioak edo egoismoak jota eta ez dute nahi izango guztiz zentzuzkoak ez diren liskarretan parte hartzea. Baina egoera honek badu ere desabantaila bat natura-egoerarekiko. Besteak laguntzeak denbora eta ahalegina moduko ordainak eskatzen ditu, eta inbertsio horiek guztiok ekidin nahi izango genukeen zerbait da. Oraingo momentu honetara iritsita dagoen irtenbidea —esaten digu Nozick-ek—, lan-banaketan datza. Gainerako ondare eta zerbitzuekin gertatzen den bezala, enpresario batzuk sortuko dira defentsa-zerbitzuak eskeintzeko asmotan. Beste pertsonekin elkartu beharrean, agentzia babestaile baten zerbitzuak eros daitezke. Bigarren etapa honetan, orduan, merkatari izaera duten agentzia babestaileen aurrean egongo ginateke konturatu gabe.

Hasiera batean, lurralde batean agentzia batek baino gehiagok eskainiko ditu bere zerbitzuak. Dena den, merkatu librearen esparru honek monopolio edo oligopoliorako joera erakusten du. Ondorioz, bategiteak, erosketak, kartelak edota afiliazio-joerak direla medio, egoera berri batera iritsiko gara, zeinean lurralde bakoitzeko agentzia babestaile nagusi bat edota elkarkidetzak-akordioetara iritsi den agentzia-federazio bat egongo den. Gauzak horrela, estatu baten aurrean aurkitzen al gara jadanik? Ba al dago agentzia nagusi hori estatuarekin berdintzerik? Ezezko erantzuna ematen digu Nozick-ek. Izan ere, gizabanako batzuk natura-egoeran nork bere bizitza, askatasuna eta jabegoa defendatzeko duten eskubideei eusten ahal diete oraindik ere. Indibidualismoak jota dauden gizabanako hauek ez daude interesatuta elkar-babeserako agentzia baten kide izateko ideiarekin. Eta jakina, ikuspuntu libertario batetik zail da ikusten modu bat, pertsonak haien eskubide naturalak laga ditzaten behartzeko. Beraz, oraindik indarraren erabilpen legitimoa lortu ez duelako (gizabanako batzuk beren eskubide naturalari eusten diete oraindik ere), eta guztiontzako babesa eskaintzen ez duelako, ezin da esan hizpide dugun agentzia horrek estatuaren itxura hartzen duenik.

Egoera honetara iritsita, ez dirudi gehiegi aurreratu dugunik natura-egoeraren aldean, oraindik ere badirelako gizabanako batzuk autodefentsa eta zigor-eskubideak mantentzen dituztenak. Hauek, lege naturala ezartzeko orduan, gehiegikeriaz joka dezakete, esaterako errugabeak, direnak zigortuz edota errudunak direnei neurritz gaineko zigorrak ezarriz. Independenten hauen egoteak sortarazten dituen arriskuen aurrean, eta bere bazkideak babestearren beti ere, elkar-babeserako agentzia nagusia neurri bat hartzera beharturik egongo da: bere bazkideren bat erasotzen duen edonor zigortuko du; baina independenteak agentziak burutu nahi duen indarraren erabilpena legitimoa dela frogatzen badu, orduan azkenengoak bere oniritzia emango dio lehenengoari. Honek guztiak esan nahi du, agentzia babestailea indarraren erabilpenaz erabakitzen duen entitate legitimo bakarra dela, berak zuzenean erabiltzen duelako edo, bestela, independenteek bere erabil dezan baimena ematen dutelako. Ibilbide honen ondorioz sortu den agentziak badu, oraingoan bai, estatuaren ezaugarri bat: biolentzia baimenduaren monopolioa, alegia. Estatu ultra-minimoaren aurrean gaude jadanik.

Hemen ez da istorioa bukatzen, ordea. Independenteei eskubide natural bat dute besteak zigortzeko, beren bizitza, askatasuna edo jabegoa erasotua izan dela uste duten bakoitzean. Baina babeserako agentziak ez die uzten eskubide hori erabiltzen berek nahi dutenean, ezta nahi duten moduan ere, gaizki erabilia izan daitekeen beldur. Nola jokatu egoera honen aurrean? Zernolako irtenbidea eskaintzen digu neoliberalismoak Nozick-en eskutik? Kontuan izan behar dugu estatuaren eraikitze-prozesu osoan zehar Nozick oso kezkatu agertu dela eskubide naturalak errespetatzeaz. Irtenbide bat bilatzerakoan, orduan, jakin badakigu estatuak eskubide naturalen begirunea duela mugatzat. Baldintza hau kontuan hartuta, Nozick-ek eskaintzen digun irtenbidea honako hau da: independenteek konpentsatu egin behar zaie beren eskubide naturalak ez erabiltzeagatik. Zer motatako konpentsazioa? Gauden egoeran, Nozick-ek dio beraiei ere babes-zerbitzuak eskaintzea ordainketa egokia dela.¹³ Puntu honetara iritsita, badugu gorputz politiko bat, aldi berean biolentziaren erabiltzaile legitimo bakarra dena eta bere eraginpeko lurraldean bizi diren gizabanako guztiei babesa ematen diena. Orain bai, estatu ultra-minimotik (biolentzia baimenduaren monopolizatzailea dena) estatu minimora (lehenengo ezaugarri gain, guztiei babesa ematen dielako) igaro gara. Hasierako egoeran, hots, anarkia-egoeran geundelarik, inork ez zuen buruan horrelako egitura bat sortzea. Ez zegoen inola ere aurreko-sirik. Estatuaren sortze-prozesuan, fase guztietan zehar, inoiz ez dira inoren eskubideak bortxatu, eta hori asko esatea da eskuineko ikuspuntu libertario edota neoliberal batetik. Horri esker, legitimitatearen zigor lortzen du. Birbanaketa-lanei ekiten dion estatu

13. Jakinaren gainean egon behar dugu, gauza bat dela konpentsazioa eta beste bat (Rawls-ek onesten zuena baina Nozick-ek inoiz ere onartuko ez duena) birbanaketa. Izan ere, berak proposaturiko irtenbideak birbanaketaren antza hartzen du, batzuk babes-zerbitzua jasotzearen ordaindu egiten dutelako eta beste batzuk, aldiz, ezer ordaintzen ez dutelako, dohainik jasotzen baitute. Mundu guztiak babesa jasotzen duen arren, sustraian aurkitzen den arrazoiaren ondorioz ez da ongi ongi orokorrarena, edota berdintasunarena, baizik eta konpentsazioarena, natura-egoeran gizabanakoari berezko zaizkion eskubideei ez eustearren.

bat, aldiz, ez litzateke legitimoa izango, gizabanakoen eskubideak momentu batean edo bestean apurtuko dituelako halaberrez. Argudio hau ongi ulertzeko, lehenengoz bere justiziaren teoria aztertu behar dugu. Hauxe izango da hurrengo eta azkenengoa den epigrafearen edukia.

Historian erroturiko justiziaren printzipioak

Ongizate-estatuaren antolamendua Bigarren Gerrate Mundialaren ostean indarrez sortu zenetik, Mendebaldeko biztanlegoa ohituta dago heziketa, osasuna, asegurantza soziala, eta beste hainbat zerbitzu jasotzera. Rawls-ek eta bere jarraitzaile liberal-igualitaristek, hala nola ezkerreko beste tradizio batzuetan kokatzen diren pentsalari askok, adostasuna agertu dute ongizate-estatuaren funtsezko helburuekin¹⁴. Gaur egungo herrialde garatuak justiziaren ideiak eskatzen du, pentsalari hauen ustez, botere politikoez bultzaturiko diru-sarrerara eta aberastasunaren birbanaketa bat. Laurogeiko hamarkadan hasita, Thatcher-en eta Reagan-en gobernuekin hasita, ongizate-estatuak eraipen-saio larriak jasan ditu. Saio-mota horiei Nozick-ena bezalako eraikuntza filosofikoez sustengu intelektuala eman dietela esan daiteke. Izan ere, polizia, ejerzito eta sistema judizialari atxikita dauden erakundeak baino onartzen ez dituen estatu minimoaren defentsa egitean, Nozick-ek eta, oro har, neoliberalismoak, gizabanakoaren eguneroko bizitzaren gain eragin nabarmena duen neurria aldarrikatu du.

Ondoko lerroetan, Nozick-en baieztapen bat hartuko dugu abiapuntutzat, zeinaren arabera estatu minimoak ondoen eta egokien bermatzen duen justizia. Eginkizun honi buelta emanaz, ikusiko dugu zernolako argudioak ematen dizkigun Nozick-ek, gutxienekoa baino zabalagoa den estatu bat errefusatzeko. Eginkizun horretan, “eskubideen teoria” bat garatzea ezinbesteko egiten zaio. Teoria hau onartzeko, frogatutzat eman beharko litzateke jabegoa eta hitzarmenen betetzea direla gobernu legitimo batek har ditzakeen eginkizun bakarrak.

Justiziaren edozein teoria, gizarte batean dauden ondasunak banatzearen arazoaz arduratzen da. Eztabaidagune honi “justizia banatzaile”-aren auzia deitu beharrean, adierazpena bera neutrala ez delakoan,¹⁵ Nozick-ek nahiago du “ondasunen justizia”-z hitz egitea. Beraz, bere eskubideen teorian oinarrituta, justiziaren teoria bat dena, ondasun jakin batzuen jabegoa noiz den justua galdetzen duen auziari erantzuten saiatuko da. Nozick-ek ondasunen justiziaz

14. Hasiera batean ezkerreko pentsalari askok proletargoa eta burgesiaren artean lortutako “hitzarmen historikoa”, zeinaren ondorioz Ongizate Estatuak sortu zen, saldukeria hutsa izan zela pentsatzen zuten, sistema kapitalista bere hartan mantentzen zuelako. Dena den, azkenengo urteotan lehen kritikari izandako askok, neurri handi batean neoliberalismoak bultzaturiko neuri desregulatuzailei erantzunez, Ongizate Estatuaren defentsari ekin diote. Zentzu honetan, eta Giddens-ek (1996) gogorazten digun bezala, ezkerreko “kontserbadore” bihurtu da

15. Nozicken ustez, “justizia banatzaile” esamoldea ez da neutrala, aditzera ematen duelako baliabideak eta ondasunak “giza lapiko” erraldoi batean daudela autoritate zentral batek noiz banatuko zain, eta ez duelako bere historia aintzakotzat hartzen. Aurrerago idazkian argiago geldituko da baieztapen hau.

arduratzeko diren teoriaren arteko bereizketa bati ekiten dio. Alde batetik, esaten digu, amaierako egoeraren printzipioak defendatzen dituzten teoriak izango genduzke (*current time-slice principles* edo *end-state principles*). Utilitarismoa ikuspuntu honen defendatzailea izango litzateke. Hitz gutxitan, teoria-mota honek hauxe dio: “banaketa baten justizia, ondasunak banaturik nola dauden zehaztearen arabera dago (nork zer duen), hori banaketa justuaren printzipio *estruktural* bat/batzuen arabera erabakia” (*ibid.*: 157).

Esaterako, A-k 10 du eta B-k 5, edo alderantziz, A-k 5 eta B-k 10; bi banaketok utilitate bera ematen badute; orduan, banaketa bat ala bestea aukeratzea, zerbait arbitrarioa da. Banaketa batetik bestera iragateak ez luke, hortaz, inolako injustiziarik ekarriko, zoriontasun-maila bere horretan mantenduko bailitzateke.

Teoria-mota hauekin kontrajarrita, justiziaren teoria historikoak ditugu. Banaketa bat justua den ala ez deliberatzeko, iraganean burutu diren ekintzak edo baldintzak kontuan hartzen dituzte teoria-mota hauek. “Bakoitzari bere ekarpenaren arabera” bezalako aginduak teoria honen isla dira. Nozick-ek bitan banatzen ditu sustrai historikoak dituzten teoriak: arautuak eta ez-arautuak. Teoria arautuek “dimentsio naturalen” bat hartzen dute oinarritzat banaketa justu bat burutzerakoan. Proposatutako diren justizia banatzailearen printzipio ia guztiak (Rawls-ena, besteak beste) arautuak dira, zeren Nozick-en ustez banaketa “bakoitzari bere meritu moralaren arabera, edota premiak, edota etekin marginala, edota ahalegina, edota aurreko irizpideen gehiketa ponderatuaren arabera, e.a.” gomendatzen baitute burutzea (*ibid.*: 159); “Justizia banatzailearen eginkizuna `bakoitzari bere ———aren arabera´ esaldian agertzen den hutsunea betetzea dela pentsatzea, alde aurretik arau bat bilatzeko prest egotea da” (*ibid.*: 162).

Nozick-en ondasunen justiziaren teoria, historikoa den arren, ez da arautua: “Ez dago dimentsio natural bat, edota zenbait dimentsio natural txikiagoen konbinazio edo gehiketa ponderatu bat, eskubideen printzipioak errespetatuz banaketa burutzen duenik” (*ibid.*: 159-160). Berea, orduan, justizia banatzailearen teoria historikoa ez-arautua dugu.

Teoria honen kezka nagusia ondasun baten jabearen ibilbidea edo istorioa aztertzea da, gauza baten jabea izaterainoko prozedura zuzena izan den ala ez ikusteko. Hartarako, elkar-loturik dauden hiru printzipio bereizten du (*ibid.*: 154):

1. Eskuratze-justiziaren printzipioaren arabera ondasun bat bereganatzen duen pertsona batek, ondasun hori izateko eskubidea dauka.
2. Pertsona batek bere ondasuna ondasun horren jabea zen norbaitengandik transferentzia-justiziaren printzipioaren arabera bereganatzen badu, aipaturiko ondasun hori izateko eskubidea dauka.
3. Inork ez du ondasun baten eskubiderik 1. eta 2. printzipioak (behin eta berriro) ezarri gabe.”

Lehenengoak, *eskuratzeko-justiziaren printzipioak (justice in acquisition)*, jaberik gabeko status batetik jabetun den beste egoera batetara era zuzen batez nola igaro esaten digu. *Trasferentzia-justiziaren printzipioak (justice in transfer)*, bere aldetik, aurretik era zuzen batez lortuak izan diren ondasunak nola elkar-trukatu azaltzen digu. Nozick-en printzipio honen muina hau da, alegia, transferentzia bat justua dela baldin eta borondatez burutzen bada. Baina, gure mundu hau erabat justua ez dela kontuan hartuta (esate baterako, zenbaitetan jendeak indar edo iruzurren bitartez bere egiten ditu ondasunak), *zuzenketa-justiziaren printzipio (justice in rectification)* bat behar-beharrezkoa dugu, iraganean eman diren bidegabekeriak konpontzeko. Funtsean, hiru printzipio hauek honako mezu hau luzatzen digute elkarturik: ondasun jakin bat era justu batez lortu izan bada, orduan bere jabea justua dela baieztatu daiteke. Adibidez: momentu honetan lur-zati baten jabea banaiz, lehenengo printzipioak esaten digu lurra noiz hasi zen nire izaten; bigarren printzipioaren arabera, libre naiz lur-zati horrekin nahi dudana egiteko; zuzenketa-printzipioak, azkenik, lehenengo edota bigarren printzipioen kontra norbaitek jotzen duenean nola jokatu erakusten digu. Banaketak justiziaz burutzeko, ondasunaren historiari erreparatu behar diogu. Honela, bada, bere teoria honek prozedura azpimarratzen du, eta ez arauak.

Ez da erraz ikusten —ohartarazten digu Nozick-ek—, zer dela eta mundu guztiak ez duen onartzen berak proposaturiko eskubideen teoria (ikus *ibid.*: 163). Izan ere, truke bat askatasunez burutzen bada, nola da posible egoera berriaren justizia zalantzan jartzea? Askatasuna truke-askatasunarekin berdintzen duela konturatuz gero, Nozick-en argudioaren mamia ulertzea erraza da: “askatasunak ez ditu arauak atsegin,” hau da, askatasunak, lehenago ala beranduago, arauak alboratuko ditu. Baieztapen hori argitzeko, Wilt Chamberlain-en adibide ospetsua jartzen digu. Imajina dezagun gure gustukoa den arau bat (zehazki zein den, ez da garrantzi handikoa) indarrean dagoela; arau horretatik ondorioztatzen den ondasunen banaketari D1 deituko diogu: “Eman dezagun Wilt Chamberlain oso saskibaloi-jokalari preziatua dela, ...[eta] ondoko hitzarmen-mota hau sinatzen duela: etxean jokatutako partidu guztietan, sarrera bakoitzak kostatzen duenaren hogeita bost zentabo berarentzat izango da... Demagun denboraldi bakar batean saskibaloi-estadiora miloi lagun inguru hurbildu dela, eta denboraldi-amaieran Wilt Chamberlain 250.000 dolar patrikaratu dituela, beste jokalarien batezbestekoa baino askoz gehiago, eta beste inork baino gehiago. Eskubiderik al dauka diru hori jasotzeko? D2 banaketa berri hau, injustua al da?” (*ibid.*: 163). Borondatezkoak diren elkar-trukeek, hortaz, aldeztu aurretik zehaztutako araua ez dute atsegin izan. Banaketa berria, D2, justua al da? Nozick-ek baietz erantzuten du. D1 egoera justua bazen, eta jendeak bere borondatez D2-a aukeratzen badu, orduan ez dago inolako zalantzarik banaketa berria ere justua dela. Beraz, banaketa berria justua izan daiteke eta izatez bada, Nozick-en ustez, nahiz eta hasieran zehaztutako arauarekin bat ez etorri.

D1 banaketari eustea, Nozick-ek dio, gizabanakoaren askatasunaren kontrako neurria da, eta hori, ikuspuntu libertario batetik, onartezina da, norbereburujabetasunaren printzipio moralaren kontra jotzen baitu ezinbestez. Honek guztiak ondorio garrantzitsu batera garamatza: justiziaren edozein ikuspegi arautu alboratu egin beharko genuke Nozick-ek luzatzen duen eskubideen teoriaren mesedetan, hoenk jendeari era zuzen batez eskuratu duenarekin nahi duena egiteko erabateko askatasuna ematen baitio.¹⁶

Justiziaren teoria arautuen defendatzaileek (Rawls-ek edo marxismoak, besteak beste) bakoitzari bere beharren arabera banaketa onartzen dutenez, batzuei kendu egiten diete beste batzuei emateko. Gaur egungo ongizate-estatuaren ondoren birbanaketa hau zergen bidez burutzen da. Nozick birbanaketarako tresna honen arerio sutsua da, zergak jartzea ezartzea askatasunaren kontrako neurria baita: “Irabazkinen gaineko zergak lan-derrigortuaren parekoa da... n lan-orduren mozkinak hartzea, pertsonaren n lan-ordu hartzea bezalakoa da; pertsona bat beste bat n lan-ordu betetzera behartzea bezalakoa da” (*ibid.*: 170-1). Lan-derrigortuaren kontra bagaude (eta badirudi gure gizarte liberaletan hori printzipio adostua dela), orduan beste batzuen egoera hobetzeko zergak ezartzea gaitsetsi beharko genuke. Justifikaturik dauden zerga bakarrak, jabetzaren babesa bermatzea helburu dutenak dira, hots, gutxieneko estatu batek bere gain hartzen dituen eginkizun legitimo bakarrak betetzera bideratutakoak. Neoliberalen arabera, beraz, osasun-sistema publikoaren erabiltzaileek, gutxieneko diru-sarreraren jasotzaileek, bekadunek eta, oro har, ongizatearen-estatuaren babesa momentu batean ala bestean jaso duen edonork, beste batzuen den dirua hartu dute; beste batzuen lanaren etekinaz profitatu dira, inolako merezimendurik gabe. Jakina, norbaitek bere kontzientziaren aginduei jarraikiz pobreak laguntzea erabakitzen badu, Nozick-ek bere oniritzia emango dio, laudatu eta guztiz egingo du; baina argi gelditu behar da, bere borondatez harturiko erabakia dela, eta ez inork behartua. Onargarriak diren arau bakarrak, nork bere buruari ezarritakoak dira, inoiz ez kanpotik etorritako indar batek (estatuak, alegia) ezarritakoak.

Ondorio Gisa

Nozick-en betaurrekoetatik aztertu dugun bezala, neoliberalismoaren filosofia politikoak ez du zoriontasuna oinarrian, utilitarismoak duen bezala; askatasuna eta berdintasuna bateragarri egiten ere ez da saiatzen, ezkerreko tradizio ezberdinek saiatu diren bezala. Bere asmoaren giltzarria norbereburujabetasunaren ideia da. Honen arabera, gizabanako bat bere buruaren jabea da, eta baita era zuzen batez jasotako ondare guztien jabe bakarra ere. Hartarako baimena jaso ezean, edo besteen eskubideei eraso egin ezean, inork ezin ditu pertsona baten eginkizunak edo

16. Borondatez buruturiko elkar-truke bat justua delako intuizioaren aldean, borondatezkoak diren trukeek egoera guztiz injustu batera ere eramanez dezakeela pentsa daiteke. Horrelako kasuetan, ez al litzateke desiragarria arau bat ezartzea? Cohen-en ustez, kasu horietan arauak askatasuna babesteko dezakete (1995, 1. atala).

jabegoa oztopatu. Honako filosofia moral honetan oinarrituta, Nozick-ek jabego pertsonala eta bizitza-eskubideak defendatuko duen gutxieneko estatu baten defentsa burutzen du.

Horiek baino zabalagoak diren eginkizunak bere gain hartzen dituen estatua ez da zilegia, momentu batean edo bestean gizabanakoaren askatasunaren kontra (beste gizartekideak ez laguntzeko eskubidea, esan liteke) joko duelako halabeharrez.

Oro har, Nozick-en filosofia balore-bakarrekoa (*single-value philosophy*) dela esan daiteke. *Laissez-faire* erako kapitalismoaz egiten duen defentsak ez du leku askorik uzten botere publikoaren aldetik bultzaturiko elkartasunerako, hau da, sare-sozial bereko kideak izateko dugun kontzientzia lantzeko, zeinetatik elkarrekiko laguntza eta afektibitatea bezalako sentimenduak sortzen ahal diren. Honek guztiak neoliberalismoak elkartasunerako tokirik uzten ez duela esan nahi al du? Ez. Izan ere, neoliberalismoaren ikuspuntutik elkartasuna balore estimagarria izan daiteke, baina bere sorburua ekimen pribatuan dagoenean, eta ez autoritateek eragindakoa denean, horretarako jabegoaren gaineko zergak ezarri behar baitira, eta hori norbait esklabutza mailan jartzea da. Hortik dator, esaterako, azkenengo urteotan hainbat herrialdetan elkartasuna gizarte zibilaren eskuetan uzteko egitasmoa. Honekin guztiarekin elkarlotuta, oinarri hauen gainean erakitako gizarte batean osasun edota guztientzako heziketa bezalako lorpen historikoak ez lirateke bermatuta egongo. Gure egunetan gero eta garrantzi handiago hartzen ari den ingurugiroaren babesa ere kalteturik suertatuko litzateke, ez baitirudi erabateko merkatu-askatasunak Naturaren zainketa bultzatzen duenik.

BIBLIOGRAFIA

- BERMEJO, R. (1996). *Libre comercio y equilibrio ecológico*. Bakeaz, Bilbo.
- COHEN, G.A. (1995). *Self-ownership, freedom, and equality*. Cambridge University Press, Cambridge.
- COHEN, J. eta ROGERS, J. (1992). "Secondary Associations and Democratic Governance", *Politics and Society*, 20 (4): 393-472.
- DWORKIN, R. (1983). "Liberalismo", Stuart Hampshire (arg.), *Moral pública y privada*-n. FCE, Mexico.
- FORSYTH, M. eta KEENS-SOPER, M. (arg.). (1996). *The Political Classics. Green to Dworkin*. Oxford University Press, Oxford.
- FOWLER, M. (1980). "Stability and Utopia. A Critique of Nozick's Framework Argument", *Ethics*, 90 (4): 550-563.
- GIDDENS, A. 1996. *Más allá de la derecha y la izquierda*. Cátedra, Madril.
- HELD, D. *Modelos de democracia*. Alianza, Madril.
- HOBBS, T. *Leviathan*. Klasikoak, Bilbo.
- KUKATHAS, Ch. eta PHILIP, P. (1990). *Rawls. A Theory of Justice and its Critics*. Cambridge University Press, Cambridge.

- KYMLICKA, W. (1995). *Filosofía política contemporánea*. Ariel, Bartzelona.
- LOCKE, J. (1983). *Ensayo sobre el gobierno civil*. Aguilar, Mexico.
- LUND, B. (1996). "Robert Nozick and the Politics of Social Welfare", *Political Studies*, XLIV: 115-122.
- MACPHERSON, C.B. (1982). *La democracia liberal y su época*. Alianza, Madril.
- NAVARRO, V. (1997). *Neoliberalismo y Estado del bienestar*. Ariel, Bartzelona.
- NOZICK, R. (1988). *Anarquía, estado y utopía*. Mexico: FCE. [*Anarchy, State, and Utopia*. 1974, Cambridge, Blackwell].
- PLANT, R. (1991). *Modern Political Thought*. Blackwell, Cambridge.
- RAZ, J. (1986). *The Morality of Freedom*. Oxford Clarendon Press.
- RAWLS, J. (1978). *Una teoría de la justicia*. FCE, Mexico [*A Theory of Justice*, 1971, Harvard University Press, Cambridge, Mass.].
- RYAN, A. (1993). "Liberalism", Robert E. Goodin eta Philip Pettit (arg.), *A Companion to Contemporary Political Philosophy*. Blackwell, Cambridge.
- SEBASTIÁN, L. (1997). *Neoliberalismo global. Apuntes críticos de economía internacional*. Trotta, Madril.
- SWARTZ, P. (1994). "Las libertades inseparables, o razones y dudas del neoliberalismo", *Isegoría*, 9: 135-146.
- VALLESPÍN, F. (1985). *Nuevas teorías del contrato social J. Rawls, R. Nozick y J. Buchanan*. Alianza, Madril.
- WOLFF, J. (1991). *Robert Nozick. Property, Justice and the Minimal State*. Polity Press, Cambridge.
- WOLFF, J. (1996). *An Introduction to Political Philosophy*. Oxford University Press, Oxford.

2. Ekonomi politika neoliberalala eta bere alternatibak

Xabier Barrutia

UPV/EHUko irakaslea eta UEUKidea

SARRERA

Zelan amaitu langabeziarekin? Zelan lortu gizarte justuago bat? Helburu horiek lortzeko bitartekoren bat behar dugu. Zein? Ordezkaezina dugun bitartekoa estatua dugu, teorikoki gizartearen borondatea adierazten duena eta guztiz boteretsua dena. Alabaina, zoritxarrez, estatuak jarrai ditzakeen helburuak aurrerakoiak izan beharrean, bestelakoak izan daitezke. Lan honetan estatuak azken bi hamarkadetan edo neoliberalismoaren aroan aplikatutako politikak kritikatu ditugu. Politika horiek orain hamarkada batzuk jarraitzen zirenekin eta gaur egun ere aplikatu daitezkeen politika aurrerakoiagoekin alderatuko ditugu. Hori guztia hitz errazekin azalduko dugu, ekonomian dauden ideiak jende guztiak ulertzeko modukoak baitira.

Ekonomi helburuak jarraitzeko hiru instituzio nagusi daude: merkatua, estatua eta familia eta beste gizarte-harreman batzuk. Azken multzokoek, etxekoandreen lanak eta elkartasun-harremanek, ez dute ekonomialarien arreta handiegirik jaso. Betidanik nagusi dugun eztabaida, estatuaren eta merkatuaren artekoa da. Batzuek, liberalek, merkatuaren egokitasuna defendatzen dute ekonomiaren planifikatzaile bakartzat. Hala ere, nahiz eta onartu ez, praktikan beren helburuetarako estatuaren erabilera handia egin behar dute. Beste batzuek, keynesiarrak edo ekonomia mixtoaren aldekoek, merkatuaz gain estatuaren partehartzea ere aldarrikatzen dute, *ekonomi politika* izenaz ezagututakoa. Kasu honetan estatuaren partehartze aurrerakoa defendatzeko, horrela merkatuak ekartzen dituen desberdintasunak eta gizarte-arazoak konpontzeko.

Iritzi bi hauen nagusitasuna tartekatuz joan da historian zehar. Historikoki, Bigarren Mundu-Gerra arte liberalismoa izan dugu nagusi. Bigarren Mundu-Gerratik aurrera, berriz, 70eko hamarkadaren amaierara iritsi arte, ekonomia mixtoa eduki dugu, Keynes ekonomialariaren ideien nagusitzearekin batera. Baina, azken hamarkada bietan atzera ere liberalismoa nagusitu zaigu: neoliberalismoa.


Azken pausu honen hasiera 1979. urtean koka daiteke, Britainia Handian Margareth Thatcher-ek hauteskundeak irabazi zituenean. Jarraian, 1980. urtean Ronald Reagan-ek eskuratu zuen Estatu Batuetako lehendakaritza. Estatu fran-

tsean 1981. urtean Mitterrand-en ezkerreko gobernuak hauteskundeak irabazi ondoren, politika aurrerakoa aplikatzeari ekin zion. Hala ere, norabide-aldaketa emanez, politika liberalak hobestera pasatu zen 1983. urtean. Estatu espainolean ere, nahiz eta izenez gobernu sozialista bat egon, politika neoliberalak aplikatu dira 80ko hamarkadatik aurrera¹.

Gure lanak hemendik aurrera atal nagusi bi edukiko ditu. Lehenengoan ekonomi politikaren eskema bat egingo dugu; bigarrenan, berriz, neoliberalismoa (batez ere Mendebaldeko ekonomia mixtoetan oinarrituko gara) eta bere alternatibak azalduko ditugu, mundu-mailako politikak ere proposatuz.

EKONOMI POLITIKAKO ESKEMA

Ondoko irudian ekonomi politikako eskema bat, agertzen da: estatuaren partehartzea ekonomian.



1. MARTÍN SECO, J.F. (1993): *¡La economía estúpida, la economía!: La política económica del socialismo*, Libertarias/Prodhufo, Madril.

Ekonomi helburu batzuk erdietsi nahi ditugu, irudian ikusten direnak. Hauen lorpena ez dago ziurtatuta, arazo batzuk egon daitezkeelako. Beraz, politika desberdinak aplikatu beharko ditugu, aurre egiten diogun arazoaren arabera. Politika horiek, erakunde batzuen bitartez, ekonomi politikako bitarteko batzuk erabiliz aplikatzen dira.

Atal honetan ekonomi politikako bitartekoak bakarrik azalduko ditugu, eta eskema osoa funtzionamenduan bigarren atalean ikusiko dugu. Bitartekoak asko dira, Kirschen-ek egindako sailkapenean ikusten den moduan, estatuaren eskuan dauden aukerak anitzak direlako seinale.

Lehenengo bitartekoa *aurrekontu-politika* edo aurrekontu publikoa da, hau da, estatuaren gastu eta sarrera publikoak. Bitarteko guztiz zabala eta boteretsua dugu. Gastu publikoaren barruan estatuak gastatutako dirua agertzen zaigu osasun publikoan, hezkuntza publikoan, pentsioetan, azpiegituretan, enpresei emandako laguntzetan, e.a. Gaur egun, estatuaren gastu publikoak ekonomia osoan egiten den gastuaren erdia adierazten du. Sarrera publikoak ere desberdinak dira: PFEZ (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga), Sozietateen gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, Merkataritza-Arantzelak, e.a.

Ekonomi politikako bigarren bitartekoa *moneta-politika* dugu. Banku Zentralaren esku dagoen bitarteko honek ekonomian dagoen diru-kopuruan eta interes-tasetan eragiten du. Horrela, estatuak maileguten bitartez egindako gastuetan eragiten du. Bestetik, *ganbio-tasa* ere badago, hots, estatu desberdinetako monetak elkartrukatzeko parekotasuna. Norberaren moneta ahulduz, adibidez, estatuko ondasunen exportazioak bultza daitezke.

Laugarren bitarteko bat *kontrol zuzenak* dira. Hauetan estatuak aldagai bat kontrola dezake aginduak emanez edo konbentzitzeko ahalmena erabiliz. Adibidez, estatuak gehieneko edo gutxieneko prezioak agin ditzake, interes-tasak, gehieneko soldata-igoerak, lehengai estrategiko baten exportazio-kopurua, e.a. (Estatuak agindu barik, beharbada, arrakasta izan dezake bere konbentzitzeko ahalmenarekin, adibidez, eztabaidatu ondoren sindikatuen soldata-igoerak ekiditen). Kontrol zuzenen bitartez kontrola daitezkeen aldagaiak hamaika izan daitezke. Sobietar Batasun ohian, adibidez, enplegu-maila ere horrelaxe zegoen zehaztuta.

Bukatzeko, *marko instituzionaleko aldaketak* dauzkagu. Honen barruan legedian edo edozein instituziotan egiten diren aldaketak daude. Hala ere, normalean, aldaketa handiei deitzen zaie horrela. Adibidez, estatu espainolean Errentaren Gaineko Zerga ezarri zenean, aldagai garrantzitsu hori ez egotetik existitzera pasatu zen. Beste adibide bat estatuaren sarrera Europako Komunitatean izan daiteke, horrekin batera estatuko ekonomiaren joku-erregelak aldatu zirelarik. Lan-merkatua arautzen duen legedia ere alda daiteke, langileen eskubideak murriztuz edo bermatuz. Estatuaren arteko errenta-birbanaketa sendoak burutzeko,

mundu mailako gobernu bat sortuko balitz, hori funtsezko aldaketa bat izango litzateke marko instituzionalean.

Beraz, estatuak hamaika neurri dauzka eskura.

POLITIKA NEOLIBERALA ETA POLITIKA ALTERNATIBOAK

Atal honetan, aurreko ataleko eskemari helduz, estatuak arazo bakoitzaren aurrean aplikatutako politikak banan-banan ikusiko ditugu. Lehenengo eta behin, kasu bakoitzean arazoa azalduko dugu, eta baita bere aurka aplikatu beharreko politika ere. Bigarrenik, politika horrekiko ekonomia mixtoaren esperientzia historikoa zein izan den aztertuko dugu. Hirugarrenik, neoliberalismoaren egungo iritzi eta praktikari helduko diegu. Azkenik, balorazio pertsonala egingo dugu.

Babes sozialik eza

Arazoa eta ongizate-estatuak

Egon daitekeen arazorik larriena gizarte-desbabesa da. Jende batek bizitzeko beharrezkoak dituen baliabideak eskura ez daukanean gertatzen da. Horrela aurki ditzakegu langabetuak, lan egin ezin dezaketenen elbarrituak, zaharrak, etab.

Arazo honen aurka estatuak daukan politika, *ongizate-estatuak* da. Estatuak aurrekontuko gastu publikoarekin jende horren babesa handitu dezake: pentsioekin, langabezi aseguruarekin, txirotasun-alokairuekin, osasun publikoa eskainiz, hezkuntza publikoa eskainiz, etab. Errentaren birbanaketa hau egiteko, estatuak sarrera publikoak erabiltzen ditu.

Ekonomia Mixtoaren Esperientzia

Ekonomia mixtoak ongizate-estatuak aplikatu izan du eta merkatuaren funtzionamenduak desberdintasun handiak ekar ditzakeela onartu du.

Historikoki, nahiz eta ongizate-estatuak Bigarren Mundu-Gerraren ondoren zabaldu, bere lehen urratsak lehenago eman zituen. Horrela aintzindari legez sarri aipatzen da 1880ko hamarkadako Von Bismarck-en Alemania, Lloyd George-ren Britainia Handia 1911. urtean, etab.

Neoliberalismoaren Iritzia

Neoliberalismoaren diskurtsoa ongizate-estatuaren aurka agertzen zaigu. Hauen arabera, merkatuari lan egiten utziz, gizartean lortzen diren emaitzak ez dira txarrak. Ongizate-estatuaren bitartez parte hartuz gero, estatuak kalteak ekarriko ditu, berdintasuna eta eraginkortasunaren arteko gatazka gertatuko baita. Hau da ekonomian dagoen gatazkarik garrantzitsuenak. Errenta handia daukatenei baliabi-

deak kentzen badizkiegu gutxi daukatenei pasatzeko, batzuek zein besteek *pizgarriak* galduko dituzte. Adibidez, langabetuek lan egin gabe ere errenta bat ziurtatuta badaukate, gutxiago saiatuko dira lana bilatzen eta beren buruak hezitzen. Inbertitzaile ausartek eta aberastasun-sortzaileek, inbertsio gutxiago burutuko dituzte, baldin eta alde zuzenetik estatuak berek irabazitako mozkinak gizartearen birbanatzeko kenduko dizkiela badakite. Beraz, estatuaren partehar-tzearen ondorioz, emaitza kaskarragoa izango da denentzat.

Ongizate-estatua zalantzan jartzeko beste argudio batek, estatuaren gizarte-gastuak mantengarriak ez direla baieztatzen du. Adibidez, BBVren txosten baten arabera, pentsioen kasuan, lan egiten duen jendearekiko zaharren proportzioa gero eta handiagoa gertatzen da, jendeak pentsio-plan pribatuak kontratatu behar lituzkeela ondorioztatuz.

Hala ere, gaur egungo gobernu asko, adierazpenetan gutxienez, ez zaizkigu hemen esan dugun moduan ongizate-estatuaren aurka azaltzen. Halaber, neoliberalismo-joerako aro honetan, oraindik pentsioak eta beste hamaika neurri desmuntatu gabe daude, nahiz eta beren gainean gero eta zalantza handiagoak egon.

Balorazioa

Gure ustez eztabaida honetan ekonomia mixtoak arrazoi osoa du. Egia da, neoliberalismoak dioen bezala, neurri batean berdintasuna eta eraginkortasunaren arteko gatazka existitzen dela. Baina honek ez du esan nahi, geratzen zaigun aukera bakarra krudelkeria denik. Erdibideko puntua aurki daiteke, gizarte babesa eskainiz eta aldi berean pizgarriei eutsiz. Neoliberalismoaren akatsa pizgarriez bakarrik hitzegitea da, *aukerak* ahaztuz. Beren ustez, merkatuak pentsioen aukerak ziurtatzen dituen bitartean, pizgarriak, beti arriskuan dira: “Eskain ezazu zeure burua alokairu baxuago baten truke eta lanpostua eskuratuko duzu”. Zoritzarrez, aukerak ez daude inola ere ziurtatutarik.

Bestalde, ongizate-estatua eta pentsioak guztiz mantengarriak direla deritzogu. Gure ekonomiak oso emankorrak dira ondasunen produkzioari dagokionez. Gainera, aukera kontua da, beharrezkoa balitz gasturen bat murriztea: zergatik ez gastu militarrean zerorekin parekatu arte artaziak sartu? Neoliberaliek, berriz, azken gastu hau ez dute inoiz ere zalantzan jartzen.

Gehiegizko edo gutxiegizko eskari-maila

Arazoa eta eskari-politika

Ekonomiak badauka une bakoitzean, bere teknologia eta baliabideak emanda, ekoizteko produktu maximo bat: produkzio potentziala. Eskari-mailak justu produkzio potentzialaren berdina izan behar du, hots, hori gutxia erosi behar du. Eskaria baxuagoa bada, langabezia sortuko zaigu. Produkzio potentziala

merkatuan saldu ezin bada, ez da gehiago maila hori produzituko; ondorioz hurrengorako ez dira baliabide guztiak produkzioan enplegatuko, langileak barne. Eskaria, berriz, produkzio potentziala baino handiagoa bada, gure arazoa inflazioa izango da. Geure produkzio maximoa baino gehiago ezin ekoitz dezakegunez, eskari bat asetu gabe geratuko da, prezioen igoera bultzatuko duena.

Inflazioa kaltegarria da arrazoi desberdinengatik. Adibidez, batetik, errentaren birbanaketa dakar, errenta finkoak jasotzen dituztenek eros-ahalmena galtzen baitute gainerako enplegatuak. Bestetik, inflazioak handitzeko joera dauka; horrela, jendeak inflazioarekin bizitzen ikasten du, eta inflazioa aurreikusirik duenez, bere errentak igotzea eskatzen du, eros-ahalmenik ez galtzeko, horrek inflazioa oraindik handiagoa izatea ekartzen duelarik. Honek ekonomiaren eraginkortasun-falta ekarriko du eta azkenean enplegu betea ezin ahal izango dugu mantendu.

Gehiegizko edo gutxiegiako eskariaren aurrean estatuak *eskari-politika* aplikatu dezake. Zentzu honetan, aurrekontu eta moneta politika oso garrantzitsuak dira hemen. Gastu publikoaren bitartez, zergetan eta interes-tasetan eraginez, eskaria produkzio potentzialaren mailara bultzatzen saia gaitzake. Eskaria gutxiegiakoa denean gastu publikoa igo dezakegu, zergak eta interes tasak berriz jaitsiz. Eskaria gehiegizkoa bada, alderantziz jokatuko dugu.

Eskari-politikarekin eskaria produkzio potentzialaren mailarekin bat egitea lortuz gero, geure arazoak konponduko genituzke, zeren, maila horretan, enplegu betea eta prezioen egonkortasuna elkarrekin lortuko baikenituzke. Beraz, *eskari-teoriaren* arabera, helburu biak bateragarriak dira.

Ekonomia Mixtoaren Esperientzia

Keynesianismoa eskari-politika aplikatzearen alde agertzen da. Merkatuaren funtzionamenduak eskari-maila gehiegizko edo gutxiegiakoa ekar dezakeela onartzen du. Ekonomia mixtoa, historikoki, (Bigarren Mundu-Gerraren garaian, Depresio Handitik irteteko eskari-bultzakadak proposatu zituenean) errezeta honekin nagusitu zitzaigun.

Keynesianismoak langabezia konpontzeko moneta-politika eta, batez ere, aurrekontu-politika hedatzaileak proposatu ditu. Aurrekontuari dagokionez, defizit publikoa onartzen du, hots, gastu publikoa sarrerak baino handiagoa izatea. Defizit hau ez da arazoa izango, ekonomia behin zuloatik aterata ondoren aberastasun handiagoa egongo baita, eta orduan estatuak bere zorrak pagatu ahal izango baititu, sarrera publikoak handituz.

1970eko hamarkadaren amaierara arte gobernuen politikek eskariaren erregulapena eduki dute ardatz nagusi. Tarte horretan guztian 1970eko hamarkadaren erdialdera arte, mendebaldeko ekonomiek enplegu betea eta prezioen egonkortasuna batera eduki dituzte, eskari-teoriak aurrean bezala. Alabaina,

1970eko hamarkadaren erdialdetik aurrera fenomeno berria azaldu zaigu: inflazioaren azkartze handia.

Neoliberalismoaren iritzia

Neoliberalismoa 1980ko hamarkadaren hasieran nagusitu zaigu, inflazio igoera bortitzaren salbatzaile gisa. Errua, beren ustez, estatuaren aurreko parte-hartzean zegoen. Neoliberalismoaren iritziz, behialako liberalismoaren aburuz bezala, ez dago gutxiegiako eskariaren arazoaren beldurrik. Merkatuaren funtzionamenduak horrelakoak ekidituko ditu, aurrezkoa handiegia denean interes-tasak jaitziz. Azken honek behar duen bultzakada emango dio eskariari. Gobernuak eskariari bultzakada gehigarri emanaz gero, inflazioa sortuko lukete, 1970eko hamarkadako praktikak erakutsi duen legez. Gainera, eskari-bultzakada defizit publikoaren bitartez egiten bada, arazo gehigarria sortzen da, zeren, familia bat bere aukeren gainetik ezin bizi daitekeen bezala, estatuarekin berdin gertatzen baita.

Aldiz, neoliberalak aintzat hartzen dute eskari-maila gehiegizkoaren arazoa. Monetaristen arabera, adibidez, ekonomian dagoen diru-kopurua handiegia izan daiteke, eta hori kontrolatu beharra dago. Banku zentralaren helburua ez da langabezia konpontzea izan behar; beraren eginkizun bakarrak inflazioaren kontrola behar du izan. Zeregin horretarako Banku Zentralak parlamentutik independentea izan beharko luke. Hau guztia Europako Komunitateko gaur egungo politika dugu.

Neoliberalak, keynesiarrek bezala, eskari-teorian sinesten dute, hots, enplegu betearen eta prezioen egonkortasunaren bateragarritasunean. Hala ere, beren ustez, enplegu beteak langabezi maila bat barneratzen du: *langabezi tasa naturala*. Tasa honen barruan merkatuak zehazten duen alokairua onartzen ez duten langileak leudeke. Berauek lirarteke beren langabeziaren errudunak, gobernuak egoera hori konpontzeko beharrik ez daukalarik. 1970eko hamarkadan keynesiarrek izandako errakuntza, honako hau izan zen, alegia, langabezi tasa naturala ikustean konpondu beharreko langabezitza hartzea. Horretarako eskaria bultzatu zuten eta, lortu zuten emaitza bakarra inflazioa izan zen.

Neoliberalak boterea eskuratzean, inflazioaren aurrean eskari-teoriari jarraituz, eskaria murrizteari ekin zioten, prezioen kontrola enplegu betearen galdu gabe lortzeko asmoz. Zoritxarrez, 1980ko hamarkadan, beren ahaleginean langabezi masiboa sortu zuten.

Balorazioa

Gure ustez, eztabaida honetan keynesiarrak berriz ere zuzen dabilta. Merkatuaren funtzionamenduak ez du enplegu betearen ziurtatzen eta ez da existitzen onartu beharreko langabezi tasa “naturalik”. Eskaria bultzatzea beharrezkoa izan daiteke, horretarako defizit publikoa onargarria delarik, familia baten egoera eta estatuaren kasua ez baitira konparagarriak.

Hala ere, keynesiarren errakuntza historikoa, neoliberalena bezala, eskari-teoria bakarrik kontuan hartzea izan da; izan ere, ekonomian eskariaren gain, beste arazo batzuk egon baitaitezke. 1970eko hamarkadan sortutako inflazioak, jarraian ikusiko dugunez, eskaria barik konkurrentzi gabezia zuen iturri. Ekonomian arazo bi egonda, estatuak politika bi behar ditu. Horrela ez ulertzeagatik, keynesiarrek zein neoliberalak ez dituzte enplegu betea eta prezioen egonkortasuna aldi berean lortu.

Konkurrentzi gabezia eta inflazioa

Arazoa eta errenta-politika

Beste arazo bat, korporazio handiek merkatuko konkurrentzi perfektua haustea da, errenta-arazo batean eta inflazioan islatzen dena. Konkurrentzi perfektua dagoenean, erosleak eta saltzaileak asko eta txikiak dira merkatu osoarekiko, inork ere ez daukalarik prezioetan eragiteko gaitasunik.

Alabaina, errealitatean konkurrentzi ez perfektua azaltzean, ondasun- zein produkzio-faktoreen merkatuetan, inflazioa sor daiteke. Enpresarioak zein sindikatuak, bakoitza errentatik portzentaia handiagoa eskuratzen saiatzen dira. Automobil sektorean, adibidez, oligopolioa dago, hots, korporazio erraldoi gutxi batzuk daude, prezioetan eragin dezaketenak. Lan-merkatuan ere, sindikatu handiak daude, merkatuak zehaztuko lukeen alokairua baino handiagoa lor dezaketenak. Beraz, alokairuak zein mozkinak errudunak izan daitezke.

Inflazio honen aurkako politika *errenta-politika* dugu. Estatuak kontrol zuzenak erabiliz, prezio edo alokairu maximoak agin ditzake, edo konbentzitzeko ahalmena erabil dezake. Horrela, ondasunen eta zerbitzuen produkzio errealearen ibilera (edo produktibitatearen ibilera) eta errentaren ibilera parekatzen saiatzen da errenta-politika. Era horretan, eskari-politikarekin batera errenta-politika aplikatuz, enplegu betearen eta prezioen egonkortasunaren arteko bateragarritasuna berreskura daiteke.

Ekonomia Mixtoaren Esperientzia

1970eko hamarkadara arte, nahiz eta ordurako merkatuetan oligopolioak egon, gure arazo honek ez zuen hasiera eduki. Ordurarte gizarte-itun batek funtzionatu zuen. Honela errentak produkzioarekin batera igotzen ziren eta alokairuek (soldatek) zein mozkinak errenta osoan adierazten zuten portzentaia konstante mantentzen ziren. Azken honetarako langileen eros-ahalmenak edo alokairu errealak produktibitatearen parean igotzen ziren.

1970eko hamarkadan, berriz, konkurrentzi gabeziaren arazoa esnatu zen eta horixe izan zen orduko inflazioaren errudun nagusi. Gaur egun, ezkerreko autore

nahikok onartzen dute, garai hartan sindikatuek erru berezirik eduki zutela, laneko errentak adierazitako portzentaia gorantz egin baitzuen errenta osoan.²

Hala ere, aurretik esan dugunez, keynesiarrek ez zuten arazo hau hauteman, eta, ondorioz, ez zuten bere aurkako neurririk hartu. Arrazoi horregatik inflazio-igoeraren aurrean azalpenik eta erantzunik gabe geratu ziren. Inflazio-igoerak oso maila altua eskuratu zuen, urteko %10ekoa baino handiagoa izatea arrunta izanik.

Neoliberalismoaren iritzia eta esperientzia

Keynesianismoaren porrotak neoliberaleri hauteskundeak irabaztea erraztu zien. Azken hauek ere konkurrentzi gabeziaren arazoa aitortu ez zuten errenta-politikarik ez zuten aplikatu. Inflazioaren iturria gehiegizko eskarian zegoela interpretatzean, eskaria beheratu zuten, 1979tik aurrera interes-tasak asko igoz. Emaita, langabezi masiboa izan da 1980ko hamarkadan.

Gaur egun ere, neoliberalak ez dute konkurrentzi eza onartzen, sindikatuen ondorio kaltegarrien kasuan izan ezik. Langabezi tasa naturalaz hitzegiten dute errenta-politika ezertarako aipatu gabe (adibidez, Krugman³, De Grauwe⁴, etab.). Autore batzuen arabera, guk esandakoaren aurka, errenta-politika aplikatu izan da, baina politika honek ez du emaitza onik ekarri; adibidez, Maddison⁵, Samuelson eta Nordhaus-en hitzetan:

La teoría ortodoxa de la inflación sostiene que solo podemos impedir que aumente la inflación impidiendo que el desempleo baje a un nivel inferior a la tasa natural. (...) la sociedad debe pagar un alto precio en producción y empleo perdidos para mantener estables los precios. Algunos economistas consideran que esta conclusión es demasiado pesimista y tratan de encontrar formas menos costosas de contener la inflación. Un conjunto de medidas se denomina política de rentas (...) Es evidente que la búsqueda de una política de rentas eficaz y duradera no ha encontrado el Santo Grial. La política de rentas no ha sido capaz de sobrevivir al escrutinio de los economistas y ha sido rechazada generalmente en la mayoría de las economías de mercado durante las épocas normales.⁶

Hala ere, geroxeago berriz helduko diogu puntu honi. Errenta-politikaren eztabaida, gure ustez, itxuraz baino ez da desagertu. Izan ere, beti bezain bizirik baitago erreleboa hartu duen eztabaidan edota lan merkatuaren erreforman jasota.

2. BOWLES, S.; EDWARDS, R. (1995): *Ekonomiarako sarrera: konpetentzia, autoritarismoa eta aldaketa ekonomia kapitalistetan*, UPV/EHU.

3. KRUGMAN, P. (1991): *La era de las expectativas limitadas*, Ariel, Bartzelona.

4. DE GRAWE, P. (1994): *Teoría de la Integración Monetaria: Hacia la Unión Monetaria Europea*, Celeste Ediciones, Colegio de Economistas de Madrid, Madril.

5. MADDISON, A. (1991): *Historia del desarrollo capitalista. Sus fuerzas dinámicas: Una visión comparada a largo plazo*, Ariel, Bartzelona. 133. or.

6. SAMUELSON, P.; NORDHAUS, W.D. (1996): *Economía*, Hamabostgarren argitalpena, McGraw-Hill, Madril. 609-610. orr.

Balorazioa

Gure ustez, neoliberalak ez dabilta zuzen. Berriz ere esango dugu, ez da existitzen langabezi tasa naturalik. Gaur egungo neokeynesianismoak iraganetik ikasi du, errenta-politika bere errezeten artean barneratuz. Neoliberalak baieztatzen duten legez, honelako politika sendo bat ez da oraindik saiaturia izan eta, Galbraith-ek⁷ adierazi duen bezala, bere eraginkortasunak ez du zertan txarra izan.

Eskaintzaren konposizioaren eta konkurrentzialtasunaren arazoa

Arazoa, industri politika eta lan-merkatuaren erreforma

Produkzioaren barruan murgiltzen bagara, eskaintzak arazoak eduki ditzake konposizio- edota konkurrentzialtasun-gabeziak direla-eta. Beharbada, zaharkituta geratu diren sektore batzuetan produzitzen ari gara. Edo, agian, sektore horiek irtenbiderik badaukate, baina ez dugu gure eskualdean behar den eraginkortasunarekin produzitzen: gure enpresen tamainua txikia delako, teknologian ikertzen ez dugulako, enpresen banaketa-sareak txarrak direlako, enpresarioen kudeaketa eskasa, langileen koalifikazioa desagokoa, azpiegiturak urriak, lan-merkatua zurruna delako, etab. Halaber, teknologi aurrerapenak langabezia ekar dezakete mundu osoan. Bestalde, ekonomia erreala kaltetuta gerta daiteke finantza merkatuetako espekulazioa dela-eta.

Azken urteotan, lan merkatuaren zurruntasunak arreta berezia merezi izan du. Honen arabera, sindikatuak eta estatuak ezarritako lan-araudi batzuek oztupoa ekar dezakete. Malgutasunaren kontzeptua arlo desberdinetara zabaltzen ari da⁸. Gure aldetik, besteak beste, soilik lan-kostuen auzia birplanteatzen dela azpimarratuko dugu, hots, konkurrentzi gabeziaren atalean ikusita geneukana. Kasu honetan alokairuak ez lirateke inflazioaren errudun izango, langabeziaren iturri baizik. Ohar gaituzen, berriz ere teorikoki langabezia eta inflazioa biak aldi berean ekidin ditzakegula, lan-kostuak gehiegizkoak ez badira.

Beraz, oraingoan langabezia ez litzateke eskari gabezi batetik etorriko, eskaintzaren aldetik baizik, alegia, *egiturazko langabezi* bezala ezagutzen denetik. Honekin adierazi nahi da, konponbidea ez dela eskari-langabeziaren kasuan bezain azkarra izango.

Arazo honen aurkako politikak industri eta egiturazko politikak dira. Estatuak industri politikaren bitartez azpiegiturak eraiki ditzake, enpresa zehatzei dirulaguntzak eskaini, langileen koalifikazioan lagundu, ikerketa eta garapenerako zentru teknologikoak sortu, enpresa publikoak sortu, espekulazioaren kontra borrokatu berau zergatuz, e.a. Aurrekontu publikoa garrantzitsua da industri politikan.

7. GALBRAITH, J.K. (1989): *Historia de la Economía*, Ariel, Bartzelona.

8. NAVARRO, M. (1996): *Espainiako Ekonomia (1974-1995)*, EUTG, Deustuko Unibertsitatea, Donostia.

Lan merkatuaren kasu espezifikoa, malgutasuna areagotzeko, estatuak puntu batzuen desarauketa erabaki dezake, zurruntasuna eragiten zuten alderdiak hain zuzen ere: lan kontratuen mota gehiago ahalbidetuz, kaleratzeko erraztasunak handituz, gutxieneko alokairua beheratuz, etab.

Ekonomia mixtoaren esperientzia

Industri politika zabal aplikatu izan da mundu guztian zehar betidanik. Europan, beste inon baino gehiago, Frantzia aplikatu da, estatuak planifikazio eta enpresa publiko sendoak eduki dituelarik. Estatu espainolean hor daukagu INIren esperientzia, eta gidatutako industri bultzakada guztia. Japoniaren kasuan, estatuak enpresei dirulaguntza handiegirik eman gabe, sektore publikoak gidaritzalana egin izan du MITIren bitartez, sektore batzuk estrategikotzat hartuz, etab. Gaur egun ere Industrializatutako Estatu Berrietan, estatuak funtsezko zeregina dauka garapen-prozesuan.

Lan-merkatuari dagokionez, langileek berma desberdinak eduki izan dituzte, langileriaren borroka historikoaren lorpen moduan ulertuak izan direnak. Kasu batzuetan baina, zurruntasuna egon da. Estatu espainolean, adibidez, frankismoaren garaitik zetorren legediak ia-ia ezinezkoa egiten zuen langile bat kalera-tzea. Ondorioz, batzuetan enpresarioek langile alperrak jasan behar zituzten halabeharrez, azken hau ere egokitzen har ezin daitekeelarik.

Neoliberalismoaren iritzia eta esperientzia

Neoliberalismoa, bere adierazpenetan, industri politikaren aurka agertzen zaigu, estatua kritikatu eta merkaturak hobestuz. Horrela, 1980ko hamarkadan estatuak neurri batean alde egin du sektore estrategikoetatik, enpresa publikoen pribatizazioa gertatu da, etab. Estatuak ez du enpresa publikoa sendo erabiltzen langabezia borrokatzeko asmoz, Keynes-ek defendatu zuen legez.

Hala ere neoliberalismoa oraindik kontraesanean erortzen da, estatua esparru zabal honetan erabiltzen baitu: adibidez, azpiegitura-politikak enpresentzako laguntza publikoak (ikus Baleren Bakaikoa-ren lana liburu honetan) aplikatzen ditu, eta pribatizazio-prozesuak ere ez dira edozelakoak, akziodunak nortzuk izango diren ondo gainbegiratu delarik, etab. Beraz, estatua bere inguruko indutri egitura zaintzen saiatzen da, baina ez produkzio-prozesuan zuzenean partehartzen. Enpresa publikoaren bitartez baino, honen deseraginkortasun historikoa dela-eta, nahiago dute merkatuari partehartze handiagoa ematea.

Bestalde, neoliberaliek espekulazioa ez dute arazotzat hartzen eta finantza-merkatuen desarauketa burutzen dute. Berriz, lan-merkatuaren zurruntasunari erabateko garrantzia ematen diote, eztabaida hau funtsezkoa bilakatu. Mari Luz de la Cal eta Garikoitz Otazuak lan-merkatuaren erreforma neoliberalismoaren

kontestuan jartzen dute⁹. Langabeziaren errua lan merkatuaren zurruntasunari leporatuz, neoliberalak arlo honen desarauketari heldu diote.

Balorazioa

Gure ustez, neoliberalismoaren industri politika ez da nahikoa, dauden langabezi tasak kontuan hartuta. Horregatik, zeozer gehiago egin beharko litzateke. Helena Francok eta Goio Etxebarriak¹⁰ egiten duten proposamena, enplegua lehen helburutzat hartzea da. Ageri denez, merkatuari leku handia uzteak ez du enplegu betea ekartzen. Beren proposamenak enpresa publikoaren erabilera barneratzen du; hori bai, enpresa hauek iraganean eduki dituzten kudeaketa-arazoak konpontzen saiatuz.

Sindikatuak, beren aldetik, politika aurrerakoi moduan, lanaren banaketa proposatuz erantzun diote neoliberalismoari. Zentzu honetan, kontuan hartu behar da, teknologi langabezia garrantzitsua izan daitekeela. Hala ere, azken puntu honetaz dagoen analisisa ez zait argiegia iruditzen (ikus Freeman & Soete¹¹, adibidez).

Gaur egungo lan-merkatuaren erreformari dagokionez, neoliberalismoak erreforma hori oso modu atzerakoian burutu duela deritzogu. Lan-kontratu kaskar asko ugalduta dira arrazoi barik. Hala eta guztiz ere, nahiz eta lan-merkatua dagoeneko malgua izan, langabezi masiboak desagertu barik dirau.

Gure ustez, ordea, lan-merkatuaren diskurtsoari helduz, neoliberalismoaren alternatiba bultzatzeko, inizatiba hartu beharra dago. Arlo honetan aurkeztutako proposamenek ez dute zertan atzerakoiak izan; adibidez, hor daukagu CEPR taldeak (Luis Toharia barne) plazaratutako lana¹². Autore hauek, nahiz eta lan-merkatuaren puntu batzuk aldatu beharrekoak kontsideratu, ez dute kapitalaren aldeko errentaren birbanaketarik defendatzen. Langileen eros-ahalmena edo alokairu erreala produktibitatearekin batera igotzea proposatzen dute. Beraz, lan-merkatuaren erreformaren gaiak errenta guztien politika bat barnera dezake. Errenta-politikaren atalean ikusi genuenez, kapitaletik zein lanetik eratorritako errentak izan baitaitezke arazoan iturri.

9. DE LA CAL, M.L.; OTAZUA, G. (1995): "Lan harremanen erreformaren oinarri ekonomikoak", in *Industrializaziotik Desindustrializaziora? Euskal Herria Kapitalismoaren Garapenaren Testuinguruan*, Zaldúa, I., Zurbano, M. (arg.), UEU, Bilbo.

10. FRANCO, H.; ETXEBARRIA, G. (1995): "Euskal Ekonomiaren Desegituraketa. Industri Politikaren Azterketa", in *Industrializaziotik Desindustrializaziora? Euskal Herria Kapitalismoaren Garapenaren Testuinguruan*, Zaldúa, I., Zurbano, M. (arg.), UEU, Bilbo.

11. FREEMAN, C.; SOETE, L. (1994): *Work for all or Mass Unemployment: Computerised Technical Change into the 21st Century*, Pinter Publishers, Covent Garden, Londres.

12. CEPR (1994): *El Paro en España: ¿Tiene Solución?*, Grupo CEPR sobre el paro español, Centre for Economic Policy Research, Consejo Superior de Cámaras de Comercio, Industria y Navegación de España, Madrid.

Ez da ahaztu behar, azkenik, lan-merkatuaren erreforma ez dela isolamenduan aztertu behar, neoliberalak egiten dutenez. Aurretik aztertu dugun arazo bakoitzeko (gizarte-desbabesa, eskaria, konkurrentzi gabezia, eskaintzaren konposizioa edo konkurrentzialtasuna,...) politika bat gehitzen egon gara (ongizate-estatua, eskari-politika, errenta-politika, industri eta egiturazko politikak, lan-merkatuaren erreforma barne,...), horrela, arazoak eta politiken kopurua parekatuz, helburuen arteko bateragarritasuna lortzeko. Lan-merkatuaren erreforma puntu batzuetan burutu beharko balitz, CEPR-en iritzian bezala, aurreko politika guztiak barneratuz (neoliberalak defendatzen ez dituztenak) izan behar luke: *“la reforma de la negociación colectiva, los pactos sociales y la reducción de las restricciones a que están sujetos los despidos permiten aumentar la demanda sin generar inflación”*¹³. Autore hauen arabera, politika hau jarraituz gero, estatu espainoleko langabezi masiboa desagertu egin liteke.

Internazionalizazioaren kalteak

Arazoa eta kanpo politika

Estatuetako ekonomiak irekiak dira, hots, harremanetan daude mundu zabalarekin. Hemendik ere etor dakiguke aurretik aztertu ditugun arazoak sortzea. Nazioarteko mailan lehiagarriak ez bagara, gure produktuentzako eskaririk gabe geratuko gara, gure industriaren kalterako. Halaber, dibisen merkatuan gertatzen den espekulazioak eragozpen handia ekar diezaike estatuei.

Internazionalizazioak ekar dezakeen kalterik handiena, estatuen ekonomi politikak oztopatzea izan daiteke. Estatu batek eskariari bultzakada eman nahi badio, interes-tasak eta zergak beheratzen, adibidez, beharbada bere hiritarrek bertako produktuak erosi beharrean inportazioak igoko dituzte. Bestetik, esaterako, estatu batek, kapitalak mugitzeko askatasuna izanik, ezin ahal izango ditu mugen gainetik bere interes tasak beheratu, errentagarritasun handiagoaren bila kapitalak beste estatu batera ihes egingo lukeelako.

Arazo honen aurrean kanpo-politika aplika daiteke, estatuen ekonomi politikak berriz ere ahalbidetuz. Estatuek, neurri batean, arantzelekin eta beste neurri batzuekin, beren merkatuak babes ditzakete, kapital-mugimenduen gaineko kontrolak ezar ditzakete, etab. Halaber, estatuen arteko politikak koordina daitezke, denek aldi berean eskaria bultzatuz, kasurako; horrela, estatuek beren inportazioak igoko badituzte ere, gauza bera gertatuko zaie esportazioekin. Halaber, denek behera ditzakete interes-tasak aldi berean, dibisen espekulazioaren gainean zerga bat ezar daiteke, etab.

Ekonomia mixtoaren esperientzia

Bigarren Mundu-Gerratik aurrera ekonomiaren internazionalizazioak gorantz egin du. Nazioarteko merkataritzak, adibidez, igoera nabarmena eduki zuen

13. Ibidem. 16-17. orr.

arantzelen beherapen gradualarekin batera. Hala ere, keynesianismoaren garaian internazionalizazioa ez da funtsezko oztopo kontsideratu estatuen politikentzat. Estatuak kapital-mugimenduen gaineko kontrolak eta beste neurri batzuk aplikatu izan dituzte tarte honetan.

Neoliberalismoaren iritzia eta praktika

Neoliberalismoaren garaian, internazionalizazioak oso maila altua eskuratu omen du azken bi hamarkadetan. Kontserbakorren ustez, ekonomiaren internazionalizazioa guztiz positiboa da, merkatuaren funtzionamendua mundu-mailan hedatzea ekartzen duelako. Beraz, espekulazioaren beldurrik gabe, internazionalizazioa oztopatzen dituzten eragozpen guztiak ezabatu nahi izan dituzte, kapitalen mugimenduen gaineko kontrolak barne. Finantza-munduaren internazionalizazioa dugu, hain zuzen ere, gehien garatu dena.

Neoliberalismoaren esanetan internazionalizazioak estatuen ekonomi politikak ezinezkoak egiten ditu, baina zer hoberik hauek beharrezkoak ez izateaz gain kaltegarriak badira. Neoliberalismoa, berriz ere, hemen ez da oso kontsekuentea eta estatua erabiltzeari heltzen dio komeni zaionean. Horrela, behar denean arantzelak erabiltzen segitzen du Hirugarren Munduko estatuen aurrean, nahiz eta teorikoki merkatuaren bertuteak laudatu.

Balorazioa

Ekonomian dagoen internazionalizazio maila ez da berria pentsatzen den bezala. Andrew Glyn eta Bob Sutcliffe-k¹⁴ gogoratzen digutenez, esportazioek produkzioan egun adierazten duten portzentaia eta Lehenengo Mundu-Gerra baino lehenago suposatzen zutena antzekoak dira. Honekin lotuta, estatuen politikak oraindik neurri handian posible direla deritzogu.

Bestalde, hurrengo arazoan ere ikusiko dugunez, puntu batzuetan hartu beharreko neurriak nazioarte mailan koordinatuak izan behar dute. Adibidez, moneta politikak posible egiteko dibisen espekulazioari nazioarteko zerga bat ezarri dakioke Tobin-ek defendatu legez.

Munduko Desberdintasunak

Arazoa eta mundurako gobernu bat

Jenderik gehiena baldintza kaskarretan bizi da munduan zehar. Goseak eta heriotzak hor segitzen dute giza taldearentzat iraingarri, planetako beste leku

14. GLYN, A.; SUTCLIFFE, B. (1992): "El Nuevo Orden Capitalista: ¿Global pero sin lider?", in *The Socialist Register*.

batzuetan ugaritasuna nagusi den bitartean¹⁵. Beste maila batean, eskualde eta taldeen artean desberdintasunak areagotzen ari dira Lehen Munduan ere.

Edozein lekutan, arazoaren konponbidea errentaren birbanaketa da eta estatuak atzeratutako aldearentzat garapen-planak diseinatzea. Mundu-mailan honek ekarriko luke mundurako gobernu bat eraikitzea edota nazioarteko ordenu berri bat.

Ekonomia mixtoaren esperientzia

Hauxe dugu gure ekonomia mixtoek eduki duten hutsunerik funtsezkoena. Ekonomia mixtoek ziurtatu egin zuten Mendebaldeko ekonomietan ongizate-estatuak eta bizi-maila duina, baina ez zuten eredu horren hedapena mundu osora bultzatu. Horretarako, nazioarteko mailan errentaren birbanaketa sendoa beharrezkoa izango zen, Hirugarren Munduko estatuarentzat garapen-planak jarraituz.

Neoliberalismoaren iritzia eta praktika

Neoliberalismoak ez du Lehen Munduaren plangintza erraldoia defendatzen Hirugarren Munduari laguntzeko. Berriz ere, merkatua defendatzen du arazo guztien konponbide modura. Hirugarren Munduko estatuak nazioarteko merkatura zabaltzea proposatzen die, hots, nazioarteko prezioak edukitzea, baina estatuaren eskuhartzerik eduki gabe. Horrek ekarriko omen die garapena.

Neoliberalismoaren iritzi honen indargarri legez, Asiako produktugile berrien agerpena egongo litzateke. Garabidean dauden estatu hauek, beren produktzioa neurri handian exportaziora zuzentzen dutenak, hazkunderik handiena izaten ari dira. Alderantziz, garapen-prozesuan lehenago hasi ziren Hegoameriketako estatuak, askoz motelako dabilta. Azken honen azalpena, neoliberalismoaren aburuz, Hegoamerikako herrietan estatuak edukitako gehiegizko partehartzean egongo litzateke.

Balorazioa

Zoritxarrez, Hirugarren Munduko estatuaren artean garatzen ari direnak gutxi batzuk dira, batez ere Asia aldekoak. Gainerakoak geldialdian daude, zalan-tzagarria delarik Industrializatutako Estatu Berrien ereduaren berentzat jarraitzeko modukoa gertatzea¹⁶.

15. SUTCLIFFE, B. et al. (1996a): *El Incendio Frío: Hambre, alimentación y desarrollo*, Icaria Antrazyt, Bartzelona. SUTCLIFFE, B. (1996b): "Visualizando la Desigualdad Mundial", in *Temas sobre economía actual en homenaje al profesor D. Rafael de Juan y Peñalosa*, Flores, T. (koord.), UPV/EHU.

16. ZURBANO, M. (1996): "El comercio en el orden económico internacional", in *Temas sobre economía actual en homenaje al profesor D. Rafael de Juan y Peñalosa*, Flores, T. (koord.), UPV/EHU.

Bestalde, neoliberalismoa kontraesanean erortzen da berriz ere. Izan ere, Asiako produktugile berrien igoera ezin da aurkeztu merkatu printzipioen adibide modura. Aitzitik, eskualde honen garapenean estatuaren gidaritzak funtsezko zeregina eduki du¹⁷. Azken aldian, nahiz eta salbuespen moduan hartu, Hirugarren Munduko estatuentzat burokrazia kualifikatu eta eraginkor horiek eredu errepikaezina direla onartu du Mundu-Bankuak berak ere.

Nazioarteko ordenu berriak existitu barik segitzen du. Horrela munduko desberdintasunak bere horretan mantentzen dira.

ONDORIOAK

Lan honetan politika neoliberalak eta bere alternatibak aztertu ditugu. Politika neoliberalak merkatua hobesten dute, nahiz eta zeregina zehatzetarako oraindik estatuaren erabilera zabala egin. Politika hauek ez dute enplegu betea zuzenean helburutzat hartzen; aitzitik, helburu hau zeharka lortu nahi dute. Erdibideko pausu legez, merkatua zabaldu nahi dute lehenago, honek ekarriko digulakoan gero eskari nahikoa, hazkundera, industri oinarri sendoa, etab.

Zoritxarrez ez dago ziurtatuta, merkatuak ekartzen dituen ondorioak onak izango direnik. Sor dakizkiguen arazoan aurrean, aztertu ditugunak, neoliberalismoa politika gutxiago aplikatzeko prest dago, arrisku ziurra dena. Adibidez, gutxiago eskariaren arazo ez du kontuan hartzen; egiturazko langabeziaren aurrean ez du industri politika sakona (enpresa publikoa edo lanaren banaketa,...) aplikatzen; etab. Areago, askotan gobernu neoliberalak arazoan iturri dira, inflazioa kontrolatzeko asmoz eskaria murrizten dutenean, esate baterako.

Zorionez, hor daude politika alternatiboak, beren aukeraren zain. Ikusi dugunez, ez dago neoliberalismoaren politikak ezinbestekoak egiten dituen ezer. Aztertutako arazo bakoitzaren aurrean, politika aurrerakoiago bat aurkeztu dugu. Hemen filosofia bat dago gordeta, arazo bat aurrean jartzen diguten bakoitzeko konponbide bat bilatuko diogu.

EKONOMIALARIENTZAKO ERANSKINA

Lehenengo atalean aurkeztu dudana ekonomi politikako eskema egokia iruditzen zait. Bertan agertzen diren helburuak eta bitartekoen (azken hauek Kirschen-i jarraituz) sailkapenak nahiko ezagunak dira. Nire ekarpen bakarra, helburuak eta bitartekoen artean politikak tartekatzea izan da, aurre egiten duten arazoaren arabera. Eskema osoa batera ikustea faltan zegoela iruditzen zait.

17. LALL, S. (1996): *Learning from the Asian Tigers: Studies in Technology and Industrial Policy*, Macmillan Press, Londres.

Ekonomi politikako liburuen egiturarekin ez naiz gustura sentitu. Gaiak ia beti ekonomi politikako bitartekoei jarraituz antolatzen dira. Nire ustez, beharrezkoa da baita arazoak ardatz izatea ere, zeren, Popper-ek esan bezala, zientzia arazoekin hasten baita. Bestetik, sarri, liburuetan aurrekontu-politika eta moneta-politika aurkeztu ondoren, jarraian errenta-politikaz hitzegiten da. Nire ustez, ordea, hauek maila desberdinetan daude, lehenengo biak bitartekoen barruan eta azkena politiken artean.

Ekonomiaren ulermen eskematikoa edo ikuspegi osoa eragozten duen beste arazo bat ere badago. Berau mikroekonomia eta makroekonomiaren artean autore batzuk egiten duten bereizketa da. Bereizketa hau zuzen kritikatu du Galbraith-ek¹⁸.

BIBLIOGRAFIA ETA AIPAMENAK

- ALBARRACÍN, J. et al (1991): *La larga noche neoliberal: políticas económicas de los 80*, Icaria, Instituto Sindical de Estudios, Madril eta Bartzelona.
- ATKINSON, B.; BAKER, P.; MILWARD, B. (1996): *Economic Policy*, Macmillan, Londres.
- BOWLES, S.; EDWARDS, R. (1995): *Ekonomiarako sarrera: konpetentzia, autoritarismoa eta aldaketa ekonomia kapitalistetan*, UPV/EHU.
- CEPR (1994): *El Paro en España: ¿Tiene Solución?*, Grupo CEPR sobre el paro español, Centre for Economic Policy Research, Consejo Superior de Cámaras de Comercio, Industria y Navegación de España, Madril.
- CUADRADO ROURA, J.R. et al (1995): *Introducción a la Política Económica*, McGraw-Hill, Madril.
- DE GRAWE, P. (1994): *Teoría de la Integración Monetaria: Hacia la Unión Monetaria Europea*, Celeste Ediciones, Colegio de Economistas de Madrid, Madril.
- DE LA CAL, M.L.; OTAZUA, G. (1995): “Lan harremanen erreformaren oinarri ekonomikoak”, in *Industrializaziotik Desindustrializaziora? Euskal Herria Kapitalismoaren Garapenaren Testuinguruan*, Zaldua, I., Zurbano, M. (arg.), UEU, Bilbo.
- ETXEZARRETA, M. (Koord.) (1991): *La reestructuración del capitalismo en España, 1970-1990*, Economía crítica, Fuhem Icaria, Madril eta Bartzelona.
- FRANCO, H.; ETXEBARRIA, G. (1995): “Euskal Ekonomiaren Desegituraketa. Industri Politikaren Azterketa”, in *Industrializaziotik Desindustrializaziora? Euskal Herria Kapitalismoaren Garapenaren Testuinguruan*, Zaldua, I., Zurbano, M. (arg.), UEU, Bilbo.
- FREEMAN, C.; SOETE, L. (1994): *Work for all or Mass Unemployment: Computerised Technical Change into the 21st Century*, Pinter Publishers, Covent Garden, Londres.

18. GALBRAITH, J.K. (1989): *Historia de la Economía*, Ariel, Bartzelona.

- GALBRAITH, J.K.; SALINGER, N. (1988): *Ia guztientzako Ekonomi Gidaliburua: Ekonomilariaren dotrina*, 1978koa da jatorrizkoa, UEU, Bilbo.
- GALBRAITH, J.K. (1989): *Historia de la Economía*, Ariel, Bartzelona.
- GLYN, A.; SUTCLIFFE, B. (1992): “El Nuevo Orden Capitalista: ¿Global pero sin lider?”, in *The Socialist Register*.
- KRUGMAN, P. (1991): *La era de las expectativas limitadas*, Ariel, Bartzelona.
- LALL, S. (1996): *Learning from the Asian Tigers: Studies in Technology and Industrial Policy*, Macmillan Press, Londres.
- MADDISON, A. (1991): *Historia del desarrollo capitalista. Sus fuerzas dinámicas: Una visión comparada a largo plazo*, Ariel, Bartzelona.
- MARTÍN SECO, J.F. (1993): *¡La economía estúpida, la economía!: La política económica del socialiberalismo*, Libertarias/Prodhufi, Madril.
- NAVARRO, M. (1996): *Espainiako Ekonomia (1974-1995)*, EUTG, Deustuko Unibertsitatea, Donostia.
- NAVARRO, V.: *Neoliberalismo y Estado del bienestar*.
- SAMUELSON, P.; NORDHAUS, W.D. (1996): *Economía*, Hamabostgarren argitalpena, McGraw-Hill, Madril.
- STEWART, M. (1986): *Keynes and After*, Hirugarren argitalpena, Penguin Books, Londres.
- STEWART, M. (1993): *Keynes in the 1990s: A return to economic sanity*, Penguin Books, Londres.
- SUTCLIFFE, B. et al. (1996a): *El Incendio Frío: Hambre, alimentación y desarrollo*, Icaria Antrazyt, Bartzelona.
- SUTCLIFFE, B. (1996b): “Visualizando la Desigualdad Mundial”, in *Temas sobre economía actual en homenaje al profesor D. Rafael de Juan y Peñalosa*, Flores, T. (koord.), UPV/EHU.
- ZURBANO, M. (1996): “El comercio en el orden económico internacional”, in *Temas sobre economía actual en homenaje al profesor D. Rafael de Juan y Peñalosa*, Flores, T. (koord.), UPV/EHU.

3. Neoliberalismoaren eragina zuzenbidean

Koldo Gorostiaga
Abokatua eta UEUKidea

SARRERA

Neoliberalismoa gaur egungo errealitatearen ezaugarri nagusienetarikoa da. Baieztapen horrekin denok bat etorriko garela argi dago. Aldiz, neoliberalismoak zer nolako edukina duen galdetzen badigute, eztabaida sortzeko parada izango genuke segur asko; are gehiago, neoliberalismoak Zuzenbidean daukan eraginaz galdetzen badigute.

Zezenari adarretatik oratzeko beharrean nagoenez, erantzun posibleen artean, hona hemen ene aburuz baliagarriak gerta daitezkeen hainbat gogoeta.

Jorratu behar dugun gaiaren muinean galdera batekin egiten dugu topo, alegia, *aldaketa ekonomiko-sozialak eta Zuzenbidea nola uztartzen diren*.

Galdera honekin bat datorrigu, ezinbestez, nolabaiteko aurrebaldintza metodologikoa, gaiaren funtsean Gizartearen eta Zuzenbidearen artean dauden harremanak pausatzen baitira; eta Zuzenbidearen Filosofiak erakutsi digunez, ezaugupe nerako arloan hautatuko den bideak —metodoak— erabat baldintzatuko ditu ondorioak.

Ene ustez, pausatutako galderari zuzenezko metodologia eransteko, historiara jo beharko genuke nahitaez. Eta bide horretan, mende honen erdian “neokapitalismoaren” eta Zuzenbidearen arteko harremanei buruz hasitako ikerke-tara itzultzea, guztiz lagungarria delakoan nago. Horra hor R. SAVATIER —*Les métamorphoses économiques et sociales du Droit Privé* (1948)—. G. RIPERT —*Aspects juridiques du capitalisme moderne* (1950)—, W. FRIEDMANN —*Law in a changing society* (1959)— eta, apur bat geroago, F. GALGANO —*Le istituzioni dell’economia capitalistica* (1971)— irakasleek egindako ikerkuntzak.

Duela gutxi-gora-behera mende erdi bat erabilitako irizpideak ez daude, ene ustez, erabat zaharkiturik, gaur egungo “Pentsakera Bakarra” delatik aldentzeko laguntzak ugari eskaintzen baitituzte.

Orduko azterketatik honelako hiru ondorio atera genitzake, besteak beste:

1. Iraultza industrialak eta kapitalismo gainhartzaleak behar zuten Zuzenbidea da XIX. mendearen hasieratik indarrean duguna eta —aldaketa mordo batekin— gaur arte iritsi zaiguna.
2. Gizarteak pairatzen dituen aldaketek ez dute berehalaxe Zuzenbidea aldatzen. Legeak zain egon behar du bere baitako mekanismoak ondo egokitu arte. Bitartean, epaileek —hau da, jurisprudentziak— gaurkotzen dute Zuzenbidea, interpretazioaren bitartez. Nola? Bada, “*interpretatio abrogans*” erabiliz “*ratio legis*”en jatorrizko esanahiak baliogarritasuna jadanik galdurik duenean. Hemen gogoratu beharko genuke, Zuzenbidearen oinarrian kokatzen dela juristen artean dagoen portaera kontserbadorea: *Juris-prudentzia* (zuhurtasuna) hortik baitator.
3. Zuzenbideak alde zuzetik gauzaturiko errealitateari erantzuten dio. Hori dela eta, egungo errealitatea eta ordukoaren artean zer nolako aldea dagoen aztertu beharko genuke, garai hartako ekonomiak industri-sektorean oinarritzen baitzuen bere sena, orain zerbitzu-sektorea aitzindari bilakatu den bitartean.

Garbi dago izandako aldaketek utziko dutela, ezin bestean, beren eragina, esate baterako, obligazioen teoria orokorraren baitan. Hona hemen ikerketarako erronka ederra iusprivatistentzat.

Neoliberalismoak Zuzenbidean duen eragina hainbat arlotan azter genezake. Lan-Zuzenbidean, esate baterako, begibistakoa da. Alabaina, ene aburuz, Estatu-teoriaren baitan nabarmentzen da gehien.

Eta gaurkoa ulertzeko iraganaren ezagutza ezinbestekoa dela egia bada, estatu liberalaren sorreraraino jo beharko dugu, bertan aurkituko baitugu egungo eragozpenen gakoa.

XIX. MENDEKO LIBERALISMOTIK ONGIZATE ESTATUKO GARAIARAINO

Estatu liberalaren hainbat ezaugarri:

Sobietar Iraultza gauzatu baino lehen, Lenin-ek jadanik idatzita zeukan, gero *Estatua eta Iraultza* liburuan errepikatuko zuena: “*Kapitalismoarentzako errepublika demokratikoarena da aukera politiko hobereana*”. Historian zehar, komunismoaren alde egin izan den saio luzeenaren arduradun nagusiaren hitzak, harrigarriak badira ere, guztiz zuzenak dira, errepublika demokratikoa estatu modernoan adierazteko izena besterik ez baita. “*La bourgeoisie* —dio M. MIALLE irakasleak (*L’Etat du Droit*)— *trouve dans l’Etat la forme qui convient à sa domination politique*”. “*On ne peut traiter l’Etat* —dio gero— *comme quelque chose de différent et d’exterieur au système capitaliste. Il est ce système*”.

Dakigunez, lehen Iraultza Industrialaren garaian, mendez mende metatzen ari zen kapitalismoak liberalismoaren printzipioetan oinarriturik —*laissez faire, laissez passer*— eraiki zuen bere ekonomi sistema, non estatuak abstenzionismoaren urrezko erregela horiek errespetatzen zituen, merkatuaren automatismoari lekua uzteagatik.

Hala ere, kapitalismoaren sistemari begira, estatuaren eskuhartze-ezaren esanahiak ez zuen adierazten Estatuaren eginkizunak garrantzirik ez zuenik.

Aitzitik, kapitalismoak behar zituen bermeak liberalismoaren filosofian ongi erroturiko *botere politiko sendo eta indartsua* eskatzen zuen, oinarri legal finkoekin batera; hots, estatu liberala, hain zuzen.

Askatasun eta berdintasun formalak ziren liberalismoaren garaiko ezaugarriak eta orduko legediarenak ere. Napoleon-en Kode Zibilak pertsonaren lanari begira —zerbitzuen alokairuari buruz, alegia— artikulua bi (1780 eta 1781. artikulua, hain zuzen) besterik ez zuen eskaintzen. Aldiz, jabegoari begira, zuzen ala zeharka, gainerako artikulua guztiak, azken ñabarduraino. Beraz, jabego pribatuaren printzipioa beraz erabatekoa zen, absolutua, eta konstituzioak babesturiko giza eskubidea ere bai (1789ko Giza eskubidearen Deklaraziotik hartua).

Alabaina, estatu liberalak ez zuen helburu ekonomiko zehatzik, bere buruari begira ekonomian aritzea desegokitzat jotzen zuelako. Zerga-sistema bera ere, azken funtsean, estatuaren beharretarako pentsatuta zegoen, alegia, estuari gero eta indar gehiago emateko. Horrela, estatu-babesaren bitartez merkatua, komertzioaren askatasuna, kreditu-etxeen operazioak eta gremio (hasieran) eta sindikatuen (gero) galerak segurtatuak ziren.

Joko ekonomikorako askatasuna lortzea, zetzan, azken funtsean, estatu liberalaren zeregina. Iraultza frantsesak ekarri zituen parlamentarismoa, subiranotasunaren kontzeptua eta herritarren eskubideen babesa estatuak bereganatu zituen, honi zegokiolako ordena naturalaren kontrako oztopo guziak desagertarazteko eginbarra.

Estatu liberalaren bazterketa

Hala ere, estatuak ekonomiarekiko zuen “neultratasunak” XIX. mendeko azken laurdenetaraino besterik ez zuen iraun. Bere portaera-aldaketarako hainbat arrazoi zegoen: Ideologiko-politikoak (nazionalismoa eta inperialismoa, batez ere), zerbitzu publikoen hedapenak zehartzanak, hirigintza, osasungintza eta hezkuntzari zegoekinak eta, ororen gainetik, langileriaren egoera jazangaitzari zerion kapitalismoaren aurkako uholde iraultzailea.

Estatuaren jarrera berriak hiru ondorio nagusi sortu zituen Zuzenbidearen baitan:

Lehenik eta behin, jabetza pribatuaren egoera pribilegiatuari bere absolutasunaren murrizketa gauzatzea, jabetza publikoaren printzipioa gero eta indartsuago hedatzen zen bitartean. Zuzenbidearen eraldaketa honek, hots, jabetza publikoari gero eta garrantzia handiagoa emateak, gizarte kontserbadorean sozialismoak eragindako beldurraren seinalea izateaz gain, jadanik arlo publikoaren ezinbestekotasuna frogatzen zuen.

Bigarrenik, kontratazio-arloan sakratutzat kontsideraturik zegoen “borondatearen autonomia” printzipioari lan-harremanaren esparruan uko egin zitzaion, eta horretan estatuaren eskuhartzea bilakatuko zen irizpide nagusi. Horretarako hain zuzen, legedi berri bat (Lan-Zuzenbidea) gorpuztu zen pixkanaka-pixkanaka, eta bere arau-multzoak *ius cogens* izaera —derrigorrezkoa, alegia— izango zuen ezau-garriztat.

Eta hirugarrenik, Bismark kantziler prusiarrak bultzaturiko aseguru sozialen hastapenarekin (hots, lan-istripu, eritasun eta zahartzaroari buruzko babesarekin geroago, —XX. mendearen erdian lord Beveridge britainiarren bitartez— Gizarte-Segurantza bilakatuko zena) bideratuko da “ongizate-estatu” delakoaren eraikuntza.

Ehun urte —1870eko Lehen Nazioarteko Langileen Elkartearen sorrera abiapuntu gisa hartuz, eta 1973ko erregaien krisiraino (Gizarte-Segurantza eta Lan-Zuzenbideko etapak barnean kokatuz)— iraun duen Estatu interbentzionista hau eta bere baitako ongizate-gizartea, krisi gorrian murgildurik daude gaur egun. Bere etorkizun-eza alde guztietatik aldarrikatua izan da. Alternatiba bakarra, pentsaera bakarraren arabera, jakina, neoliberalismoan datza; omen...

“NEOLIBERALISMOA”

Duela 30 urte hasitako bilakabidea

Frantziako “*Mai 68*” delakoak jadanik iragarri zuenez, zuzenbide-estatuaren hondamendia susmo hutsa baino zerbait gehiago zen, bere izaerazko irudia eta beronen sinesgarritasuna, guztiz kaltetua zegoelako, belaunaldi berrien aurrean batez ere.

Alta, zuzenbidezko-estatuaren hondatze hori ez da Frantzian soilik gertatu, nonahi baizik, hondamendiaren kausak sistema kapitalistak eragindakoak baitira. Horra hor, Nazioarteko Itun Ekonomikoak —FMI, BM, GATT-OMC, CEE delakoak eta beste asko—. Horiek guztiak ez dira “errugabeak”, maila honetan bereziki, inola ere.

Gogora ekarri behar dugu, sistema kapitalistaren eraginpean, nazioarteko harreman ekonomiko eta monetarioak hiru eredu nagusiren arabera antolatuz nola egon diren: a) abstentzionismoarena (I. mundu-gerra hasi arte); b) protekzionismoarena (mundu-gerra bien artean); c) gaur egungo nazioen arteko akordio-sare

integratzailearena (arestian aipatutakoaz gain, zeharo beldurgarria den AMI delakoa ere ezinbestez, hor barne).

Dirudienez, XX. mende honen bukaeran, isilka-misilka prestatzen ari diren AMI honek azken muturreraino eramango du (bere kontra gogorki borrokatzen ez bada) estatu modernoari zegokion oinarrizko eginkizunaren suntsiketa, alegia, herritarren interes orokorraren defentsarako dauden baliabideena. Ez dugu ahortzi behar, EUROari begira Maastricht eta Amsterdamm-go itunek ezarritako “baldintzak” nahiko esanguratsuak izan direla, ongi baino hobeto uler dezagun zer nolako “disziplina” etor dakigukeen zorioneko AMI hori behin indarrean jarritz gero.

Gaur egungo zuzenbide-estatuaren egoera kaskarra argi adierazteko, arrazoi ekonomikoaz gain, Zuzenbidearen propioak diren beste hainbat ere badago. Hona hemen, besteak beste, adibide batzuk:

Estatuko botereen banaketari buruz, gero eta nabarmenago dugu nonahi exekutiboaren nagusitasuna eta berarekiko beste botere publikoen morrontza. Horrez gain, hor ditugu botere publikoen desbideraketak, korrupzioak, inpunitateak, burokratismo erraldoien zamak, delegaziokeriak, administrazioen astuntasuna eta —*last but not least*— administrazioen menpekotasuna botere ekonomikoekiko.

Funtsean, sistema kapitalistaren barruan II. Mundu-Gerraren ondoren zeuden eredu bien artean —hau da, alde batetik Estatu Batuetakoena (darwinismoa sozialean oinarriturik dagoena) eta, beste aldetik, mendebal Europakoarena (ongizate gizartea aldarrikatzen zuena)—, lehena, alegia *homo hominis lupus* defendatzen duena, atera da garaile, behin ekialdeko sozialismoa desagerrarazi ondoren. Geroztik, hala dirudi behintzat, kapitalismoaren botere faktikoen nagusitasunak ez dauka egiazko mugarik.

Neoliberalismoaren argudio eta sasi-argudioen eragina zuzenbidearen baitan

Molde bakarraren bitartez “ezagutzen” ditugun gaurko gizartearen arazoak zein diren jakinda, azter dezagun diskurtso ofizialaren ikuspegia zertan datzan, bere ezaugarri nagusietan bederen, ortodoxia berri baten aurrean aurkitzen baikara.

Gure gizartea eri dago —diote— eta bere eritasunaren kontra dagoen tratamenduak (neoliberalismo delakoak) ez ei du alternatibarik. Gizartearen gaixotasunaz eragindako sufrikaldi aski luze eta gogorra ekiditerik ez dagoenez, denen kooperazioa beharrezko eta ezinbestekoa da, hazkunde ekonomikoa lortu nahi bada.

Gastu publikoak eta inflazioak omen dira eritasunaren sukarra bizkortzen duten gaitzak. Horrela, bada, gastu sozialei buruzko edozein motatako murrizketa eta soldaten “hormatzea” neurri guttiz zentzuzkoak direla, ez du inork zalantzan ipiniko, batez ere politika monetarista zorrotz baten barruan kokatzen badira,

ugazabeen elkarteek, errentistek, kreditu-etxeek, pentsiodunek eta gainerako hartzekodunek irmoki baieztatuko dutenez.

Jakin badakigu, iritzi publikoaren gehiengo handi batek diskurtso horren arabera eginen duela bere aukera politikoa; eta, logikoa denez, legebiltzarrak beteko dituzten diputatuak horrelako tankerakoak izanen direla, begi bistakoa da.

Alta, neoliberalismoak galde egiten dituen “nahitaezko” neurriek sistema juridiko “zaharkitu” batekin egin dute topo, non indarrean dagoen zuzenbidea beste garaiko (ongizate-estatuaren garaikoa, alegia) molde oztopagarriez beterik dagoen. Hala izanik, zuzenbide “zahar” horren suntsitzea ahalik eta lasterren lortzea, “modernitatearen” eginkizun nagusia bilakatzen da. Horra hor *desregulazioaren zergatia*, azken 20 urte hauetan hainbat bider Espainako CEOek eta Frantziako CNPFek —Europako gainontzeko ugazabeen elkarten antzera— eskatu dutena kementsuki.

Zuzenbidezko molde “zaharkituen” desagerpenaren eskaera, legearen berri-tzearen eraldaketa hutsa baino zerbaite gehiago da. Funtsean, eskakizun horrekin batera arlo ideologikotik datorkigun mezua hauxe dugu: *Zuzenbidearen neutraltasuna* aldarrikatu behar da, iraganetik jaso dugun ondare juridikoa sasi-balorez kutsaturik baitago. Zama historiko horrek —modernitatearen aldeko defendatzaile sutsu horien arabera— egungo egoera planetarioari begira traba eta kalte besterik ez du eginen antza.

Dena dela, gure gizartean benetan agintzen duen botere ekonomiko horren ondoan beste botere bat —formala (baina garrantzitsua)— ere badugu; hau da, estatuaren aparatu ideologiko-instituzionala osatzen duena. Bertan —bere eginkizun formala betetzeaz gain (hau da, instituzio bakoitzak berari dagokiona egiteaz aparte)— “betiko” balore juridikok aldarrikatzen dira; hots, kapitalismoak estatu liberalaren garaitik “defendatzen” dituenak: askatasuna, justizia, berdintasuna, segurtasun juridikoa, aniztasun politikoa eta gainerakoak.

Antza denez, bi diskurtso edo ikusmolde kontrajarriek aurrez-aurre egin dute topo. Ez da horrela baina, bi diskurtso horien kontrakotasuna ez baita azalekoa baino. Hemen, beste askotan bezalaxe, zuzenbidearen eginkizunetatik bat —eta ez txikiena— gizartearen arazoak ideologiaren pean ezarraztea dela gogoarazi behar dugu, gizartea den bezala ager ez dadin. Eta horixe da kasu honetan ere gertatu dena.

Gaur egungo diskurtso ideologikoak agerian uzten ez duena hauxe da, alegia, estatu liberalaren aipatutako baloreak individualismoaren ikuspegiarekin kontsideratzen zirela —eskubide kolektiborik onartzen ez zelako—, eskubide kolektiboen garaiaren hasiera XX. mendeko ekarpena baita. Hori mende honetan zehar, estatu eskuhartzaileak eraiki duen herritarren eskubide kolektiboen eremua da; hain zuzen, neoliberalismoaren eraginez suntsitzen ari dena, “*malgré le discours*”.

Boteretik datorkigun mezua *klaseen arteko interes komuna* aipatzea bada, “zilegi” egiten zaigu mezu horrekin batera demokraziaren betidaniko diskurtso lilulagarria pairatzea. Hor kontraesanik ez baitago. Azken 100 urte hauetan herritarrengandik sekula baino urrunago dagoen botereari, zer esanik ez, azalean bederen (eta diskurtso-mailan soilik) betiko ildotik aritzearen itxura agertzea interesatuko zaio (zuzenbide-estatuaren irudia hunkitua ez balego), benetako zuzenbidezko-estatuaren ezaugarriak ahultzen diren bitartean.

Honen guztiaren ondorioa oso latza da: zuzenbide demokratikoaren eginkizun historikoa baztertzea; hots, herriaren eskuetan boterea atxikitze edo kontrolatzeko ahalmenik ez edukitzea.

XIX. mendeko estatu liberalaren eginkizun teorikoa ahalik eta botere handiena eskuratzea baldin bazen, horrela gizarteko harremanak libreak izan zitezten, gaur egungo egoeran, neoliberalismoaren eraginez, estatuari (eta baita zuzenbideari) alderantzizko patua suertatu zaio, botere publikoen ahulezia botere ekonomikoaren aurrean sekulakoa baita.

Beraz, neoliberalismoari “*ultraliberalismoa*” deitu beharko diogu, *laissez faire, laissez passer* delako lelo hura liberalismoaren ildotik azken muturreraino eraman baitute.

Gauzak horrela, esplotazioaren aurkako berme sendorik ez izatea eta bazterketaren aurrean zer egin ez jakitea da gainera, XX. mende honen bukaeran gizarteak daukan ezintasunaren arrangura mingarria. “*Mai 68*” delako garaian azaldu ei ziren elkertasun-adierazpenen azken arrastoak desagertzeko zorian omen daude, gure-tzako erreserbatuak dugun europar eremuan. Boteretik at kokaturik gaudenontzat geroak ekarriko diguna baldintzatzea, hala ere, gure eskuetan dago hein handi batean oraino, ene ustez.

ULTRALIBERALISMOAREN GARAIA

Finantza-mundua, ekonomia eta zuzenbidea

Garapen ezaren eragile izateko aitzakiaz, azken hogeita bost urteetan kapitalismoak ezagutu duen “krisiaren” sintoma makroekonomikoek —birmoldaketa industrial, inflazioa eta, batez ere, langabezia— “ongizate-gizartea” birrintzeko premia areagotu dute nonahi. Areago oraindik: gastu sozialari begira preseski, sindikatuen presioa (“txantaia” ei da) salatzen da *urbi et orbi*.

Haatik, Estatuaren dirutza langile eta langabetuengana zuzendu beharrean, “enplegua sortzeko politikaren alde” bideratu da. Argi izaten dute arduradun publikoek, langabeziari aurre egiteko modu bakarra dirutza publikoa enplegua sortzeko duenari —uguzabari, alegia— ematea dela. Horrela, dirutza hori ez da gastu soziala izanen, ekonomiaren pizgarria baizik, eta, era berean, langabeziaren

aurkako tresna. Soldata-igoeraren bitartez langileei ematea, berriz, inflazioaren pizgarria litzateke; eta langabetuei ematea, ekonomikoki antzua.

Ongizate-gizartearen krisia ez da, ostera, sasi-ekonomizismo horren bitartez argitzen. Alderantziz baizik. Esate baterako, Gizarte-Segurantzaren babes-sistema, krisian dago langabetuek kotizatzen ez dutelako eta, horietarik herenak (gutxi gorabehera) prestazioak jasotzen dituztelako; eta, baita ere, populazioaren zahartzearen heinean, adinekoak ugaltzen ari direlako; eta (gero eta garbiago denez) pentsio pribatuen alde hamaika ahalegin bateratu egiten direlako, ugazaben, gobernuen eta (harrigarriena) sindikatu batzuen aldetik. Baldintza horietan, sistema publikoak —Gizarte-Segurantzak duen dirutzaren banaketan oinarriturik eta ez kapitalizazioan— ez du etorkizun garbirik, jakina.

Estatu eta instituzio publikoen sinesgarritasuna gero eta ahulago izanik, arlo pribatuetatik datorren edozein ekimeni harrera ona emateko prestutasuna ezker eta eskuin ikustea, ez da ulergaitza, inondik inora. Beraz, publiko den guzia soberan legoke.

Bestalde, lanari gero eta balio txikiagoa eskaintzen zaion neurrian, lana ordezkatzeko duenari —diruari, alegia— gero eta arreta handiago ematen zaio, noski. “*Mai 68*” delako garaian, berriz, gizartearen funtsezko oinarri ekonomikoa ekoizpen-sisteman zetzan eta, beraz, ekoizpenaren bizkar-hezuraren eginkizuna osatuz, lana etekin-iturri ezinbestekoa zen, Europara eurrez joan diren hegoaldeko emigranteek ezerk baino hobeto frogatu dutenez. Aldiz, gaur egun lanaren bitartez ez da dirutza handirik metatzen. Dena den, segidan aitortu behar da ezen, munduko iparralde garatua lanaren bitartez “esplotatua” izatea langabetuaren bazterketa pairatzea baino askoz desiragarriago dela.

Ekonomia eta Finantzak gero eta urrunago daude, eta gero eta zailago da beren arteko lankidetzak. Gero eta argiago da, halaber, bietarik zeinek hartu duen lidergoa. Gainera, teknologia berriek beren aldetik halamoduz finantza-munduari ematen dioten laguntza, ez da batere makala.

Inguru horretan kokaturik, ultraliberalismoak zuzenbideari uzten dion eremua guztiz murrizta da. Zuzenbideak, hala ere, berezko duen ezaugarria —hau da, koakzio- edo bortxa-sistema— bere horretan darrai, inolako murrizketarik pairatu gabe. Aitzitik, ongizate-estatuaren ereduaren zuzenbideari zegokion hainbeste egin behar desagertu eta gero, bortxa-sistema bati dagokion guztia (armada, polizia, “inteligentzi-zerbitzua”, kartzela, kontrol eta miaketarako baliabideak, etab.) gero eta indartsuago bihurtzen ari da.

Areago oraindik, koakzio-sistema berrituaren ufadaz indartzen eta zabaltzen ari den “ekonomi-arlo” bereziak —*segurtasun enpresarena*, adibidez— ultraliberalismoaren ezaugarri esanguratsuenetarikoa ditugu jadanik. Hala izanik, “zuzenbide-

-estatua” aipamenari ere ultraliberalismoaren esanahi kutsakor hori dario, nahitaez. Ene ustez, komenigarria da horretaz ohartzea.

Espekulazioaren erresuma

Gogoetarako garaia dugu gaur egungoa. Alabaina, kolektiboki, multzoka, elkarrekin egin behar da derrigorrezko ausnarketa hori, gure artean indibidualismoa garailea baita. Oraintxe bertan, —adibide bat emateagatik— gaurko gizarteak pairatzen duen arazoaren ikuspegi orokorra hautematea eta hori aurre egitea, norberaren baliabideekin (norberaren enplegua eta egoera pertsonala jokoan dagoela jakinda), gero eta zailago egingen zaiola edonori, *begi bistakoa* da. Hala ere, esamolde horren haritik jarraituz, ikusten den guztia egitatea denik hain gauza segurua ez dela esan behar da, behin espekulazioaz arituz gero, batez ere.

Bizitzen ari garen garaia espekulazioarena dela esatea zilegia zait, dagoen oro espekulaziorako erabilgarria izan baitaiteke. Espekulazioa zertan datzan azaltzean, beharbada, ez gara denok bat etorriko, hitz honen baitan dagoen polisemia dela-eta. Beraz, *Excursus* txiki bat egitea ez da agian guztiz alferrikakoa izanen.

Speculare (so egin) eta *speculum* (ispilua) hitz biek latinez jatorri bera dute, beste hitz askok bezala; *spectrum* (mamua) adibidez, besteak beste. *Speculare*, filosofia-arloko erabileratik aparte, XVIII. mendetik gaurdaino, “*Burtsa*” erakundearekin loturik dago, *spéculateur* baitzen, garai hartan, Parisko Burtsan so egilea (*observateur*). Harrez gero, espekulazioaren jatorrizko esanahia-rekin bat datorren sinonimo-antzekoa “*irudia*” litzatekeela, argi dago ene aburuz.

Alta, behin ekialdeko sozialismo erreala desagertuz gero, espekulazioaren erresuman bizi garenontzat, argi dago, halaber, gaurko ekonomia espekulatuzaile honetan ekoizpena ez dela inbertsioen helburu nagusia, etekina baizik. Horixe baita ekonomiaren globalizazioak, teknologia berriek lagundurik, finantza-mundura ekarri duen ondorio ikaragarria.

Benetan ikaratzeko modukoa da, munduan dabilen “espektroa” (Marxen manifestua parafraseatuz), zeren *espekulazioaren ekonomia birtual* honek ekonomia errealarekin zer ikustekorik gutxi baitu. Espekulazioak *irudia* besterik ez du sortzen, eta maiz *espejismoak* ere bai.

Espekulazioaren funtsa, erreala izan ez arren, espektro eta espejismoekin gertatzen den bezala, guztiz mingarria gerta liteke. Horra hor, esate baterako, azken urte hauetan ezagutu dugun espekulazioarengatik eratorritako “*Krak*” deitutako finantza-krisiaren zerrenda luze eta amaigabea: 1987ko Wall Streeteko beherakada izugarria, 1992ko “monetaren sugea” deitutakoaren leherketa, eta Barings Bank britainarraren porrota, 1994-95eko peso mexikarraren galera erraldoiak, 1996-97ko Tailandia, Malasia, Hego Korea, Honkong eta inguruko estatuen

Burtsako desmasiak, gaur egungo Japoniako monetak pairatzen duena, eta ... zein hurrengoa?

Espekulazioak eragindako izugarrikeriak gero eta maizago eta gero eta mingarriagoak gertatzen ari dira. Espekulatzailen bizkarraz bakarrik balira, gaitz-erdi. Baina, horiek ez dira kaltetuenak, munduko hegoan daudenak baizik, gehien bat. Munduko iparraldean bizi diren herritarrak ere ez dira onik atera: Amerikar Altxorraren idazkaria den Robert Rubin jaunak dioenez, “*Hego Koreako Burtsaren porrotak eragin zuzena izan du amerikar langile eta nekazariengan, eta baita amerikar aferetan ere*”.

Hala eta guztiz, tamalgarriena hauxe da, alegia, izugarrikeria horietan guztietan zuzenbidearen eginkizuna ez ikustea —legerik gabeko munduan bizi bagina bezala— edo, oraino okerragoa dena, *hau guztia zuzenbidearen babespean gertatzea*.

4. Neoliberalismoaren aurrean, zer egin?

Mario Zubiaga

UPV/EHuko irakaslea eta UEUKidea

ETORKIZUNERAKO ESZENATOKIAK

Diego Hidalgo-k, “Mundu-Bankuak” izan duen arlo-zuzendari espainol lehenena denak, “El futuro de España” liburuan¹, etorkizunerako eszenatoki desberdinak proposatu berri dizkigu 2025 urtearen mugari begira. Alde batera utziko dugu oraingo honetan, Espainak izan ditzakeen aukera edota arazoak, eta seguruenik beste zenbait azterketatan “Mundu-Bankua” erakundeak erabili dituen eszenatoki orokor horiei egingo diegu kasu.

Azken finean, neoliberalismoaren kudeatzaile nagusi den erakundeak berak aztertu dituen aukera desberdinen azalpena esanguratsua baita oso, datozen urteetako panorama nolakoa izango ote den jakin ahal izateko.

Gure lanaren ildoak eszenatokien azalpenetik hasiko da, eta eszenatoki garbirik egongo ez delako ustean, eszenatoki horietan arituko diren zenbait aktore aurkeztuko ditugu, bereziki neoliberalismoari aurre egite horretan saiatuko direnak. Azkenik, hauek topa dezaketen egoera politikoaz, ideologiaaz, lagunez, helburuez eta bitartekoez arituko gara.

Has gaitezen, bada.

Neoliberalismo Basatia

Lehen eszenatokia, kapitalismo gordinaren eskutik dator. Teknologia, merkatu librea, kompetentzia eta indartsuenaren legean oinarritzen dena. Hauentzat, etorkizuna egungo joeren jarraipen hutsa izango da. Eszenatoki hau defendatzen dutenen iritzian, hazkunde ekonomiko etengabe eta jasangarria (eutsigarria) mundu-mailan nagusitzen den neurrian gaintu ahal izango ditugu, gaur egungo egoera sozioekonomiko latzenak. Neoliberaliek, teknologia eta kompetentzia jainko bihurtu dituzte eta tamalgarriena ez da sasijainkoen berezko indarra, sinesleen kopurua eta hauen fideltasun sutsua baizik.

1. D. HIDALGO, *El Futuro de España*. Taurus. Madril. 1995.

Maila politikoan, seguruenik, gaur egungo potentziak, estatu-nazio izatetik erregio-potentzia bihurtuko balira ere, beren horretan segituko lukete, lehiari, eta, beraz, globalizazio politikoa ez litzateke gehiegi hedatuko, horrek lehiarako aukerak murriztuko babiluzke.

Liberalismo Biguna

Iparreko buruargi ezkorrenen (Erromako Kluba, Lisboako taldea, Brundtland informe...) ez dute, noski, liberalismoaren onura zeharo arbuiatzen, baina, kontuan hartzen dituzte kompetentzia basatiaren kalteak eta sistemarekiko izan ditzakden ondorio txarrak.

Neoliberalismo amorratuaren dakarren kompetentziaren filosofia mugarik gabe nagusituko balitz, honek sortuko litzuzkeen eragin sozial, ekonomiko, eta ekologikoak zeharo kaltegarriak izango lirateke munduko sistemak berak ezinbesteko duen ziurtasunarentzat. Beraz, mugak jarri behar zaizkio neoliberalismoari, edota mugak ezarri ezean, ondorio larrienak biguntzeko modua ahalbideratu.

Kompetentziaren ondorio okerrak ezin izkuta daitezke:

- Iparrean kompetentziak areagotu egin du langabezia, eta sistemak baztertzen dituenen kopurua gora doa; ildo beretik, Iparraren eta Hegoaren arteko aldea gero eta zabalagoa da. Kompetentziak justizia soziala galbideratzen du eta hortik ez da inoiz benetako demokraziarik suspertuko.
- Kompetentzia, gizakiaren alde bakar batez baliatzen da, hots, borrokarako grinaz, elkartasun eta elkarlanerako joera naturala alboratuz.
- Epe laburrean jokatzeko du, eta Naturak epe luzea besterik ezin du jasan.
- Gainera, maila praktikoan, kompetentziak ez du inongo zentzurik. Nola arraio lehiatuko da langile euskalduna indonesiarrekin, honek bestearen soldataren %1 bakarrik jasotzen duenean? Eta, lan banaketa aipatzen badigute lehiaezintasun horren soluzio modura, pentsa ote daiteke euskal langile guztiak Indonesian antolatu ezin omen daitezkeen enpresa aurreratu eta “inteligenteetan” arituko direla?

Honen guztiaren aurrean, Iparreko liberal epel eta sozial-demokraten artean, mundu-sistemaren arazoak maila politikoan ekiditeke asmoz, gehienak “karitatezko gobernu” defendatzen dute (0,7, etab), eta muturrekoenak, “gobernu kooperatiboaren” beharra aldarrikatzen dute: *erregionalizazioaren bitartez*, aberatsen bilkura ezagun horietan inguruko txiroak ere barneratuz (Europar Batasuna eta Lome-ko itunekoen arteko lotura sendotuz, esaterako), edota, *globalizazioaren bitartez*, Nazio Batuen egitura eraberrituz, “munduko gobernu” antolatzen.

Nazio-Estatuen Desagerpena

John Naisbitt-en, Norman Macrae-ren, eta Robert Kaplan-en iritzian², nazio-estatuaren eredua desagertzeaz dago eta estatuen soberania gainbehera dator, teknologiaren eraginaren poderioz. Eszenatoki honetan, gobernuek gero eta botere gutxiago izango dute, eta zenbat eta berekiko dependentzia gehiago sortarazi hiritarren, hainbat eta arazo gehiago izango dituzte, eragindako uste guztiak ustel bihurtzen direnean. Ahuleziaren arrazoiak asko dira: globalizazioa eta aberri txikiak loturen sendotzea, gero eta buruzagi gutxiago egotea, eta daudenak, esparru txikietan ari direnak, politikarien ospearen galtzea (Komunikabideen kritika etengabea, ustelkeria...), kapital sozialaren galtzea, telebista eta beste teknologien eraginaz, komunikabide berrien kontrolzina (Interna, beste sareak...), nazioarteko finantza arloaren autonomia, estatuen ahulezia fiskala eta horren ondorioz, gabezia ekonomikoa, mugen desagerpena eta mafia, zein beste talde azpiestatalen berrindartzea, eta abar luzea, benetan.

Eszenatoki honen proposamena egiten dutenek ez dute oso argi esaten zein egoeratan geldituko litzatekeen Estaturik gabeko edota mila estatutik gorako mundua. Egoera hori, neoliberalismoaren ondorio ezinbestekoa eta pizgarria den, ala neoliberalismoaren hedakuntza oztopatuko duen ezustekoa izango den esatea, ez da batere erreza.

Batzuek anarkiaren arriskua aipatzen duten modu berean, besteek, akordio berrien bitartez arazo larriegirik sortuko ez litzatekeela diote. Macrae-k, esaterako, jarduera guztien pribatizazioa ikusten du etorkizunean, eta beraren iritzian, polizia funtzioa duen estatu liberalaren lana enpresa pribatuen esku geratuko da urte gutxi barru.³

Iraultza Teknologikoa

Seguruenik, hauxe dugu eszenatoki baikorra. Gizakion bizimodua zeharo aldatuko duten aurrerapauso teknologiko txundigarriak iragartzen dituzte ikuspuntu honen defendatzaileek. Dagoeneko, robotikaren eskutik bereziki, gaur egun gizakiok ditugun arazo larrienak konpontzeko bidean daude, eta joera areagotu egingo omen da datozen hamarkadetan. Hala ere, seguruenik, 2025. urtera bitartean bederen, mundua gizakion esku egongo da, eta teknologiak, arazoak konpontzen dituen neurri berean gutxienik, arazo berriak sortuko ditu, konpondu dituenak baino larriagoak izango direnak askotan.

2. N. MACRAE, *The 2025 Report*. MacMillan.1985. Iadanik 70eko hamarkadan, analisi politiko zehatza eginenez, Berlineko harresia 1989ko abenduaren 24an desagertuko zela iragarri zuen, eta hilabete bakar batez okeru zen..., R. KAPLAN, *Anarchy*, Atlantic Monthly, 1994. J. NAISBITT, *Global Paradox*.1994.

3. Seguritate-enpresen gaur egungo betekizun gehiegizkoak ikusita, ez dirudi eszenatoki hori oso urrun dagoenik.

Bestalde, eszenatoki honek ez du teknologiaren iraultzaren ondorio edota baldintza sozial, politiko eta ekonomikoei buruz deus esaten, eta, beraz, pentsa daiteke, teknologiak neoliberalismoaren eskutik bakarrik emango dituela eman beharreko aurrera pauso horiek, lehen eta laugarren eszenatokiak modu egokian uztartuz.

Porrota

Lehengoa baikorrena bazen, hau eszenatoki ezkorrena da, baldin eta neoliberalismoaren eskaintza horrenbeste gaitzesten ez badugu, zeren edozein kataklismo etorkizun desiragarriagoa izango litzatekeela uste baitugu.

Katastrofeak, mota askotakoak izan daitezke: krak ekonomikoak, izurriteak (bakteria/birus berriak eta gogorragoak), ekologikoak, klimaren ingurukoak (ozono-geruzaren desagerpena, atmosferaren beroketa...), edota astrofisikoak....

Horrelako egoerak ezin dira inola ere ahaztu edota gutxietsi; baina gure kontroletik kanpo daudenekin ez dago zer eginik, eta, dudarik gabe, gure esku dauden inguruko eztabaidak beste eszenatokiak garamatza.

Horiexek dira, laburbilduz, datozen urteetarako zabaltzen zaizkigun aukera desberdinak. Egia esan, azterketa analitikoak egiteko baino ez dute balio, gizakiaren historia bost eszenatoki horietan isladatzen dena baino askoz ere konplexuagoa baita.

Azken finean, etorkizuna, izatekotan, eszenatoki guztien nahasketaren ondorioa izango da. Eszenatoki bakoitzak historia horretan izango duen zatia, portzentaia, da eztabaidatzeko geratzen zaiguna. Hori erabakitzea, edota asmatzea bederen, gure esku egon baitaiteke.

Horretarako, historiaren subjektuak gizakiok garelako uste dugunez gero, subjektu sozio-politiko anitzen azalpena egingo dugu ondorengo lerroetan.


SUBJEKTUAK EDO AKTOREAK NEOLIBERALISMOAREN AURREAN. HAUEN EROSOTASUNA ESZENATOKI BAKOITZEAN. IDEOLOGIA...

Neoliberalismoaren auzian dabilen subjektu politiko edo sozialen multzoa goitik behera azaldu eta aztertzea, lan honen helburuetatik at geratzen da. Iñaki Barcena-ren ardura nagusia, beste zenbaiten artean, ONG delakoaren analisia izango den moduan, *mugimendu ekologistaren eta nazionalismoaren* esparruan ari diren taldeak eta diskurtsoak zertxobait argitzen saiatuko gara.⁴

4. Hirugarren atalean jorratuko ditugun gaiak osatzeko, aliantzak eta elkar lanerako saioak, alegia, ezin ahantz daiteke ezinbestekoa zaigula beste zenbait aktoreen jarrera eta estrategiak ezagutzeko, hala nola, sindikatu eta alderdi politiko sozialdemokratena. Neoliberalismoaren etorkizun-

Atal honetan, diskurtso desberdinen lerro nagusiak, hauen arteko lehia edota kooperazioa, eta arestian aipatu ditugun eszenatokiekiko aktore bakoitzak izan dezakeen erosotasun-maila azaldu nahi ditugu.

Ildo honetatik, bereziki, besteak ahaztu gabe, ekologismo eta abertzaletasunaren arteko uztartze-prozesuaren ondorioz jaio berri den “Etnoekologismoaren” analisisian murgilduko gara.



Abertzaletasun eraberritua

Abertzaletasun klasikoaren oinarri ideologikoetatik abiatuz eta ezkerren ikuspegiak barneratu ondoren, 60ko hamarkadatik aurrera, balore berriak⁵ onartu dituen estaturik gabeko subjektu politikoa da.

Batez ere, Europarrak diren mugimendu abertzale hauek, kasu batzuetan salbu, ezin izan dute balore berri horiekiko egin duten atxikimenduaren zintzotasuna independentzia lortu ondorengo egoeran frogatu. Beraz, oso zaila da neoliberalismoaren eszenatokian zein paper jokatuko ote duten aurretik jakitea.

naren nondik norakoak igarri ahal izateko, adibide zeharo interesgarriak ditugu, esaterako, ELA-LAB bilkuraren jarrera, edota Frantzia nagusitu den alternatiba sozialdemokratarena (PSF, PCF, EKOLOGISTAK...)

5. Ikus gure azken lana eta liburua. Mugimendu abertzaleok balore berriak barneratuz gero, aberastu egin dute beren nortasun ideologikoa (antimilitarismoa, elkartasuna, ekologismoa, aniztasun sexuala, etab). Lan honetan gehien interesatzen zaizkigunak, eko-abertzaletasuna, eta elkartasuneko abertzaletasuna dira, hauek biek baldintzatzen baitute hobekien abertzaletasun eraberrituak neoliberalismoaren aurrean duen jarrera.

Gehienetan, neoliberalismoaren eskutik datorren hazkunde ekonomiko itsuaren kontra agertu dira, aberriari egindako eraso legez definitu baitituzte estatu zapaltzailearen eskutik datozen eraikuntza eta egitasmo neoliberal basatiak. Dena den, Estoniako kasuak argi erakusten digu periferiako herrien lehen grina irautea dela, baina kasu batzuetan ekologiaren ikurra hartu beharra dagoela horretarako; baina independentzia lortu ostean, akaso eredu neoliberalaren aitzindari diren herri indartsuetara hurbiltzea komenigarriagoa litzatekeela dirudi.

Hala ere, balore berrien barneratzea unean-uneko taktika baino zerbait gehiago bada, lehen aipatutako bigarren eszenatoki kritikoan erraz koka genitzake, neoliberalismoaren alde ilunari aurre egiten, alegia. Proposamen zeharo alternatiboak defendatu gabe agian, ezin ahanztu baitaiteke, abertzale diren heinean, jatorrizko izaera interklasistak jarrera erradikalegiak hartzeko aukera oztopatu egiten diela.

Bestalde, subiranotasun-eskaerarekin batera, argi dago hirugarren eszenatikian ere eroso sentituko direla, gaur egungo nazio-estatuaren desagertzea asko lagunduko bailieke eskatzen dutena lortzen.

Nazionalismo Periferiko Zaharkitua

Eutsigarri ala eutsigaitz izan, hauxe da garapen ekonomikoaren grina duen Hegoan nagusi den jarrera. Buttler-ek eta Taylor-ek adierazten duten moduan, zor gehien duten herriak dira eutsigaitzenak, eta, ia denek, modu batean zein bestean, “kolonialismo ekologiko” berria salatu dute.⁶

Batzuek badute oraindik zer ustiaturik (Brasil, Thailandia, Malaysia...); beste batzuek dagoeneko sofritzen ari dira aspaldiko ustiaketaren eragina, hala ere, ezin dituzte lortutako bizitza-mailak beheratu (India, Pakistan...), beste batzuek, edozein modutan herri indartsu eta garatu bihurtu nahi dute (Txina...), eta, azkenik, eredu hegemonikoetatik gertuen dauden periferiako subjektu batzuek ez dute neoliberalismoaren trena galdu nahi (Europako ekialdeko herri sozialista ohiak, abertzale erregionalistak mendebaldeko periferian...).

Hala ere, oraingo jarrera hauek ez dira oso ziurrak, barne-oreka soziala mantentzeko aipatutako herriek ezin baitute neoliberalismoaren eragin kaltegarria besterik gabe onartu.

Lehen eszenatokitik —neoliberalismoaren onarpen hutsetik, alegia—, bigarrena —liberalismo moderatua— pasa beharrean aurki daitezke, periferizazioa

6. Beijing-eko adierazpenean, 77-en taldeak eskatzen zuenez: “The right to development for the developing countries must be recognized”. Honi buruz, besteak beste, F. BUTTEL eta P. TAYLOR; *Environmental sociology and Global environment change: a critical assesment*, M. REDCLIFT eta T. BENTON (ed); *Social theory and the Global environment*. Routledge. London (1994) liburuan; eta T. BANUNI: *The landscape of Diplomatic conflicts, Global Ecology...* W. SACHS (ed) (1993) Op. Cit, liburuan.

areagotuko balitz, edota nortasun kolektiboa benetan desagertzeko zorian balego, edo gizartearen eta Naturaren oreka galtzeko arriskuan baleude. Horrela gertatuko balitz, abertzaletasun eraberrituaren eredia hartzeko modua izango lukete (Danimar-ka, Euskal Herria?).⁷

Bestalde, hirugarren eszenatokiari dagokionean —estatuaren ahultzea—, dagoeneko nazio-estatu modura antolatuta dauden nazionalismo periferiko zaharkituek, barnean dauzkaten herri txikien eskubideak modu gogorrean zapaldu dituzte, Europako herri nagusien historia mikatza modurik estuenean errepikatzeke asmoz edo (Txina, Indonesia...).

Beste zenbait abertzale periferikori, kudeatzaile erregionalistei kasu, estatuaren ahulezia areagotzea helburu eta eszenatoki atsegina irudituko zaie, beren autonomia esparrua zabaltzeko bidea izango bailitzateke (Padania, Euskadi, etab).

Nazionalismo hegemonikoak

Potentzia garatuen sektore sozial, ekonomiko eta politiko helduenen jarrerak biltzen dira subjektu honetan: EEBB, Japonia eta Europako zenbait Estatu (G7-koak).

Herri, edota sektore hauek, munduko gaur egungo ordenuaren kudeatzaileak dira, eta, oraingoz, hauen interesen arabera antolatzen dira, neoliberalismoak nazioarte-mailan, bere eredia garatzeko edota sortutako desorekak konpontzeko egiten dituen bilkura eta akordioak: zentzu honetan G7koen bilerak, GATT-enak, edota UNCED-en bilerak —1992an Rio-n egindakoa, zein aurtengo New York-ekoa—, nazionalismo hegemonikoen nahiak bideratzeko tresnak besterik ez dira.⁸

Ingurugiroari buruzko eztabaidaren globalizazioak nazio-estatuaren soberania arriskuan jartzen duela esan bada ere, oraingoz, nazio-estatu periferikoak dira kaltetuak, ia inoiz ere ez hegemonikoak. Bush presidenteak argi asko esan zuen Rio-ko bilkuran: “Ez gara hona etorri EEBB-etako bizimaila eztabaidatzera”.

Munduko agintariak direnak, oso eroso dabilta diskurtso nazional eta globalen artean, hegemonia mantentzea dute helburu nagusi, eta horrekin batera beste hainbat: barne-legitimazioa, garapen-bidean dauden herrien konpetentziaren kontrola, demografia eta etorkinen mugaketa, nazioarteko lanaren eta ekoizpenaren banaketa, etab.

7. Egia esan, zenbait nazionalismo periferikoren izaera ezagututa, nahiko zaila izango litzateke eraberritze ideologiko hau, oso sinetsita baitaude “hazkundearen beharraz”. Bestalde, orain arte ekologiaz arduratu direnean, esaterako, ikuspuntu kontserbazionista hutsa izan dute, ekologismo politikoa mesfidantzaz hartuz eta diskurtso nazional soila eginez, tokiko zein mundu-mailako egoerari aipamenik ere egin gabe.

8. M. FINGER, “Politics of the UNCED process”, GLOBAL ECOLOGY-n (Op. Cit).

Hauen diskurtso ekologista, kontserbazionismo hutsetik “azaleko sasiekologismo arinera” doa (*shallow ecologism*), hazkundera baita edozein arazoren irtenbide bakarra, eta W.Beckerman-ek dion bezela, “txikia zozokeria da”.

Eszenatokiei dagokienean, hauek izan dira orain arte lehenaren suspertzaile amorratuena, azken finean, neoliberalismoaren asmatzaileak baitira.

Hala ere, globalizazioaren ondorioek barne-arazo asko eta estatu hegemonikoaren arteko liskar anitz sorraraz ditzakete. Eta, neoliberalismoa mugarik gabe hedatuko balitz, orain artean hegemonikoak izan direnak, garai bateko indarra gal dezakete, zeren estatu hegemonikoetan ere, neoliberalismoaren ardatzetatik kanpo, konpetitiboak ez diren arlo ekonomiko eta sozial ugari baitago.⁹

Hori dela-eta, datoen urteotan bigarren eszenatokira hurbiltzeko saioak ugala daitezke; batez ere, konpetentzia basati horretan garaile ez diren nazionalismo hegemoniko izandakoen artean.

Hirugarren eszenatokiari dagokionez, estatu berrien klubean sartzeko baimena beraiek ematen ala ukatzen dutenez, (ikus Jugoslavia ohia), hegemonia hori mantentzen duten heinean behintzat, ez litzateke batere normala izango arrapaladan mila estatu berri sortzeko bidea ematea.

Globalismo hegemonikoa

Diskurtso-mota hau ezin daiteke estatu zehatz batekin parekatu, subjektu hau estatu nagusietako punta-puntako sektore sozioekonomikoek osatzen baitute. Hauek dira globalizazioaren bultzatzaile sutsuenak eta neoliberalismoaren onura zuzen-zuzenean jasotzen dutenak.¹⁰

Merkatu globalaren kudeatzaileak diren aktore hauek, hazkunde-prozesuan murgilduta daude, eta modernizazioaren hurrengo uhinaren gainean datoz. Komunikazioen arloan nagusitzen ari direnez, agenda globalak baldintzatzeko gero eta gaitasun handiagoa dute. Lehen eszenatokiko aktore aproposenak dira, eta neoliberalismoari jarri nahi zaizkion mugak, ahulen “erresistentzia zaharkituak” deitzen dituzte.

Diskurtso globalista hau, zentzu honetan, lekukotasunaren eta nazionalismoen kontrakoa izango da. Baina, abangoardia modernizatzaile honek ez du arrisku berezirik ikusten hirugarren eszenatokian, baldin eta neurri neo-babesleen bitartez, estatuen anizteak liberalismoaren oinarria kolokan jartzen ez badu.

9. ANTXON MENDIZABAL-ek(1995), Europaren eta EEBB-en arteko istiluak zehazki azaldu ditu, GATT akordioek kultura-mailan dituzten ondorioak aztertuz.

10. LESLIE SKLAIR(1994): “Global sociology and global environmental change”, “Social theory and Global environment”-an. Op. Cit.

Laugarren eszenatokia, baikortasun teknologikoarena, oso gustukoa du subjektu honek, eta, adibidez, ekologiarren bidetik etor omen daitezkeen kalte globalez oso arduratuta egotearen itxura ematen du, sasiekologismoa oso diskurtso eraginkorra baita, hain berrituta ez dauden sektore ekonomiko eta industrialen kompetentzia ahultzeko.

Eko-Globalismoa

Arestian aipatutako subjektuaren maila bereko kontrako subjektu abangoardista, nazioen gaineko elite ekologista dugu. Talde honen barruan jarrera arras desberdinak topa ditzakegu: neoliberalismoa berdez margotu besterik egiten ez dutenak (*greening capitalism*), diskurtso publiko hegemonikoa eta jendearren sentimenduak aldatzen saiatzen direnak (*Greenpeace*), edota, azaleko ekologismotik aldenduta, eta ekologismo politiko globala abiapuntutzat hartuz, nazionalismo hegemonikoaren zein elite periferikoaren eta globalismo hegemonikoaren arteko batetortze ilunak salatzen dituztenak. Azkenik, ez zaizkigu falta, ekologismo sakon (*deep ecologism*) aurremodernoa edota posmodernoa defendatzen duten globalistak (GAIA hipotesiaren defendatzaileak, *Earth first!*, eta beste).

Egia esan, subjektu honek duen arrakasta mediatikoak mesede handia egin diezaieke ekologismo politikoan borrokatzen ari diren talde txiki eta ezezagunei, baldin eta beraiek salatzen duten arazo lokala erakunde ekoglobal hauen agendan sartzen bada. Horregatik, ekoglobalistekin buruturiko aliantzak eta elkarlana oso komenigarriak izan daitezke ekimen txikiarentzat.

Talde honetako kide ezkertiarrenak dira lehen eszenatokiaren oinarria modurik sutsuenen arbuatzen dutenak; baina bigarren eszenatokia, liberalismo bigunarena, hirugarren eszenatoki “nazionalista kaotikoa” baino desiragarriago ikusten dute. Ez baitaie nazionalismoa fidagarria iruditzen.

Bestalde, eszenatoki teknologiko baikorraren aurreko jarrera ere ez da, orokorrean, oso aldekoa. Abangardia teknologikoetatik gertu daudenak, jakin badakite teknologiak asko lagundu diezaiokeela ingurugiroari, baina ez dira fio haren kudeatzaileez. Beste kasu batzuetan, aldiz, teknologiaren etsai amorratu legez agertzen zaizkigu, ekologismo sakon aurremodernoaren defendatzaile diren heinean. Hauek, bereziki, bosgarren eszenatoki kataklismikoaren iragarle bihurtu dira.

Etnoekologismoa

Sarrera eta lehen hurbilketa

Hau da, seguruenik, subjektu berriena.

Nazionalismoaren eta gerora ekologismo modura definitua izan den filosofiaren artean aspalditik izan dira lotura zuzenak.

XIX. mendean, nazioa bera osatzen ari zen unean, protoekologismo modernoak modernizazioak berak deuseztu zuen mundu zahar amestuaren irudi mitikoa eskeintzen zion gizabanakoari. Prozesu honek sorrarazten zituen zauri antropologikoak sendatzeko-edo, galtzen ari zen mundu ukitugabearen mina nagusitu zen garai hartan.

XX. mendean 60ko hamarkadatik aurrera, zenbait mugimendu abertzalerentzat, ekologismoa estatu zapaltzailearen kontra jotzeko bide berria izan zen. Euskal Herrian zein Estonian, ingurugiroa nazioaren oinarritzko eduki bihurtu zen, estatu garapenzale eta zapaltzailearen atzamarretatik berreskuratu behar zena, hain zuzen.

80ko hamarkadatik hona, nazionalismoaren eta ekologismoaren arteko harremanetatik kimu berria sortu da: etnoekologismoa.

Boterearen jabe ala menpeko, nazio-estatuak beren hilobi izango den globalizazioaren bultzatzaile dira. Estatuetatik mantentzen den doktrina nazionalistak ez du seguru asko prozesu hori oztopatuko.

Nazionalismo berria, etnoekologismoaren arima dena, nortasun kolektiboa osatzen hasiak diren inguru azpigaratuetakoa herri txiroetan ari da birsortzen; edota, nazio-estatu garatueta oraindik Naturatik bizi diren komunitateetan, globalizaziotik kanpo geratzen ari direnetan. Kontsumo gehiegizkoan oinarritzen den nortasun urbano kultura-aniztunaren aurrean, nortasun lokalak Naturan ditu bere erroa eta zeregina.

Etnoekologismoaren ideologia, etnoekologiaren ondorioa da. Toledo-k dienez¹¹, etnoekologiak, antropologia, etnobiologia eta agroekologia ditu oinarri, eta, zientzia legez, helburu argia du: «The ecological evaluation of the intellectual and practical activities that a certain human group executes during its appropriation of natural resources». Dena den, giza talde bakoitzaren izaera eta naturarekiko dituen harremanak aztertzean, etnoekologiak jarrera eurozentrikoa baztertu duenetik, eta lekuan lekuko mito zein sinesmenen bitartez errealtatea ezagutzeko ahalegina egin duenetik, betiko zientziaren mugak gainditu ditu, eduki politiko, etiko eta moralak hartuz. Azkenik, diziplina honen helburua ez da soilik ekoizpen-sistema berezi batzuen azterketa; aitzitik, garapen eutsigarri eta zuzenaren defentsa ere bere gain hartu du. Honela, etnoekologiatik, etnoekologismora igarotzen gara, naturalki, benetako pentsamendu kritikoa eta honen bultzatzaile diren subjektu aurrerakoiak, ezagutza zintzoaren eskutik, eratoritzen baitira beti.

Gauzak honela, zerk elkartzen ditu hain desberdinak diren Hegoamerikako mugimendu indigenisten borroka demokratikoa, Indiako jharkhand herriaren

11. V. M. TOLEDO: "What is Ethnoecology? Origins, scope and implications of a rising discipline", *Ethnoecologica*. Vol 1. April 1992. Beste definizio batzuk, R. BYE. (1981): "The ecological basis of the human interactions and relations with the environment"; J. P. BRASIUŞ et al (1986): "The study of how traditional groups organize and classify their knowledge of the environment and environmental processes".

basoen defentsa edota Zimbabweco tribuen bitarteko tradizionalen berreskuratze saioak?¹²

Bron Taylor-ek(1995) dioenez, hiru dira batetortze nagusiak:

- Diagnosia eta salaketa bera: ingurugiroa arriskuan jartzen bada, bizitza fisikoa zein kulturala arriskuan daude. Beraz, amalurraren bortxaketa salatu beharra dago.
- Kausen azalpen berbera: Egoeraren zergatia, neurrigabeko hazkunde ekonomikoa eta industrializazioa dira. Erantzule nagusia, besteen lurraz beste egiten duen atzerritarra da, eta honen laguntzaileak, epe laburreko filosofia hori beren lurrean onartzen duten estatu azpigaratuak.
- Konponbidea ere bakarra ikusten dute: Razionalitate berria, tradizioa eta modernitatea uztartzen dituen. Lurra berreskuratu eta norberaren jakinduria ekologiko zein gaur egungo jakintza erabiliz lurra kudeatzea. Politika mailan, gobernua bestelako moduan antolatu beharra dago, lekuko autonomian oinarrituz, botere estatal eta nazioartekoen mugak gaindituz.

Esparru ideologikoa

Etnoekologismoaren baitan bi zutabe biltzen dira: “ekologismo herrikoa” eta “abertzaletasun berria”.

Ezin ahanzt daiteke, bi zutabe horien irakurketa ideologikoa ez dela zertan derrigorrez bakarra izan. Orain artean, irakurketa aurrerakoa ezkertiarra, edo, batzuen iritzian, “erradikala” nagusitu dira.¹³ Baina horrek ez du esan nahi, bestelako joera ideologikoak, bai ekologismoari zein neoabertzaletasunari dagokienean, ager ezin daitezkeenik.

“Ekologismo herriko erradikalak”, nortasun eta lurraren ustiaketaz dihardue- nean, eta nazioarteko merkataritza- eta finantza- interesen erantzukizun zein lekuko elite ustelduen joku zikina salatzen dituenean, ezkerak kapitalismo inperialista esplotatzaileari buruz egin izan duen irakurketa bera egin du, edo antzekoa behintzat. Are gehiago, azken urteotan, ekialdeko “sozialismo errearen” porrotaz geroztik, ezkerren esparruan ikuspuntu ekosozialista oso interesgarriak zabaldu direnez gero, batetortzea askoz ere aberatsagoa izan daiteke.¹⁴

12. S. K. y PRAMOD PARAJULI: “No Nature without Social Justice...”; Y. TANDON, “Village contradictions in Africa.” Denak, W. SACHS(ed)(1993) *Global ecology; A new arena of Political Conflict*, Fenwood, Books, Limited, Halifax, Canada, liburuan.

13. Egia esan, gehien erabili dugun erreferentzia bibliografikoak hartu duen ikuspegia haxe izan da: B. R. TAYLOR(ed), *Ecological Resistance Movements: The global emergence of Radical Popular Environmentalism*, State University of NY, Albany.1995. Ildo honetatik, batzuen ustez “erradikaltasuna”, talde etnoekologistek erabiltzen dituzten bitarteko alternatiboetan datza.

14. Ekosozialismoren oinarriak ezagutzeko, ikus, euskaraz: *Manifestu ekosozialista* C. ANTUNES eta beste, Los libros de la Catarata, Bakeaz 1992. Abiapuntu ez hain eurozentrikotik,

Etnoekologismoaren “ekologismoa” zeharo antropozentrikoa, politikoa, da, herrien etorkizunaren alde egiten baitu. Baina ezin uka dezakegu, ekologismo herrikoi honek beste iturri batetik ere hartzen duela ura. Bestalde, elementu erlijioso-morala ez da kanpotik erantsitako ezaugarri bat, erro-errotik datorkion jitea baizik. Ildo hau indartuz gero, ekologismo sakon (*Deep ecology*) izpiritualaren bidea hartuko luke etnoekologismoak, gizakiarengandik aldentuz.¹⁵

Gauza bera esan daiteke etnoekologismoaren beste zutabeari buruz. “Neoabertzaletasuna”, herri txiki eta zapalduen abertzaletasun aurrerakoa izan daiteke. Eta, ekologismo herrikoiak orain artean onartu duena, batipat, horixe izan da. Jarrera hau ez da sekula xenofobia izan, eta globalismo aurrerakoiarekin bat egin du, elkartasunezko internazionalismoarekin bat, prezeski.

Hala ere, etnoekologismoak beste bide bat har dezake nortasunaren erreibindikazioan. Natura hutsean erroturik dagoen abertzaletasunik ere badagoenez, modernitatearen kontrako diskurtso baztertzailerik eta txokokerizalearen eskutik ere jarri daiteke kolokan gizakiaren duintasuna. Bide honetan, etnoekologismo okerrak izango luke lagunik, GAIA hipotesia defendatzen duten ekozentristak, kasu.

Beraz, laburbilduz, ezkerreko etnoekologismoa dagoen moduan, eskuinekoa ere egon daitekeela esan dezakegu, eta kasuan kasu aztertu beharko ditugula talde eta ekimenak.¹⁶

Bukatzeko, behartuta gaude etnoekologismoaren definizioa egitera:

— Etnoekologismoa, mugimendua eta filosofia politikoa da, non, alde batetik modernitatearen (autodeterminazioa, demokrazia, giza eskubideak) eta bestetik ezkerrearen (antikapitalismoa, justizia soziala, berdintasuna) baloreak biltzen diren, Naturarekiko mistizismo ia erlijiosoarekin batera, arbasoen amaluraren erreibindikazioaren bidez, nortasun kolektiboaren defentsari ekiteko (neoabertzaletasuna).

beste antzeko kontzeptu batzuk ere badaude, *Southern Egalitarian Ecology* esaterako. Ikus: R. GUHA (1988) “Ideological trends in Indian Environmentalism”, *Economic and Political Weekly* XXIII, aldizkarian.

15. Bere burua Ilustrazioaren oinardeko bakartzat duen pentsamendu globalista hegemonikoaren jarrera batzuk, etnoekologismo herrikoiaren oinarriak desegin nahi izan ditu, honen jatorri espiritualista, erlijioso eta, beren ustez, zaharkitua, aitzakitzat hartuz. Hala ere, ezin ditugu talde etnoekologista gehienak ekologismo sakonean kokatu. Ikus: J. A. STARK: “A critique of Deep Ecology”, B. R. Taylor (1995) Op. Cit..

16. Joera atzerakoa ala aurrerakoiaren aproba legez, zenbait kontzeptuez talde etnoekologistek duten iritzia azter dezakegu. “Bioerregio”, Bioaniztasun”, eta honelako beste izen batzuek, “lekuko kontzeptu” legez, oso erabilgarriak izan daitezke horretarako. Adibidez, Bioerregioaren defentsa zilegia da, baldin eta gizaki-taldearen antolatetara ekarri gero, helburua nazio-estatuaren muga artifizialak deusezteko balitz Baina bestelako irakurketa okerrak ere eskura daude, esaterako, taldearen edo lurraldearen barneko kulturen arteko “bioaniztasuna” errespetatuko ez duen jarrera nagusituko balitz, adibidez. Horrek ez du esan nahi, noski, “aniztasun” horren izenean espezie/komunitate/kultura indartsuenaren gailentzea ahalbideratu behar denik. Bestetik, “Txikien” politikaren arriskuez arduratzen direnak topatzea ez da bat ere zaila. Ikus: D. DEAUDNEY(1995), “In search of Gaian Politics”, “Ecological Resistance Movements...” B. R. TAYLOR (ed).Op.Cit.

HELBURUAK/BITARTEKOAK: ELKARLAGUNTZA NON, AKORDIOAK NOREKIN ETA ZEREN INGURUAN

Honako atal hau irekita dago eztabaidarako. Hemen irakurriko direnak proposamenak besterik ez dira eta zirriborro legez luzatzen ditugu. Azken ideiak zein aukerak hobeki ulertzeko, berriro jaso beharko ditugu arestian aipatu ditugun zenbait eduki.

Zein da neoliberalismoari aurre egiteko eszenatokirik aproposena?

Lehen eszenatokiak, neoliberalismo basatiak dakarrena, mundu neodarwindar ezgizatiarrera garamatza. Indartsuena soilik gailenduko zaio konpetenziari, eta egoera honetan, bosgarren eszenatoki kataklismikotik oso gertu biziko gara beti.

Bestalde, eszenatoki zeharo alternatiboa asmatzea oso zaila ez bada ere, alternatiba hori oso-osorik aurrera ateratzeko bidea ez da batere erraza. Zentzu honetan, aipatu ditugunen artean, beharbada, eszenatokirik aproposena bigarrena izango litzateke, baldin eta liberalismoaren mugaketa eta eduki “soziala” muturre-raino eramango bagenitu. Honekin batera ez dugu hirugarren eszenatoki anitza alderatu behar, zeren herrien burujabetasuna modu askatzailean ulertuko balitz, gaur egungo hainbat liskar gaingidtzeko bidea lortuko baikenuke. Bestalde, neoliberalismoari aurre egiteko unean ezin bazter daitezke laugarren eszenatoki teknologikotik etor daitezkeen onurak, baldin eta teknologiak berarekin dakarren arriskua edota injustizia ekiditeko neurriak hartuko balira.

Nortzuk bildu behar dira neoliberalismoaren kontra?

Abiapuntu legez, esparru etnoekologistaren barnean sor daitezke lehen aliantzak eta elkarlaguntzak. Etnoekologismoaren oinarri ideologiko zabalak kontuan hartuz, sinesmen etiko komun batek zatiketa sozial, politiko edota etnien artekoak gaindi ditzake, eta ez bakarrik Hegoan bizi direnen artean, Hego eta Iparreko etnoekologisten artean ere baizik. Globalizazioaren eskutik datorren periferizazioak, etnoekologismora hurbil ditzake lehen munduko nekazari, abeltzain edota arrantzale asko. Etorkizunean, ez da hain arraroa izango, apika, abeltzain daniarraren, Txiapasko nekazariaren eta atun-arrantzale euskaldunaren arteko harremana areagotzea. Batetorrera hau, hiri-gizarte globalaren aurreko oinarri baserritarra duen neoabertzaletasun etnikoaren (aurrerakoa ala “sakona”?) bitartez burutuko da.¹⁷

17. Litekeena den batetortze honen baldintzak ezagutzeko, interesgarria izan daiteke honako liburua aztertzea: CARLSEN, R. JACKSON, MEYER(ed): *Cuando un ‘no’ es un ‘sí’*. *Dina-marca y el tratado de Maastricht*, Los Libros de la Catarata, Madril, 1993. Hala izanik ere, ezin ahantz genezake aliantza horiek zailagotu egin daitezkeela, baldin eta etnoekologisten artean, eduki politiko unibertsala ahulduz, eduki espiritualista sendotzen bada; azken finean, pentsamendu-sistema desberdinez ari baikara. (Lohmann1993).

Neoliberalismoaren kontrako akordioa eta elkarlaguntza, beste subjektuekin ere aberas daiteke.

Abertzaletasun eraberrituari ez zaio gehiegi interesatzen lehen eszenatoki bat, eta jakin badaki, herri txikien etorkizuna ez duela neoliberalismoak ziurtatuko. Hori dela-eta, gustukoa duen hirugarren eszenatokia etnoekologismoaren laguntzarekin lor daitekeela pentsa dezake.

Bestalde, ezusteko lagunak ere hurbil daitezke talde berera. Zenbait erregio ekonomiko periferiko baina garatzen kudeatzaile liberalek etnoekologiaren ikurra har dezakete beren interesak babesteko mundu mailako konpetentzian (Padania, Euskadi...), baina filosofia politiko sakona ez; edota, Nazio-Estatu garatueto doktrina nazionalista neoabertzaletasun etnoekologistaren bitartez eraberritu daitezke, globalizazioaren kalteei aurre egiteko (alderdi “agrarioak”, “ekoehiztariak”, etab).

Gainera, ezker historikoaren oinordeko omen diren alderdi zein erakundeek, teoriarik behintzat, neoliberalismoaren kontrako jarreraren kokatzen dute beren burua. Hala ere, horien artean, bereizketa egin beharra dago derrigorrez, zeren mundu garatuko alderdi sozialdemokrata eta sindikatu gehienak, eguneroko lanean, lehen eszenatokitik askoz ere gertuago baitaude, muturreko bigarren eszenatokitik baino. Azken aldi honetan zabaltzen ari diren akordio politiko berriek, sozialdemokraten eta zenbait ekologistaren arteko esaterako, liberalismo mugatuaren norabidea hartu dute, baina ez dut uste hortik aurrera joko dutenik (PSF-PCF-EKOL, Frantzian, edota Blair, Erresuma Batuan, etab.).

Azkenik, jarrera globalista guztiak ez dira neoliberalismoaren lagun.

ONG (EEG) ekoglobalista, elkartasunezko ONG eta talde internazionalista batzuk, oinarri aurrerakoi edota ezkertiarra izanik, neoliberalismoari kontra egitearren, etnoekologismorekin bat egiteko prest legoke.

Eta onartu beharra dago, zenbait kasutan, erakunde hauek arazoak agenda globaletan kokatzeko duten ahalmen hori oso erabilgarria izan daitekeela, borroka muga lokaletatik atera dadin.¹⁸

Nortzuk dira neoliberalismoaren bultzatzaileak?

Neoliberalismoak dakarren globalizazioaren onurak jasotzen dituztenak, lehen eszenatoki neodarwindarraren defendatzaile izango dira noski. Oraingoz,

18. Iñaki Barcena-ren atalean, ONG-ei buruzko eztabaida zabalduko denez, ez naiz horretaz arduratuko. Hala ere, esan, ONGak, alderdi politikoak bezala, erakunde-forma batzuk besterik ez direla, eta denak onak zirela uste genituen garaia, gaintu den bezala, ezin gaitzkeela orain pasa justu kontrako jarrerara, denak txarrak direlako uster. Banan-banan aztertu beharko ditugu hemendik aurrera.

nazionalista hegemoniko zein periferiko gehienak bide horretatik doaz. Dena den, zuzen-zuzenean globalizazioaren aitzindari diren globalista hegemonikoak¹⁹ dira herri xumeen etsai arriskutsuenak. Vandana Shiva-k dion bezala: “The global does not represent the universal human interest. It represents a particular local and parochial interest which has been globalized. The global is a globalized local. The South can only exist locally, while only the north exists globally”.

Zer eskatu, zer exigitu behar dute neoliberalismoaren kontra daudenak?

Hasiera baten aipatu dugun D. Hidalgo-ren liburuan, etorkizunerako aukeren artean, munduko gobernu kooperatiboarena jasotzen da; eta honek eduki beharreko helburuak ikusita, oso aproposak iruditzen zaizkigu aurreko galderaren erantzun gisa. Beraz, neoliberalismoaren kontra daudenek “etsaiaren” ustezko helburuak har ditzakete irizpidetzat.

Hona hemen lortu beharreko eskakizunak:

1. Ekonomia globalki eraginkorra.
2. Justizia sozial unibertsala.
3. Nortasun kulturala eta askatasuna.
4. Demokrazia politiko benetakoa.
5. Munduko populazioaren oinarritzko behar eta nahien asetzea: Minimo unibertsalen zerrenda, alegia: elikadura, etxebizitza, hezkuntza, justizia, demokrazia, seguritatea, askatasuna, nortasun kulturala, energia, informazioa, garraioa, elkartasuna, artea, osasuna, lana, komunikazioa.

Hamasei beharrizan hauek oso desberdinak dira eta minimoak definitzean arazoak sor daitezke, ez baitago irizpide unibertsalik. Dena den, gida modura erabilgarriak direla uste dugu, baldin eta praktikara eramateko epeak eta politika konkretuak martxan jarriko balira.

Bestalde, ez da batere arraroa zerrenda horretan ingurugiroari buruzko aipamenik ez egitea, Mundu-Bankuaren kezka nagusien artean ez baitago ekologiarena. Dena dela, aipatutako zerrenda erabilgarria izan daitekeelakoan gaude, baldin eta hor jasotzen diren zenbait eskakizun (ekonomia eraginkorra, energia, nortasun kulturala, osasuna, etab) irizpide ekologikoen arabera ulertzen badira.

Nola geldiarazi edota oztopatu neoliberalismoaren uhina?

Egia da, munduko gobernu bakar baten antolaketa ez dela derrigorrezkoa honako helburu hauek lortzeko, baina ezin uka daiteke, erakunde unibertsal subirano batek tresna eraginkorragoak izango lituzkeela lan horretarako.

19. Beste talde batean, lagunen artean, sartu ditugu “globalista aurrerakoiak” edo “internazionalista solidarioak”.

Inoiz horrelako munduko gobernuak bago, minimo horiek ziurtatzea izan beharko luke helburu bakar eta nagusi, eta zerrendan jasotzen diren eskakizunak kontuan hartuz, gobernu lokalekin uztartu beharko lituzke zenbait politika. Munduko gobernuak helburu orokor minimoak bermatuz gero, Gobernu lokal aske eta subiranoek eduki zehatzez bete beharko lituzkete hezkuntza, nortasun kultural propioa eta anitza, informazioa, garraioak, etab.

Baina ez gara oraingoz mundu idealaren amets goxoan lokartuko. Oraingo joera ikusita, munduko gobernuak zazpi-hamar nazionalismo hegemonikoren esku dago, eta aldaketaren bat gertatzekotan, sozioen kopuruan edo izenetan egongo da, ez tamalez botere-egituraketan. Epe laburrean behintzat, ez.

Beraz, neoliberalismoaren kontra ari direnen tresneria politikoa askoz ere xume eta ahulagoa denez gero, oposizio-lana egin beharrean daude. Nola? Bakoitzak bere arloan lan eginez giza justiziaren sare unibertsalean, programa orokor bakar baten arabera egiten ari direnaren kontzientziaz, eta borroka- zein informazio-mailan antzekoekin lotuta.

BIBLIOGRAFIA

- ANTUNES, C. & others. (1992) *Manifestu Ekosozialista. Alternatiba Berde baten alde European*, Los Libros de la Catarata & Bakeaz, Bilbo.
- BARCENA & IBARRA & ZUBIAGA. (1995) *Nacionalismo y Ecología. Conflicto e institucionalización en el Movimiento Ecologista Vasco*, Libros de la Catarata, Madril.
- BARCENA & IBARRA & ZUBIAGA. (1996) "Ecologism and Nationalism, past, present and future". SECOND EUROPEAN CONFERENCE ON SOCIAL MOVEMENTS. Gasteiz.
- BRON RAYMOND TAYLOR(ed). (1995) *Ecological Resistance Movements: The global emergence of Radical Popular Environmentalism*, State University of NY, Albany.
- CARLSEN, ROSS JACKSON, MEYER(ed). (1993) *Cuando un 'no' es un 'sí'. Dinamarca y el tratado de Maastricht*, Los Libros de la Catarata. Madril.
- COMISION MUNDIAL DEL MEDIO AMBIENTE Y EL DESARROLLO. (1987) *Nuestro Futuro Común*, Alianza Editorial, Madril.
- LOHMANN, L. (1993) "Resisting Green Globalism", in SACHS, W. *Global Ecology. A New arena of political conflict*, Zed Books, London.
- RAM GUHA. (1988) "Ideological trends in Indian Environmentalism", in Economic and Political Weekly XXIII.
- REDCLIFT, M. & BENTON, T (de) (1994) *Social theory and the Global environment*, Routledge, London.
- REDCLIFT, M. (1989) "Turning Nightmare into Dreams: The Green Movement in Eastern Europe" *The Ecologist*, Vol.19, N°5. Sept/Oct.

- TOLEDO, V.M. (1992) *What is Ethnoecology? Origins, scope and implicatios of a rising discipline*, Ethnoecologica. Vol 1. April.
- TYRAKIAN & ROGOSK.(EDS). (1985) *New Nationalism in the Developed West*, Winchester, Mass. Allen & Unwin.

5. Gizarte-mugimenduak eta gobernuz kanpoko erakundeak neoliberalismoaren garaian

Iñaki Barcena

UPV/EHuko irakaslea eta UEUKidea

“Gure gizartean, gero eta gehiago, galtzaile, baztertu eta marginalizatuak egotearen ideiaz ohituratzen ari gara, eta inork horretaz inongo erantzukizunik ez duela; ez gobernua, ezta estatuak edota instituzioek ere ez. Hau karitate- edo gizatasun-asuntua da, borondate oneko pertsonen ardurara... Merkatuak bere legeak ezartzen ditu eta elkartasunarena ez dago tartean”.

Ignacio Ramonet, *“Un mundo sin rumbo. Dinámicas y peligros de la mundialización”*.

“Gizarte zibileko klase buruzagiak, txiroen “estatismoa” kritikatzeko duten bitartean, militar eta diruzaintzarekin aritu dira bere lokarriak sendotuz, gizarte zibilean beren posizioa berrindartzeko”

James Petras, *“El posmarxismo rampante. una crítica de las ONG-s y los intelectuales”*.

AZTARNA HISTORIKOEN BILA BIPOLARIZAZIOTIK NEOLIBERALISMORA

Bigarren Mundu Gerraren bukaeran, Yaltan ateratako argazkiak, Roosevelt, Churchill eta Stalin batera jesarrita, banaketa geografiko-ideologikoa eta elkarbizitza paketsua izateko borondatea islatzen du. 1945. urtea eta gero sorturiko dualismoak, mundua bitan banatzen zuen: Mendebalde demokrata liberal kapitalista eta Ekialde sozialista totalitarioa. Banaketa honen errepresentazio gordina Berlingo Hormarria izan da.

Horrelakoa izan da, 1991. urtean SESB batasunaren desintegrazioa izan arte, 50eko urteetako banaketa ideologiko nagusia, hots, bi bloke militar eta ekonomiko eta bi gizarte-antolaketa guztiz desberdin. Planifikazio zentralizatua ala merkatu librea, partidu bakarra ala aniztasuna, demokrazia liberal kapitalista ala sozialismo erreala. Etsai ideologiko amorratuak, baina desoreka handirik sortzeko gogorik ez, arrisku nuklearra beti Damoklesen ezpata moduan baitzegoen. Elkarbizitza bake-tsuari esker, istiluak gehien baten “Hirugarren Munduan”, hau da, beste koordinatu geografikoetan eman dira, non superpotentzien interes ekonomiko-politikoak beti mahaigaineratu diren. (Korea, Kuba, Vietnam, Angola, Ertamerika, ...)

I. TAULA

	AEB		SESB	
Japonia	NATO		VARSOVIA. T	Mongolia
Taiwan Besteak	Alemania Fed.		Eki-Alemania Besteak Txina	
Hegoaldeko Vietnam			Iparraldeko Vietnam	
Hegoaldeko Korea		Berlin	Iparraldeko Korea	
<i>I. Mundukoak</i>			<i>III. Mundukoak</i>	

GALTUNG, J. (1984), “*Hay alternativas*”, Tecnos, Madril.

Sobietar Batasunaren eredu monolotiko eta totalitarioaren ondoan, beste herrialde europarrek (Polonia, Eki Alemania, Hungaria, Txekoeslovakia, Errumania, Bulgaria) edo Kubak, Vietnamek, Ipar Koreak, Angolak, Mozambiquek, Etiopiak... beren saio sozialistak egitean, ez zuten dikotomia horretatik ihesbiderik izan, eta Moskupean lerratu ziren, nahita edo nahi gabe. Titoren Federazio Yugoslaviarrak zein Maoren Iraultza Txinatarrak soilik izan zuten beren autonomia propioa mantentzeko ahalmen nahikorik. Dena den, 60ko eta 70eko hamarkadetan herrialde sozialistetan aurrerapen industrial eta teknologikoak ezagutu ziren (II. mundua deitzen zena). Garai honetan, eredu sozialista hau, Afrikan, Asian eta Latino Amerikan suertatu ziren deskolonizazio eta errebolta iraultzaileen erreferentzia-puntu izan zen. Baina Moskutik zuzendutako erregimen sozialista zentralizatu eta burokratikoan, kritika eta proiektu soziopolitiko berrientzako aukera gutxi zegoen.

Paradigma bipolar horretan partidu politiko zein gizarte mugimenduak murgildu ziren. bi muturretako tentsio handi eta indartsu.

Geroxeago argi geratu denez, eta horretan gizarte-mugimendu berrien eragina (ekologista eta antinuklearrak, feminista eta antimilitaristak, bakezaleak eta askatasun sexualaren aldekoak...) funtsezkoa konsidera daiteke. Munduan bene-benetan zegoen desoreka eta antagonismo nagusia ez zen bi bloke —sozialista eta kapitalista— ideologikoen artean, herrialde “garatuen” inperialismoaren eta herri “azpigaratuen” zapalkuntzaren artean baizik. Iparra/Hegoa dikotomiaz izendatu berri dena, dermio “politikoki zuzena” edo gutxienez zuzenago, bilatuz gero, ez dezagun ahantz horren adierazpen politikoa Ez-Alineatuen Mugimendua izaten saiatu izan zela, Bandung-eko Konferentzia (1955) eta gero. Oraindik eta istilu eta eraldaketa ugari izaki, Nazio Batuen Erakundearen G-7 denominaziopean eza-gutzen dena.

Bitartean, zer gertatzen zen Mendebaldeko eremuan? Non geratzen ziren langileria industrialaren ideal sozialista eta berdintzaileak? Sozialdemokraziarentzat, eraginkortasun ekonomikoa eta justizia soziala izan dira bere identitate-seinaleak. Bere planteamendu sozio-ekonomikoek (nazionalizazioak, sindikatu eta partidu sozialisten arteko elkarkidetzak eta politika ekonomiko keynesiarra, hots, kredituak, segurantza soziala, estatu asistentziala, subsidioak eta laguntzak) ez zuten kolokan jartzen sistema politiko-ekonomiko liberal kapitalistaren muina. Bestalde, ongizatearen edo Estatu Sozialaren etorreraz, mendebaldean hazkunde ekonomikoa, enplegu osoko sasoiak eta langileen egoeraren hobekuntzarekin batera, 50eko eta 60ko hamarkadetan gauzak zeharo aldatu ziren. Sozialdemokraziak ez du sistema kapitalista baino sistema hobirik ezagutzen, eta erreformak bultzatuko ditu, “demokrazia formalak” eta bere lojika instituzionala errespetatuz.

Estatu Liberalak, txanda eman zion Estatu Sozialari (gizarte osoaren aldeko partehartze ekonomikoarekin), alternantzia eta kohabitazio politikoa inauguratuz. Ipar Europan ezker-eskuin edo proiektu politiko sozialdemokrata-liberalen artean istilu handirik gabe txandakatu ziren. Ez zen kontu berbera Hego Europakoa, Espainian, Portugalen edo Grezian faxismoa eta diktadurak jarraitu baitzuten. Honek, egitura ekonomiko komunak antolatzean, hiru estatu hauen integrazioaren atzerapena ekarri zuen (Elkarte Ekonomiko Europarra, 1958).

Sozialdemokraziarentzat, demokrazia sozialismoa baino aurrekoagoa zen, eta Eki edo Hegoaldeko totalitarismoek, beren miseria, atzerapen eta zapalkuntzekin ez zioten demokraziari eremurik eskaintzen. Askotan, ez zen zergaiti eta kausei buruz galdetzen, errealitate praktikoa eta kontsumo eta bizimodu zeharo diferentek ikusiz, eta Mendebaldeko eredu moderno eta “garatuaren” apologia eginez.

70eko hamarkadatik aurrera, Sozialismo Errealean izandako krisialdi sozio-ekonomiko-politikoaren eraginez, 1989an Berlingo Harresiaren desagerpenak eta 1991n Varsoviako Paktuaren desintegrazioak zein Sobietar Batasunaren kolapsoak, neoliberalismoaren printzipio politiko-ekonomikoetan oinarriturik, gaurko Mundu-Ordenu Berria inauguratu zuen.

NEOLIBERALISMOAREN ALDEKO ETA KONTRAKO ARGUDIO FILOSOFIKO TEORIKOAK

Gaur egun neoliberalismoa Amsterdamen, Bolivian eta Euskal Herrian maiz erabiltzen den “hitza” dugu. Alabaina, termino politiko berri hau ez dator zerutik, “ex novo”. Hedabide globalen sasoiak mundu osora zabaldu bada ere, filosofo klasikoek (John Locke, Adam Smith, David Ricardo...) aditu eta berreskuratzailerik, irakasle garaikideek (F. von Hayek, Milton Friedman, Karl Popper,...), lehen mailako politikariek (R. Reagan eta M. Thatcher printzipalki) eta nazioarteko hainbat erakunde ekonomikorik (Bretton Woods-eko hiru “anai-arrebak” printzipalki,

Mundu-Bankua, Nazioarteko Moneta-Fondoa eta GATT izandakoa, oraintsu Mundu Merkataritza Erakundearen (bataiaturikoa) ekarpen sendoenak egin dituzte.

Hauekin batera, maila akademikoan, Ginebrako Goiko Nazioarteko Ikasketen Institutu Unibertsitarioa (IUHEI), Londresko School of Economics eta Chicagoko Unibertsitatean sortutako pentsamolde zein jarduera politiko-ekonomiko berriaren euskarria dugu, Welfare State eta merkatuaren erregulazioaren defendatzaileen aurkako kritikarena alegia, eta aurreko zein azkenengo arteko sare komunikatibo eta hedabideekiko fruitukorra izan zaie oso, diskurtso neoliberalaren zabalkunderako.

Alta, neoliberalak nahiago dute beren buruari “liberal” (P.Schwartz) edo “libertarianoa” (R.Nozick) izendatzea edota liberalismoaz berba egitea, eta zentzu horretan neoliberal abizena ez dute ontzat hartzen.

Bestalde, eta eztabaida filosofiko-teorikotara joaz, Philippe van Parijs, Lovainako Unibertsitate Katolikoaren irakasle kristau-ezkertiarrak bitan banatu ditu eskola neoliberalaren partaide eta programak¹:

Oinarrizkoak

Lehenengo lerro honen partaideak filosofia politikoaren teorialakoak dira. Bere ustez 50eko eta 60ko hamarkadetan martxan jarritako Estatu Sozial interbentzionistaren eredia salatua izan behar da, askatasunaren aurka doalako. Horrela John Locke-ren eta Adam Smith-en berrirakurketa eta berrinterpretazioa landu zuten eta berrogei urtez lan gogorra eginez gero, oso modan jartzea lortu zutena.

Teorialari hauen printzipio ideologikoak, aipatu kapitalismoaren aita klasi-koenak dira. Hasteko, jatorrizko eskurapenaren printzipioa: Nirea da, nik eskuratzen dudana eta beste norbaiten izenean ez zegoena, baina klausula locketarrekin leundua edo laburki esanda, beste norbaiti kalte egin gabe.

Bigarrena traspasuaren printzipioa dugu, hau da, pertsona bat izango da jabetun legitimoa eta justua, aurreko jabe legitimoarekin transakzio boluntario bat egin ostean. Aurreko printzipio bi hauek bortxatuak izaten direnean, “zuzenketaren printzipioa” dugu.²

Laburtuz, honetan datza printzipio hori: “askatasuna disfrutatzen, jabetun izan beharra”. Ez dago jabetun gabeko askatasunik; baina kontuz, proposamen honek ez du inongo zerikusirik filosofia humanista rousseautarrarekin eta bai, ordea, Spencer-ren darwinismo sozial insolidarioarekin.

1. RAVENTOS, D. (1992) “*Qué és el neoliberalisme?*”, Demà, Bartzelona.

2. RAVENTOS, D. Op. cit.

Ildo beretik, A. Smith-en “Ikustezinezko Eskuaren” erabilpen partikularra eginez, Milton Friedman-ek, Chicagoko maisu neoliberal ezagunak, honelaxe zioen: “Nere proposamen ekonomiko zenbaitek egoera edo Ongizate ekonomiko orokorra hobetzen badute, hori, askatasun indibidualaren defentsa eta gero, bigarren mailako helburua litzateke, soilik.”³

Dena den, neoliberalismoaren “apostolua” F. van Hayek austriarra dugu, “Morrontzarako Bidea” —1944— idazlanarekin⁴. Indar trabes joandako irakasle honek estreinuazko Welfare State esperientziaren aurka, Erresuma Batuko Alderdi Laboristari eta sindikatuen presioei egotzi zizkien merkatu libreari eta askatasunari egindako erasoak. Modu berean, berak zuzendutako Mont-Pelerin elkartekoak New Deal iparramerrikarraren aurkakoak izango dira. Bere aburuz, merkatu kapitalistaren koordinazio neutro, espontaneo, inpersonal eta ororentzako onuragarriaren alde, horrexegatik zioen: “Arestian, merkatu indarrekiko gizakiaren sumisioak, zibilizazio baten garapena ahalbideratu bazuen, bestela garatuezina zatekeena, sumisio hori dela medio, egunero gu baino zerbait handiago baten eraikuntzan osoki parte hartzen dugula uler dezakegu”. (F.van Hayek, *Morrontzaren bidea*, 1994).

Bere aburuz, elitismo eta jabedunen askatasunen defentsa demokraziarekin elkargaitza bazen, demokratentzako txarrago.

Askoren ustetan sozialdemokraziaren eta liberalismoaren arteko konponbideak (D. Bell, R. Aron, J. J. Chevallier,...) ideologiaren bukaera ekarriko zuen. Horrela, autore diferenteez era desberdinetan estatu teknokratiko-zientifikoaren eredu filosofikoa defendatu zuten. Aurrekoari loturik eta neoliberal fundamentalistekin amaitzeko, ez dugu ahortzi nahi teorikoen artean nagusitu den Francis Fukuyama, Estatu Batuetako Estatu-Departamentuko goi-burokrata dena, zeinek Berlingo Harresia desagertu ondoren honelaxe esan zuen: “Mende-bukaera honetan ez gara ‘ideologiaren bukaera’ edo kapitalismoaren eta sozialismoaren arteko konbergentzia ezagutzen ari, liberalismo politiko eta ekonomikoaren garaipen atzeraezina baizik”⁵.

Instrumentalak

Bigarren ataleko hauek argudio praktikoak ematen dituzte merkatu librearen babesean. Ez dira filosofietan galtzen, oso pragmatikoak baitira. Ekonomialari, gesticore eta politikari kapitalista hauen ustez, eraginkortasunaren eta berdintasunaren aldetik ikusita, estatuaren interbentzio ekonomikoa erratua da. Hori epe luzera ikusten ari da. Hauen arabera, utzi egin behar zaio merkatuari bere kabuz, langabezi laguntzarik, osasun zerbitzu publikorik eta beste laguntza edo subsidiarik gabe funtzionatzen.

3. RAVENTOS, D. Op. cit.

4. ikus UDRYM C.A. (1996), “F. Van Hayek, *l’apotre du neoliberalisme*”, PAGE 2, Ginebra.

5. FUKUYAMA, F. (1992), “*El fin de la Historia y el último hombre*”, Planeta, Bartzelona.

Horien ustez, enpresa publikoen pribatizazioaz eta lege-murriztapenik gabe hobetu egingo dugu guztion egoera ekonomiko-soziala.

Nabaria denez, Mendebaldean 50eko eta 60ko hamarkadetakoa urte idilikoaren paktua, liberalismoaren eta sozialdemokraziaren artekoa alegia, politikoa neoliberalak apurto nahi izan dute. Malgutasunak, lan-arloko desregulazioak eta merkatu-harremant libreagoak dira horien baliabideak. Beren ustez, Estatu Probidentzial edo Ongizatearena, erreforma eta hankasartze bat izan da; horregatik, neurriak hartu behar dira.

Teoria horien aplikazio praktikoa Ingalaterran eta Estatu Batuetan burutu dira, M. Thatcher eta Reagan eta Bush-en kapitalismo popularraren izenarekin, eta hori mundu osora zabaldu den eredu bat izan da. Orainsu eta gertuago, Europar Batasunean, Moneta-Batasunerako Maastricht-eko Tratatuak eta gero zabalduko direnak, horrelakoak dira.

Thatcher-ek eta Reagan-ek bere segitzaileak izan dituzte Ekialdeko herrialde post-komunistetan Polonian Balceroviz, Errusian Gaidar edota Txekian Claus. Nahiz-eta, egun, badirudi, bere “shock” terapia ekonomikoaren aurka, lehengo lider eta partidu komunista berrizatuak hauteskundeetan garaile ari direla altzaten.

Latinoamerikan Pinochet, diktadore ohia eta biziarteko senadorea, dugu neoliberalismoaren adibiderik preziatuenak bere mirari ekonomikoarekin; gorago Bolivian, Banzer-Paz Estensoren gobernu-koalizio pribatizatzailea eta, batez ere 80ko hamarkadaren amaieran, kasu errelebanteenak hauexek dira: Mexikon Salinas, Argentinan Menem, Perun Fujimori eta Venezuelan C. Andrés Pérez⁶.

Kritikak

Okasio ugari ikus dezakegunez, politika ekonomiko neoliberalen alde egiteko, ez da goiko printzipio edo oinarri filosofiko fundamentaletan sinetsi behar. Horrela Noam Chomsky-k dioenez, Gingrich-en “Amerikarekiko Kontratuak” argiro identifikatzen du merkatu librearen aho biko ideologia: babes estatala eta laguntza publikoak aberatsentzat eta merkatuaren diziplina pobrentzat⁷. Baina hala ere, ez gaitezen engaina, “Clinton-en Doktrina” deskribatzen Chomsky-k dioskunez, Etxe Zuriko buruaren ustez “merkatu librearen geroa da, etorkizun bat, non Amerika eredu eta zaindaria den”. Horrela Hirugarren Mundua eta Eki Europako lurraldeetan jarritako diziplina berriak Mendebaldeko harrapakarientzako mozkin bihurtuko dira, batez ere Estatu Batuentzat, egoera pribilegiatuari eutsiz⁸.

6. Iku ANDERSON, P.(1996), *Balance y perspectivas del Neoliberalismo*, El Rodaballo. 3. zbka. Buenos Aires.

7. CHOMSKY, N. & DIETERICH, H. (1997), *La Aldea Global*, Txalaparta, Nafarroa.

8. CHOMSKY, N. (1994), *Clinton-en Doktrina*, Hika, 45. zbka. Bilbo-Donostia.

Jokabide ekonomiko hauen justifikazio ideologikoari “pentsamendu bakarra” deritzo⁹. Honen arabera, kapitalismoa gizartearen egoera naturala da, ezin da lurperatu. Demokrazia ez da naturala; merkatua, aldiz, bai. Modu honetan, gero eta gehiago, gure gizartean galtzaile, baztertu eta marjinalizatuak dauden ideiarekin ohituratzen ari gara; are gehiago, horien arazoaz inork ez du inongo erantzukizunik, ez gobernuak, ezta estatuak edota instituzioek ere ez. Hau karitate- edo gizatasun-asuntua da, borondate oneko pertsonen ardura... Merkatuak bere legeak ezartzen ditu eta elkartasunarena ez dago tartean¹⁰.

Neoliberalismoaren kritika egitean estatuaren zeregina erdiguneratzen zaigu. E. Haro Tecglen-ek, bere “Hiztegi Politikoan” dioenez, arestian pensamendu politiko liberalek, gizabanako errentadunaren eskubideen defentsa eginez, estatuaren boterea eta eskusartzea mugatu zituzten lan eta kapitalen merkatuetan. Gaurko dermioak, hots neoliberalismoak, bere helburuetarako, estatuaren parte-hartzea eskatzen du.

Bide honetatik J. Petras-en ustez, neoliberalismoaren jatorria klase-borrokaren ondorioa da. Estatu eta inperioarekin aliaturiko kapitalaren sektore bereziek, beren eredia ezarri dute, klase herritarrak hondatuz. Gizarte zibileko klase buruzagiek, txiroen “estatismoa” kritikatzan duten bitartean, militarrekin eta diruzainekin lokarriak sendotuz aritu dira, gizarte zibilean beren posizioa berrindartzeko¹¹. Bere ustez, geroxeago ikusiko dugunez, indar neoliberalak alboraturiko intelektual posmarxistek eta GKEen jarduerak badute zerikusirik neoliberalismoaren finkapenean.

GARAPENERAKO GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEAK (GGKE) ETA GIZARTE-MUGIMENDU BERRIAK (GMB) NEOLIBERALISMOAREN GARAIA

Honako hitzaldi honetan ez da gure helburua gizarte-antolaketaerako bi eredu hauek erkatzea edota horien garapen kronologikoaren berri ematea. Neoliberalismoa ardatz modura harturik, bi subjektu edo aktore sozial berri hauen jokabideak eta portaerak komentatu nahi ditugu, besterik ez.

Izan ere, XX. mende honen bukaeran nola aurkitzen diren eta, neoliberalismoaren zurrumbiloi, zernolako funtzionamendu orokorra duten azaltzea da gure asmoa. Erradiografia edo panoramika bat egitean hauxe baieztatu daiteke: GGKE direlakoak ondo doaz, ugaltu egin baitira. Gero eta diru gehiago bidera-

9. RAMONET, I. (1995-I), “La pensée unique” in *Le Monde Diplomatique*, Parise.

10. RAMONET, I. (1996), “Un mundo sin rumbo. Dinámicas y peligros de la mundialización” *Hika*, 71. zbka. Bilbo-Donostia.

11. PETRAS, J. (1996), “*El posmarxismo rampante. una crítica de las ONG-s y los intelectuales*”, Excelsior, Mexico.

tzen dute Hegoaldera. Aldiz, gizarte-mugimendu berrien (GMB) kasuan, horien mobilizazio-ziklo zorrotzak joanak direlarik, egoera berri honetan beherakadan ari direla dirudi.

Dena den, ez gara diagnostiko bat egitera etorri, egoera sozio-ekonomiko-politiko berri honetan GGKEen eta GMBen arteko loturak eta diferentziak aztertzea baizik.

GGKEen definizio bat bilatzean prototipiko bat aukera dezakegu: “Erakunde zabal bat, Hegoaldeko informazio mordo daukana, laguntza-proiektuak diseinatzen dituena eta hauek martxan jartzeko balliabideak (instituzio publikoetatik batez ere) eskuratzen dituena”. Noski, proiektuaren fase batzuetan gutxienik (diseinu, difusio, ejekuzio, administrazio eta ebaluazioan, behinik behin) bere pertsonalaren dedikazioa ematen da¹².

Agian neoliberalismoaren agerpenak argien utzi duen desoreka, Iparra/Hegoaren artekoa izan da. Azken hamarkada eta erdian, gure inguruko nazioarteko elkartasun-mugimendu sozialaren garapena, Ertamerikako erreferentzia nagusia izanik, ardatz horretatik abiatu da.

Aldiz, hiru gizarte-mugimendi berri historikoak (pakezaletasuna, feminismoa eta ekologismoa) Gerra Hotzaren garaian jaio ziren, Moskuren eta Washingthonen arteko lehia nagusi zenean, eta lehen komentatu dugunez, ez beti baina askotan, alde bietarako kritika zorrotzak zuzenduz.

Izan ere, neoliberalismoaren aro berrian ez dituzte modu errazean egitura sozio-politikora beren diskurtsoak egokitu. Edota barneratze- eta instituzionalizazio-prozesuak direla medio, beren karga alternatiboa ere gutxitu egin liteke. Nolabait esanda, azken bosturteko honetan GKEen eta GMBen artean ordezkapen-fenomeno bat nabaritzen dugu, batez ere informazio-hedabideetan, iritzi publikoaren arretaz eta protagonismo sozialaren aldetik. 0,7% ezagunaren aldeko kanpainak eta Somalian, Bosnian, Kurdistanen edo Ruandan suertatutako tragediak izan dira GKEen ugaltzerako unerik aproposenak, zeren eta laguntza humanitarioa helarazteko, publikoaren begietara, GKEek konfidantza eta eraginkortasun handiago baitaukate, gobernuak baino¹³.

Garai bateko elkartasun politikoa, internazionalismo solidarioa eta brigadak 80ko hamarkadan oso potenteak izan ziren Euskal Herrian, eta horrelako ekitaldiek Komite Internazionalistetan eta, zorionez, Askapenerako erakundeen egitarauetan lekua izaten jarraitzen dute. Baina Saharan, Perun, Kuban edo Nikaragua aldean

12. GONZALEZ PARADA, J.R. eta beste. (1995), “*La función de las ONGs en la ayuda al desarrollo*”, Hiru, Gipuzkoa.

13. GOMEZ GIL .C. (1995), “*De los incuestionables apoyos a los desafíos sin respuesta*” ¿O eNe Qué?, Viento Sur 23. zbkia. Madril.

lan egiten eta urteetako esperientzia duten pertsona askok argiro baieztatu digute, bertakoek nahi eta behar dutena ez direla gure elkartasun eta hurbiltasun politikoa, gure laguntza ekonomikoa baizik. Proiektu onak eta dirua eta ez keinu politikoa. Polemika ezta?

Polemika Zaharra

Horrela, hamarkada bat eman dugu eta GGKEekiko kritikak nola ez, barne zein kanpokoak, mahaigaineratu dira.

GGKEek protagonismo sozial izugarria hartu dute. Baina ez al dira Iparreko gobernu kapitalisten eskutik interbentzio militarrek eta laguntza humanitarioak nahastuz politika neoliberalen probetxurako erabiliak izan?¹⁴

Zergatik lan egin behar dute urgentziatzko operazioetan, nazioartean prebentzio-lanak eragiten ez diren bitartean? Rigoberta Menchú-ren aholkuari jarraituz, ez al da izango hobe, esku bat bota beharrean, lepotik estutzen dien bestea kentzea?

Galdera eta zalantza hauek bururatzen zaizkigun bitartean GKEen gaineko ezezagutza eta beren arteko heterogeneitate zein diferentzia izugarriaz kezka sortzen zaigu.

Ez dugu uste polemika berri bat asmatu dugunik. GMBen artean eta beren barneko erakundeen alternatibitate edo instituzionalizazioaz mintzatzen garenean, planteamentu berberetan mugitzen gara, eta aspaldiko partez, “kontramugimenduen” arazo akademiko zein politikoaz ari gara behin eta berriz.

Eztabaida horietan norabidea ez galtzarren eta iparorratza fruitukorra izan dadin, beti ekartzen ditugu gogora Madrilgo CIMSek emandako irizpideak. Horrela, GMBei beren alternatibitatea lau eztai edo funtzio diferenteetan eskatzen zaie, hots, borondate transformatzailean, demokrazia parte-hartzailearen defentsan, botere erakundeekiko autonomi eta independentzian eta ekonomia sozialaren aldeko jarreran¹⁵. Ez al dira baliagarriak irizpide hauek GGKEak ezagutu eta sailkatu ahal izateko ere? Irizpide hauen jorreketa eginez gero, laster konturatzen gara zernolako GGKEen kopuru txikia gelditzen den, alternatibitate edo borondate politiko tranformatzaile eta kritikoarekin.

Horretaz aparte, GGKEen eta GMBen arteko desberdinatsunak ere nabariak diea, nahiz eta alde batean eta bestean dibertsitate izugarriak izan. Hasieratik GGKEek nagusiki bilatzen dutena eraginkortasun ekonomikoari loturik doa, eta,

14. BUSTER, G.(1995), “*El Leviathan humanitario*” ¿O eNe Qué?, Viento Sur 23. zbkia., Madril.

15. Ikus BARCENA & IBARRA & ZUBIAGA. (1996), “*NACIONALISMO Y ECOLOGIA. Conflicto e institucionalización del Movimiento Ecológico Vasco*”, Libros de la Catara, Madril.

aldiz, GMBen helburuen zerrendan identitate-adierazgarriak lehenetsuz agertzen dira. Batzuk eta besteak ez dira haize berriei modu berean egokitzen.

Normalean lehengoak hierarkikoagoak dira, herri-mugimenduen horizontalitatea errefusatzeko baitute. Garapen-proiektuak aurrera eramateko, diru-iturriak, maiz estatuarenak, ziurtatu behar dira, eta horrek legalitatearen errespetua exijitzen du. Estatuaren eta GMBen arteko harremanak hainbat estatu neoliberaletan hobetu badira ere, gatazkak eta kontraesan sakonak ez dira amaitu, non antimilitaristen eta ekologisten kanpainetan kasu desobedientzia zibilaren armategia arrunt bihurtu zaigun.

GGKE-EN ETA GMB-EN ARTEKO DESBERDINTASUNEN ZERRENDA BAT

~ Eraginkortasuna	~ Identitatea
~ Hierarkia	~ Horizontalitatea
~ Proiektuak	~ Gatazkak
~ Legalitatea	~ Desobedientzia Zibila
~ Dirua/Garapena	~ Izaera/Jarduera
~ Laguna	~ Etsaia

Dena den faltan botatzen dugu GGKEen taxonomia bat. Horra hor urjentziatzeko lan bat. Hasteko bere jatorri geografikoaz iparrekoak edo hegokoak izateak hizkuntza diferenteetan mintzatzera bultzaten gaitu. Gainera tamainaz edo esparruaz GGKEen baitan maila lokal, nazional, estatal edo nazioartekoak aurkitzen ditugu. Eta beren arteko harremanek problema bat baino gehiago sortu dute. Rio de Janeiroko “Lurraren Gailurra” eta gero, oso modan jarri dira estatu eta erakunde zein instituzioen konferentzia ofizialetan GKEen partehartzea edo topaketa alternatiboak antolatzea. Gakoa da, noren izenean? Noren kontrolpean? Non gelditzen dira ordezkatuak ahotsa eta interesak?¹⁶

Kontuan hartu beharra dugu pseudo-GKE edo estalki moduko erakunde pila ari direla sortzen perretxikoen antzera. Gaur egun sindikatu, partidu, enpresa, gobernu, eliza eta instituzioak beren GKE bereziaz hornitzen dira, gizarte zibileko asuntuetan beren ahotsa ozenkiago entzun dadin. Gauzak horrela, ez da batere erraza GKE dependenteen eta autonomoen artean ongi desberdintzea.

Azkenik, leloa korapilatzen, diferentzia ideologikoak ditugu, eta hortik GKE konfesional eta laikoak, koordinatuak eta konpetitiboak, ezkerrekoak zein eskuinekoak, eurozentriko eta neokolonialak, edo iraultzaileak, garapen inguruko gaietan murgiltzen direnak eta beste asuntuetara (ekologia, feminismoa, IHES, antimilitarismoa,...) dedikatzen direnak topa daitezke.

16. WHAL. P.(1995), “A Job for Sisiphus? Building an international NGO movement”, Northern Lights, Amsterdam. Gaztelaniazko itzulpena Hika-n.

Aurrera Begira

Aspaldiko partez, ezkerreko GGKEen artean, erakunde hauen zereginaz eta nortasunaz ezbaia zabalik daukagu. Batzuen ustez purismo ideologiaz aldentuz eta dagoen heterogeneitatea kontuan hartuz, hoberena errealitate praktikora jotzea litzateke, ekintzetara; filosofietan ez galtzea¹⁷. Ekintzak aztertu eta ideologiakeriak ahantzi.

Beste zenbait autorek, J. Petras-ek eta G. Buster-ek adibidez¹⁸, GGKE eta neoliberalismoaren gorakadan oso lotura trinkoa ikusten dute eta fenomeno paralelo hori azpimarratuz, ezkerren jokamolde alternatiboa jorratzeko perspetibak ireki nahi dituzte. Ni azken honetan apuntatzen naiz.

Dirudienez, neoliberalismoaren garaian estatu eta gizarte zibilaren arteko lehiak kontraesan nagusietariko bat gauzatzen du. Baina kontuz, gizarte zibila ez da *corpus* homoginoa; eliteak eta sektore boteretsuak daude eta, bestetik, gero eta pobre eta marjinatu gehiago.

Neoliberalismoaren bultzadaz, estatuak gastu sozialak gutxitzen dituenean eta Iparretik Hegoaldera gero eta laguntza ekonomiko gutxiago bidaltzen ari den unean, egoera sozial, ekonomiko edo ekologikoa okertzen ari da, nahiz eta GGKEen kopurua igo (1990ean 22.334 zeuden munduan) eta beren aurrekontuak inoiz baino handiagoak izan.

Hegoaren Sareko lagunek esaten zutenaren arabera, ez dugu GGKEen garrantzi koiunturalekin gure burua nahastu behar herri mugimenduen funtzio eta betebeharrekin norgehiagokan sartuz.

Korrante neoliberaletatik ezer ikasteko badago, hori *statu quo*-aren kritika erradikalean tinko irautea litzateke. Ez legoke txarto P. Anderson-en gomendioak medizina moduan probatzea neoliberalismoaren atzaparretatik ihes egin ahal izateko. Ezkerren baloreetan tinko sinestea, hau da, berdintasuna eta ongizate-gizarte eta estatua errebindikatzea. Honekin batera, herri-jabego eta jabego komunal berrien bidetik eta demokraziaren exigentziaz neoliberalismoari aurrea eman dakioke, neosozialismoaren printzipio sendoak errebindikatuz.

Eta azkenik, perspektiba historikoa hartuz, ez dugu zertan pentsatu gaurko inertziak eta instituzio boteretsuak betierekoak direnik; oraindik, historia amaitu gabe baitago.

17. MARKIEGI, I. (1997), "¿ONGs y Ayuda Humanitaria? Obras son amores" Hika 79-80 zbka. Bilbo-Donostia.

18. Arestian aipatutako idazlanetan.

BIBLIOGRAFIA

- ANDERSON, P.(1996), “*Balance y perspectivas del Neoliberalismo*”, El Rodaballo. 3. zbka., Buenos Aires.
- BARCENA & IBARRA & ZUBIAGA. (1996),” *Nacionalismo y ecología. Conflicto e institucionalización del Movimiento Ecologista Vasco*”, Libros de la Catara, Madril.
- BUSTER, G.(1995), “*El Leviathan humanitario*” *¿O eNe Qué?*, Viento Sur 23. zbka., Madril.
- CHOMSKY, N. (1994), “*Clinton Doktrina*”, Hika, 45. zbka., Bilbo-Donostia.
- CHOMSKY, N. & DIETERICH, H. (1997), “*La Aldea Global*”, Txalaparta, Nafarroa.
- FUKUYAMA, F. (1992), “*El fin de la Historia y el último hombre*”, Planeta, Bartzelona.
- GALTUNG, J. (1984), “*Hay alternativas. 4 caminos hacia la paz y la seguridad*”, Tecnos, Madril.
- GOMEZ GIL,C. (1995), “*De los incuestionables apoyos a los desafíos sin respuesta*” *¿O eNe Qué?*, Viento Sur 23. zbka., Madril.
- GONZALEZ PARADA, J.R. eta beste. (1995), “*La función de las ONGs en la ayuda al desarrollo*”, Hiru, Gipuzkoa.
- MARKIEGI, I. (1997), “*¿ONGs y Ayuda Humanitaria? Obras son amores*”, Hika 79-80 zbka., Bilbo-Donostia.
- PETRAS, J. (1996), “*El posmarxismo rampante. una crítica de las ONG-s y los intelectuales*”, Excelsior, Mexico.
- RAMONET, I. (1995-I), “*La pensée unique*” in *Le Monde Diplomatique*, Paris.
- RAMONET, I. (1996), “*Un mundo sin rumbo. Dinámicas y peligros de la mundialización*”, Hika, 71. zbka., Bilbo-Donostia.
- RAVENTOS, D. (1992), “*Qué és el neoliberalisme?*”, Demá, Bartzelona.
- UDRY, C. A. (1996), “*F. van Hayek, l’apôtre du neoliberalisme*”, PAGE 2, Ginebra.
- WHAL. P.(1995), “*A Job for Sisiphus? Building an international NGO movement*”, Northern Lights, Amsterdam. Gaztelaniazko itzulpena Hika-n.

6. Herri-mugimenduak alternatiba sortu nahian: zapatismoaren haize berriak

Zesar Martinez

UPV/EHUko irakaslea eta UEUKidea

“Haiek asko irakatsi digute. Baldintza txarrenetan ere neoliberalismoari aurre egitea posiblea dela irakatsi digute. Zer ikasteko gai garen ikusteke dago.”

Txiapasekiko Elkartasunerako Taldeko Kide batek

SARRERA

Azken urteetan aldiro-aldiro izaten dugu Mexikoko gorabehera soziopolitikoaren berri. Indigena zapatistek “Aski da!” oihu egin zutenetik, askok Txiapasa begira jarri gara. Izan ere, Mexikon, mundu-mailan gertatzen ari diren liberalizazio- eta globalizazio-prozesuak eta, batez ere, horien ondorio sozialek, bazterrak nahastu baitituzte. Eredu paradigmaticoa izan daitekeelakoan, goazen, bada, modu laburtu eta mugatuan, Mexikoko prozesuaren eta gorabehera horien berri ematera.

Lehenik eta behin, herrialde horren historia hurbilean garrantzi handiko pasarte batzuk aipatuko ditugu; oso aipamen sinplea egingo badugu ere, ezinbestekoa iruditzen zaigu aipamen hori egitea, interesatzen zaizkigun egungo fenomenoak uler ahal izateko. Hau eginda, mugimendu politiko zapatista zein baldintzetan sortu zen aztertuko dugu eta, horrekin batera, zapatismoaren proposamen politiko eta estrategiko berritzaileak zein diren. Azkenik, zapatisten aldarrikapen eta proposamenen aurrean Mexikoko gobernu eta, oro har, geopolitika neoliberalak nolako erantzuna ematen ari den aztertuko dugu.

LIBERALIZAZIOA, LURRAREN ESKUBIDEA ETA MATXINADA ZAPATISTA

Herri mexikarrak tradizio luzea dauka matxinada eta borroka sozialetan. Pelikulen bidez behin eta berriz ikusi dugunez, 1910etik 1921era doan aldian Zapata, Villa, Carranza edo Huerta iraultzaileek —borrokak, itunak eta saldukeriak tartean zirela— **Iraultza Mexikarra** gauzatu zuten. Horrela, hogeiko hamarkadan, Alvaro Obregón presidentek, herrialdearen sektore guztien integrazioa bilatuz, 1917ko konstituzio moderno eta aurrerakoia garatzeari ekin zion. Nekazaritzaren eraldaketa garapen horren elementu garrantzitsuenetariko bat izan zen, latifun-

dioen debekua ezarri eta lurzoru txikien jabegoa ahalbidetu baitzuen. Prozedura motel eta burokratikoaren bidez abian jarri ziren lur banaketak eta itzultzeak, ez zuten atzera bueltarik izan 1992ra arte. Urte horretan, ordea, Salinas de Gortari presidenteak konstituzioaren 27. artikulua aldatu baitzuen EEBBekin eta Kanadarekin sinatzeaz zegoen Merkataritza Librerako Hitzarmena prestatzeko. Konstituzio-aldaketa horrek, merkatuaren liberalizaziorako ezinbesteko urrats gisa, “banaketa agrario” historikoaren amaiera ezarri zuen eta sarbidea eman zien multinazionalari, sektore agro-esportatzailearen multinazionalari. Modu horretan, Mexikoko gobernuak, Munduko Moneta Fondoaren aholkupean, 1976tik bideratzen zituzten politika neoliberalak goia jo zuten.

Izan ere, laurogeiko hamarkadan eta 1994ra arte, Mexiko eredugarria izan zen kontinentearen herrialde pobreetzat: garapen eta aurrerapenaren bidean hartu beharreko isplua zen. Munduko Bankua eta Munduko Moneta-Fondoaren politika neoliberalari men egiteagatik Mexikori buruz zabaldu zen irudia, hazkunde ekonomikoa, modernizazioa eta Lehenengo Munduko herrialdeen artean sartzea lortu zuen herrialdearena zen. Errealitateak, ordea, beti bezain temati, faltsukeria eta itxurakeria agertarazi zituen. Zapatisten altxamendua zela medio, Mexikoko errealitatearen irudi osatuago bat jaso genuen mundu osoan; hain zuzen ere, neoliberalismoaren beste aurpegia, alde iluna, telebistan agertzen ez dena, baina munduko biztanle gehienentzat errealitate gordina dena.

Beraz, azken hamarkadetan, Mexiko neoliberalismoaren laborategietariko bat dela esan genezake: pribatizazioak, gastu publikoaren murrizketa, multinazionalen barneratze basatia, lan-baldintzen prekarizazioa, lurraren liberalizazioa, merkataritzaren liberalizazioa¹... Ondorioz, egoera soziala gaiztotzen ari da etengabe: 1997an nekazaritza-arloko biztanlegoaren %85 muturreko pobrezia-egoeran bizi da; horrek adierazten digunez, 1994an Merkataritza Librerako Hitzarmena sinatu zenetik, %20koa izan da pobrezia-igoera².

Gauzak horrela, Mexiko osoan, Txiapasko kasuaz gain, nekazari xumeek pairatzen duten miseriarekin batera, aintzakotzat hartu beharreko berezko elementu batzuk azaltzen zaizkigu: Txiapako oligarkia ekonomiko eta politikoak, kolonialis-

1. EEBBeko 400 multinazional handienetarikoen muntaketa-lantegiak (“makilak edo makiladorak”) daukate Mexikoko muga osoan zehar. Esklabutza-garaiko soldatek eta lan-baldintzek (langileek, gehienak emakumeak, batezbeste 150 pta. orduko baino gutxiago jasotzen dute) mila miloi dolarretako irabaziak sortarazten dituzte.

Beste datu esanguratsu bat, “Forbes” aldizkari estatubatuarrek urtero argitaratzen du biloidunen zerrenda (patrimonioan mila miloi dolar baino gehiago daukaten pertsonen zerrenda). 1987an 145 ziren kopuru hori baino gehiago zeukatenak, 1994an 358 ziren, %250ko hazkundera. Ikaragarria bada pentsatzea 358 pertsona horiek munduko biztanlegoaren %45ek bezainbeste diru daukatela, hau da, 2.600 milioi bizilagunek bezainbeste daukatela, harrigarriagoa da oraindik jakitea, “Klub” horretan sartu berri diren artean mexikar asko daudela. Neoliberalismoaren efektu nagusia, beraz, banaketa deusezteia eta kontzentrazioa areagotzea dugu.

2. Mexikoko gobernuaren datuak James Petras-ek aipatuak. Ikus. “El nuevo imperialismo” El Mundo egunkaria. 1998ko martxoaren 2an. 4-5. orr.

mo espaniarraren garaitik eratortzen den tradizioari jarraituz, kazikismoari eusten dio, hots, jauntxo iruzurrazaleak dira. Elite pribilegiatu horrek bortxa du bide beren nagusitasun tiranikoari eusteko: sarraski indiskriminatuak, desagerpenak, emakume indigenen esterilizazioa, erahilketak, indar armatu pribatuak (“Guardias Blancas”), etab. Mendebaldeko potentzia inperialistek eta beren elite kolaboratzaileek gizakiak, kulturak eta herriak desagertarazteko erakutsi duten krudeltasunak aurrera darrai, eta Txiapasen kolonialismo zaharrak bizirik dirau³.

Mende hasierako iraultzari esker eta 1917ko konstituzioari esker, Txiapasen egin ziren lur-banaketak mugatuak izan ziren; baina geroago, 40ko hamarkadan lortu ziren lur-banaketen bidez, nekazaritzarako luraren %50, 2.000 “ejido” eta komunitateren esku geratu zen. Dena den, gaur egun oraindik, lurzorurik hoberenak 20 familiaren esku daude; abeltzaintzarako eta kakao, kafe eta platanorako hazien-dak dira. Txiapasen miloi bat inguru indigena daude (biztanlegoaren %30) Maiak dira: tzotzil, tzeltal, chol, mames, zoques, lacandones eta tojolabal-ak. Etnia hauek pairatu duten zapalketa eta bereizkeria oso gogorra izan da, eta neurri handi batean, oraindik ere bada. Indigena askorentzat, haziendetan lan egitea izan da bizimodua ateratzeko bide bakarra; baina lan-baldintzak kolonialak dira. Beraien “ejido” eta komunitateetan lan egiten dutenek, zailtasun handiak dituzte produktuak saltzeko, garraioa, komertzializazioa, kredituak eta bestelakoak jauntxoen kontrolpean baitaude. Izan ere, 60 eta 70eko hamarkadetatik aurrera nekazari-elkarteen aldarrikapen eta eskaerak ugariak dira, baina horien inguruan egiten diren mobilizazio, okupazio eta plantoek, behin eta berriz, erantzun modura errepresio bortitza jaso dute.

Arestian aipatu dugunez, 80ko eta 90eko hamarkadetako politika neoliberalak larriagotu egin du nekazarien egoera. Laguntzak, kredituak eta prezio bermatuak desagertuz joan ziren, 1989an kafearen prezioak beherakada nabarmena izan zuen eta, azkenik, 1992ko nekazaritza-lege berriak konstituzioaren 27. artikulua aldatuta ezarri zuen. Horrek, aipatu bezala, luraren liberalizazioa eta “banaketa agrarioaren” amaiera ekarri zuen. Nekazari-elkarte baten bozeramailearen hitzetan:

“oso denbora laburrean, gure lorpen historiko preziatuena deuseztu dute: lurra-
ren eskubidea. (...) sektorearen errentagarritasuna ez da gutxitu gure lanagatik edo
gure guraso eta aiton-amonen lanagatik, bertikalismo, burokrazia, iruzur eta ezgaita-
sun politikoagatik baizik. Lurraren jabego komunala ere ez da gutxi batzuentzat
aberastasuna eta gehiengoentzat pobrezia sortarazi duena; Nazioarteko Moneta-
-Fondoak eta Munduko Bankuak Latinoamerika osoan inposatu duten eredu
neoliberalak eragin ditu efektu horiek.(...) Merkataritza Librerako Hitzarmenak
(MLH) aukerarik gabe uzten du gure nekazaritza”⁴.

3. “México 1994: el reclamo indígena en tiempos de globalización” Rodolfo Stavenhagen. *Proceso* aldizkaria. 905. zbk. Mexiko 1994ko martxoaren 7an. 12. orr.

4. “Las políticas del sexenio fatales para el campo: campesinos e indígenas de todo el país apoyan las demandas del EZLN y marchan hacia la capital”. *Proceso* aldizkaria. Mexiko. 910 zbk. 1994ko apirilaren 11n.

Gauzak horrela, 1994ko urtarrilaren lehenean, EEBBekin eta Kanadarekin sinatutako hitzarmena indarrean jarri zen egun berean, komunitate zapatistek agin-dua eman zioten Askapen Nazionalerako Armada Zapatistari (EZLN) gobernu eta ejertzitoaren kontrako gerra hasteko. Baina altxamendu horren hasiera ulertzeko, orain arte deskribatu ditugun gertaera baldintzatzaileak aipatzeaz gain, beharrezkoa da, halaber, azken hamarkadetan Txiapasko hainbat komunitatetan eman diren barne-antolaketa prozesuak aintzakotzat hartzea. Azalekoa bada ere, egin dezagun deskribapen minimo bat.

Nekazari eta komunitate indigenen antolakuntzan nabarmentzekoa da Elizaren papera; protestante, ebanjelista, katoliko eta bestelako sekten arteko kompetentzia-testuinguru batean, eliza katolikoak —indigenen artean hedatuena— kontuan hartu ditu komunitateen beharrezko sozio-ekonomikoak. Kontzientzia eta egintza politikoa suspertuz, emantzipazio indigenaren prozesua bultzatu du. Txiapasko gotzaintza eta elizbarrutiak barne-komunitateko eta komunitateen arteko dinamika laguntzen du, bere zeregin ebanjelizatzaileak herri indigenetan errotutako eliza sortzea bilatzen baitu. Pobreen babesa injustiziaren kontrako borrokarekin lotuz, aldarrikapen kulturala zein hezkuntza, osasuna, giza eskubideak edo auzi sozio-ekonomikoak lantzen ditu. Elizaren eraginez komunitateen arteko erakundeak sortzen dira horien artean, hala nola lider eta ekintzaile berriak, geroago mugimendu zapatistan parte hartu dutenak⁵.


Hortaz, elkarte eta erakunde ezberdinekin (Unión de Ejidos, Unión de Uniones Ejidales, ARIC, ANCIEZ, UNORCA, FOSCH,...) nekazaritzaren inguruko herri-mugimendua abian dago Txiapasen 70eko hamarkadatik aurrera. Arazo eta gorabehera askorekin, behin eta berriz, sistema politiko lokalean, mugimendu nekazariak ateak itxita aurkituko ditu; ez zegoen interes eta aldarrikapen legitimoak eztabaidatzerik, are gutxiago, negoziatzeko aukerarik.

Honela, ba, 1983an Mexikoko ezker iraultzailearen erakunde batek, Frente de Liberación Nacional-ak, FLN izenekoak hain zuzen, zelula moduko talde bat kokatu zuen Lakandona oihanean, Txiapasko hego-ekialdean. Urte berean, bertako indigena batzuekin batera EZLNa sortu zuten. EZLNa eta komunitate indigenen arteko harremanak sendotu egin dira mugimendu nekazaria ahulduz eta sakabana-tuz joan den neurrian, miseria eta izurriteak hedatu diren neurrian, eta errepresioa zein liderren kooptazioa handitu den neurrian.

Mugimendu zapatistak oinarri soziala aurkitu du lotura tradizionalak hautsi dituzten komunitateen artean; zeren zenbait komunitatetan sektore tradizionalistek boterea eta lurra monopolizatzen baitute, esku-lana eta merkataritza kontrolatuz, eta jauntxoaren sistema berregin baitute oligarkiaren eta botere politikoaren sinpatia bereganatuz. Horrela, 80ko hamarkadan autoritate indigena tradizionalak 20.000

5. "La originalidad del movimiento zapatista". German. Pake eta Elkartasunerako Fundazioa, eta Txiapasekiko Elkartasunerako Taldea. Argitalpen mugatua. 8. or.

lagun inguru bota zituzten beren lurzoruetatik⁶, eta horrek migrazio korrante bat sortu zuen Lakandonarantz eta oihanera doazen haranetarantz (Las Cañadas). Haustura horretan arrazoi erlijiosoak, ekonomikoak eta politikoak korapilatzen dira, baina interesatzen zaiguna, honako hau da, alegia, sortuko diren komunitate berrietan askatu egiten direla komunitate tradizionalen barneko loturetatik (karguen eta “printzipal”en sistema politiko-erlijioso, chamanak, ospakizun komunitarioak eta baita alkohola), eta komunitatetik kanpo dauden loturetatik ere (esku-lanaren kontratistak, haziendak, garraiolariak eta jauntxoak)⁷.



Iturria: *El sueño zapatista*. Ibon Le Bot.

Komunitate berrietan dinamika berria sortu zuten, beren kultura abiapuntutzat hartuta, eta kanpoko eragile batzuen laguntzarekin (elizakideak eta gobernu kanpoko erakundeak) antolaketa-modu, adierazpen kultural eta nortasun kolektibo propioa sortu zituzten. Lurzoru berriak hartuz, abeltzaintza eta landaketa komertzialak egin dituzte eta autonomia maila garrantzitsua lortu dute⁸. Gobernuaren

6. Ibidem, 7. or.

7. Le Bot, I. *El sueño Zapatista*. Anagrama. Barcelona, 1997an. 38. or.

8. Autonomia eta autogestio horren adibide argi bat: 1989an, Ibarra herrian, 1.500 zapatista mobilizatu ziren ospital bat eraikitzeko. Ikus. “Resumen Latinoamericano” egunkaria. 21 zbk. Urtarrila/otsaila. 1996. 5. or.

politika ekonomikoak komunitateetan lortutako guztia arriskuan jartzen duenean, komunitateak EZLNarekin batuko dira autodefentsa eta erantzuna antolatzen. Beraz, mugimendu zapatistaren sorrera aztertzen duen orduan, kontuan hartu beharrekoak dira elkarlotzen diren elementu ezberdin batzuk: kontestu lokalean, sistema politiko itxi eta errepresibo bat aurkitzen dugu eta, horrekin lotuta, indigenek mendez mende jasan duten bazterketa eta biolentzia (soziala, ekonomikoa eta politikoa).

Neoliberalizazioaren ondorioz bizinahiari eusteko baldintza minimoak ere arriskuan jartzen direnean, hau da, “ejido”en lur komunitarioak galtzeko arriskua gertuagotu egiten denean, konstituzioaren 27. artikulua aldaketa pizgarria izan zen matxinada abian jartzeko: jauntxokeriarekiko izandako morrontza atzean utzita eta beren kulturaren elementu tradizionalista eta milenaristak gauditurik, sendo errotuta zegoen nortasun kolektiboak gaitasuna izan du aktore kolektibo bihurtzeko eta protagonismo historikoa bereganatzeko.

Ibon Le Bot-en ustez, beste hainbat altxamendurekin gertatu den moduan, honetan ere ez dira izan sektorerik pobreenak eta tradizionalenak mobilizatu direnak. Txiapasen, miseriatik eta hondamen kulturalaren prozesutik esfortzu handiz atera zirenak⁹ altxatu ziren etorkizunaren defentsan.

Orain arte aipatu ditugun elementuak eta prozesuak merezi duten arretarekin aztertuko bagenu, askoz orri gehiago idatzi beharko genituzke. Mugak muga, azpimarratu nahi izan duguna hauxe izan da, hots, politika neoliberalak bultzatzen duen erabateko liberalizazio eta konpetibitateak azken hamarkadetan lortutako zenbait eskubide historiko erasotzen dituela¹⁰, eta Txiapasen, barne-antolaketa sendoa eta sormen politiko harrigarria erakutsi duen mugimendu batek erantzuteko gaitasuna izan duela, modu berritzaile eta ikusgarrian. Ikus ditzagun, orain, erantzun horren nondik-norakoak.

GERRILLA ATIPIKOA, GERRILLA POSTMODERNOA, INTERNET BIDEZKO GUERRILLA INFORMATIBOA: XXI. MENDEKO MUGIMENDU IRAULTZAILEA?

Komunitate indigena eta hasierako EZLNaren artean topaketa kultural bitxia gertatu zen, Marcos-en hitzetan “*indigenen hizkuntza ikasi behar izan genuen, baina hizkuntza baino gehiago zen: lengoaiaren erabilera, sinboloak, gauza bakoitzak irudikatzen duena, komunikazioaren sinbolo bakoitzaren esangura, etab. Haiek jaso zuten guk geneukan ikusmolde historiko eta politikoa, baina itzultzaileek ikusmolde berri bat sortu zuten, haiek dira zapatismoaren sortzaileak, mundua*

9. Ibidem, 56. or.

10. “*Neoliberalismoaren errore nagusia da historiaren kontra joan daitekeela pentsatzea. Lurraren aferean egin duen eskuhartzeak alde batera uzten du historia, hemen ezer egongo ez balitz bezala, ez historiari, ez kulturari, ezer ez. (...) Lurraren arazoan neoliberalismoak lortu duen bakarra indigenak armak hartzea izan da*”. “La originalidad del movimiento zapatista”. German. Pake eta Elkartasunerako Fundazioa, eta Txiapasekiko Elkartasunerako Taldea. Argitalpen mugatua. 12. or.

ikusteko modu berri bat sortu zuten.(...) Eraldaketa politikoa, mundu justu baten ideia eta sozialismoaren lerro nagusiak gizabidearen elementu etiko eta moralekin aberastu zituzten. Horrela, bat-batean, iraultza zerbait etiko bihurtzen da; aberastasunaren banaketa edo ekoizpenerako baliabideen desjabetzea baino, gizakia duintasun-gune izateko aukera da iraultza. Duintasuna giltzarri bihurtzen da, iraultza duintasunaren babeslea da, berarekiko errespetua zaintzen duena”¹¹. Horrela, hasierako EZLNa aldatuz joan da, abangoardia iraultzailearen ejertzitua izatetik komunitate indigenen ejertzitua izatera dagoen iraganbidea eginez: tradizio marxista-leninistan zegoen erakunde armatuak topo egin zuen azaldu ezin zuen errealitate batekin, hots, mundu indigena eta nekazariarekin. Erantzun guztiak izatetik, ikastera pasatu behar izan du, eta hori onartzeak, bizirik irautea eta haztea ekarri dio. EZLNa indigenen erresistentzia-mugimenduaren elementu bat gehiago bihurtu da, komunitateen agindupean geratuz da.¹²

Izan ere, Zapatistek, ezkerreko pentsamolde marxista-leninista eta kultura indigenen gizatasuna eta komunitarismoa uztartuz, oso konfluentzia emankorra lortu dute, mundu-mailan erreferente bihurtu dena. Hiru ardatz nagusi ditu pentsamendu berritzaile horrek:

Demokrazia

“Agintzen duena obeditzen agintzea”. EZLNkoek ez dute botere politikoa eskuratu nahi, kultura politiko berria proposatzen dute, oinarrian boterearen filosofia berria daukana: irauli behar dena ez da botere politikoaren jabetza, boteredunen eta boteregabekoen arteko erlazioa baizik. Boteredunek obeditu egin behar dute, hau da, boteregabekoen aginduetara egon behar dute. Herritarren partaidetzak bermatu behar du gobernuburuaren kontrola; partaidetzaren bidez lortuko da, beraz, agintea herritarren esanetara egotea. Zapatisten praktika politikoaren helburua ez da boterea eskuratzea gizartearen antolatzea baizik. Oso proposamen irekia eta oro-hartzailea da. *“Pentsamendu diferenteen arteko adostasun ona lortzea da demokrazia. Ez da guztiak berdin pentsatzea, baizik eta pentsamendu guztiak adostasun bat bilatzea eta sortzea, gutxienak baztertu barik gehienentzat ona izango den adostasun komun bat lortzea. Agintearen hitzak gehienek hitza obedi dezala; agintearen makila hitz kolektiboa izatea eta ez borondate bakarra”*.¹³

11. Ibidem, 128-9. orr.

12. *“Ikasi dugu hitz egiten eta entzuten, inor baztertu barik aurrera egiten, pentsamendu eta maila ezberdinak errespetatzen, geure ideiak ez inposatzen eta historiari obedientzia ez ezartzen, baina guztiak gainetik geure erroreak aitortzen eta zuzentzen ikasi dugu.(...) Erroreak aitortzeak ez gaitu txikiagoak egiten eta geure akatsez hitz egiteak ez dituzte geure hitzak zikintzen. (...) Herrialde sozialistetan zegoen pentsakerak —nire kontra dagoena arerioaren alde dago— kritikak onartzea eragozten zuen, horrela erroreak eta akatsak handituz joan ziren, dena usteldu arte. Guk ikasi duguna ondokoa da, hots, edozein sistema politikok, bizirik irautea bilatzen badu, babes soziala behar duela, gizartearekin uztartzea lortu behar du eta kritikak modu irekian jaso behar ditu”*. “La originalidad del movimiento zapatista”. German. Pake eta Elkartasunerako Fundazioa, eta Txiapasekiko Elkartasunerako Taldea. Argitalpen mugatua. 10-11. orr.

13. Ibidem, 20-21. orr.

Askatasuna

“*Erantzukizunez jokatzea, geure bizitzaren gobernu berreskuratzea*”. EZLNekoek beste politika-eredu bat proposatzen dute, ezagutzen dugunarekin zerikusi handirik ez daukana. Gizakiok gauzak aldatzeko daukagun gaitasuna erabiltzea da politikaren sakoneko esanahia; horrela, politika egitea soberania pertsonala eta komunitarioa berreskuratzea da. Demokrazia errepresentatiboek boterearen kontzentrazioa hobesten dute, erabakitze ahalmena gutxi batzuen esku egotea, eliteen esku egotea. Soberania pertsonala eskuratu behar dugu, partaidetzarako esparru berriak sortuz, sare organizatiboak eratuz. Horixe da beharrezkoa den iraultza, Iraultza gauzatu ahal izateko.

Justizia

“*Dena denontzat izatea*”. Gizarte modernoaren balore eta pentsamolde nagusia jokaera instrumentala eta utilitarista da: etekinak ateratzea, gehiago pilotzea, zerbaiten truke ez bada ezer ez ematea. Jokamolde horren arabera nagusitzen dena, lehia eta indartsuenaren legea da, eta horrek lehiakorrak ez direnentzat edo lehian aritzeko aukera berdinak ez dituztenentzat marginazioa dakar. Zapatistak horren kontra altxatu ziren; horregatik esaten digute “dena denontzat, guretzat ezer ez”.

Hiru ardatz horiez gain, estrategia komunikatiboa da zapatisten mundu-mailako oihartzuna ulertzeko beste funtsezko elementu bat. Analista batzuen iritziz, 1994ko altxamendua gertaera mediatiko antzera prestatu zuten, egin nahi zuten iragarpena egiteko: “Gaur aski da esaten dugu”. Gerra ez zen, ordea, benetako estrategia. Armak erabili zituzten aldarrikapenak aurkezteko, baina, erailtzeko eta hiltzeko prest zeudela ukatu barik (dozena hildako baino gehiago izan zuten), ez dirudi beren apustua gerra luzea eta odoltsua zenik.¹⁴

Beste aldetik, ezohikoa da zapatistek Mexikoko gizartearekin eta mundu osoarekin komunikatzeko erakutsi duten trebetasuna: internet, posta elektronikoa, bideoak... Munduko bazter bateko oihan menditsuan egonda, ez dute inongo arazorik izan beren mezuak eta aldarrikapenak plazaratzeko. Horri esker lortu zuten, agertu bezain pronto, elkartasun-taldearen sare bat hedatzea mundu-mailan, zapatisten diskurtsoa gizarteratzen duena eta, bake-kanpamenduen bidez, nolabaiteko babesa ematen diena.

Marcos komandanteordeak erakusten duen maila literarioa, irudimena eta umorea piper eta gatza dira EZLNaren estrategia komunikatiboan. Batzuen ustez, intelektual moduan, erronka serioa bihurtu da “munduko intelligentsia”rentzat; indigenen bizimodu gogorra eta xumea eramanez, bere goi-mailako prestakuntza

14. Ikus. *La era de la información: economía, sociedad y cultura*. 2. liburukia *El poder de la identidad*. Manuel Castells. Alianza. Madril, 1998. 101. or.

eta ezagutza politiko zein literarioa praxi iraultzailearekin elkarlotu baititu mundu-mailan proiektatu den fenomeno batean.¹⁵

Pentsamendu zapatistaren berri ematen jarraitzeko, EZLNaren ibilbidean garrantzi handikoa den beste pasarte bat aipatu behar dugu. Indigenekin izandako topaketaren ondorioz, erakunde armatuak 1988-1993 urteen tartean izan zuen ez-ustekoa eta norabide-aldaketa komunitate ez da bakarra izan. 1994ko agerpena egin zutenean, Mexikoko herriarengandik espero zutena axolagabekeria edo iraultza armatuarekin bat egitea zen. Erantzuna, ordea, ez zen bata ez bestea izan: milaka eta milaka lagun gerra geldiarazteko eta elkarrizketaren exigentzia egiteko mobilizatu ziren. Zapatistek, berriro ere, espero ez zuten zerbaitekin egin zuten topo. Askorentzat, 94ko urtarrilean gizarte zibilaren mobilizazio ikusgarri hura da benetan nobedosoia eta esanguratsua izan zena¹⁶. Errepresioaren kontra eta Giza Eskubideen alde irtenbide elkarrizketatua exigitzen duen mugimendu horrek indargabe utzi zuen iraultza armatuaren aukera. Horren aurrean, Zapatistek lehen izandako jarrera bera erakutsi zuten *“hemen zerbait berri dago, ez dakigu zer gertatzen den. Planeatuta zegoena ez da posible; ikusi eta ikasi egin behar dugu”*. Horrela, Berlingo harresia erori ostean azaltzen den lehenengo talde gerrilleroan argi antzematen da elementu berri bat, anti-abangoardismoa, hots, herriari bizkarra ez ematea abangoardiaren izenean; beren hitzetan: *“entzuten jakitea eta zabalik egotea”*. Mexikoko gizarte zibilak gerra gelditzea eskatzen zuen, armak isilaraztea eta politikari ekitea; eta zapatistek hala egin zuten.¹⁷

Hortik aurrera, San Cristobaleko katedralean hasita eta San Andrés de los Pobres-en jarraituta, elkarrizketa- eta negoziazio-bide zaila eta luzea hasi da. Armada Zapatistak bere diskurtso eta pentsamendu politikoa sortzeari ekin dio: tradizio ezberdinak bateratzea eta pentsamolde berritzailea sortzea dira pentsamendu politiko horren ezaugarriak nabarmenenak.

Zapatisten diskurtso eta praktika politikoak sinpatia ugari sortarazi dituzte mundu osoan, ilusio eta itzaropen berriak. Globalizazio neoliberalaren pentsamendu bakarra erabateko nagusitasuna erakusten ari zenean, historia gizakiok idazten dugula gogorarazteko erantzun sendo bezain sinesgarria azaldu da. Horrela, nahitahiezkoa zirudien/dirudien etorkizun globalizatu baten aurrean egintza kolektiboaren bidez zer esaterik eta zer aldatzerik bazegoela ikustaraztea ez da makala, “historiaren amaiera” ilusio neoliberal bat zela erakusten baitu¹⁸. Horri, dogmatis-

15. Ikus. “México: la revolución a la espera” James Petras. Rebelión, internet bidezko egunkaria. <http://www.eurosur.org/rebelion>.

16. Ikus. Rodolfo Stavenhagen *Proceso* aldizkarian. 905. zbk. 1994. 13. orr.

17. Tacho komandanteak: *“gu armak hartzeko prestatu ginen eta ez politika egiteko. Borrokarako prestatu ginen, erahiltzeko eta hiltzeko. 1994tik aurrera ikasi behar izan genuen politika egiten, politika-mota berri bat, bizitzaren aldeko politika. Mugimendu gerrillero gehienak boterea eskuratzeko borrokatu zuten, guk ez. Toki bat nahi dugu, besterik ez. Guretzako ezer ez, guztiontzat dana. Hori da gakoia”* Le Bot, I. *El sueño Zapatista*. Anagrama.artzelona, 1997. 204-205. orr.

18. Ikus. *La era de la información: economía, sociedad y cultura*. 2. liburukia *El poder de la identidad*. Manuel Castells. Alianza. Madril, 1998. 94-95. orr.

morik gabeko diskurtso erakargarria, hizkuntza berri baten indarra, komunikabideen erabilpen gaurkotua eta intelijentea, eta beren autoritate moralean oinarritzen den sinesgarritasun sendoa eransten badizkiogu, dudarik gabe, oso erakargarri bihurtu den mugimendu politiko baten aurrean gaude. Ikus ditzagun bere estiloaren beste ezaugarri batzuk:

Lehen aipatu dugun bezala, gizakiak munduan daukan erantzukizuna da abiapuntua. Gizakia planetaren elementu bat gehiago da, Naturaz baliatzen da jaiotzen denetik hil arte eta ez du bizitzaren jarraipena oztopatu behar. Lurrak bizitzeko bezainbeste ematen digu, inmorala da ustiatzea eta, neurri gabe, behar duguna baino gehiago pilatzea. “...gure idealak oso sinpleak dira eta, horrexegatik, oso handiak: herri honetako eta munduko gizon eta emakume guztientzat edozein gizakirentzat funtsezkoak diren hiru gauzak nahi ditugu, demokrazia, askatasuna eta justizia. Irudi lezake, komunikabideen joera arrunta da hau, hiru gauza horiek ez direla gauza bera Mexikoko hego-ekialdeko indigena batentzat eta europar batentzat. Baina gauza bera dira: gobernu on bat izateko eskubidea, besteentzat esklabutza ekarriko ez duen pentsatzeko eta jokatzeko modu bat izateko eskubidea, justua dena emateko eta jasotzeko eskubidea...”¹⁹

Zapatisten ustez, politika politikarien esku dagoen esparru itxi bihurtu da, gero eta gehiago ari da urruntzen herritarrengandik. Gizartea bide batetik doa eta estatua —sistema politikoa— beste batetik; bi errealitate daude: bata, politikarien errealitate birtuala, adierazle makro-ekonomikoekin eraikitzen dena (hazkunde-tasa gora, inflazioa behera, “dena ondo doa”), eta bestea, egunerokoa dena jende arruntarentzat, etengabe gaizkoatzen ari dena. Gizartea antolatu behar da, baina ez bakarrik gobernuari eskaerak egiteko, baizik eta horrez gain bere arazoak konponbidean jartzeko. Aldarrikapenak egin behar dira eta gobernuak bete egin behar ditu; baina gobernuak betetzen ez baditu, arazoei konponbiderik ematen ez badie, herri-ekimenez lan egin behar da irtenbide horiek abian jartzeko. Berriz ere, beren pentsamendu sinple bezain sakonarekin, Zapatistek aho-zabalik uzten gaituzte: “gizakiak gara eta amets egiteko gaitasuna daukagu, botereak ez du oraindik aurkitu ametsak hondatzeko behar duen arma. (...) krimena eta aberastasuna pilatzen dutenak, lehenengoarekin bigarrena bereganatzen dutenak, boterea pilatzen beldurra ere pilatzen dutela ahanzten dutenak, errealitatea ezeztatu nahi dute. Errealitatean gizakiak daude eta gizakien existentzia berez erronka bat da, jarraibide bihur daitekeen erronka. Guk, etorkizuna orainaldian sortzen den zerbait bezala ikusten dugunok, jende guztia hartuko duen etorkizuna lortu nahi dugunok, gu, existitzen garen gizakiok, erronka arriskutsua gara boterearentzat. Haiek ahanztura, hondamena eta heriotzaren bidez errealitatea ezeztatzen dute; guk, historia, sormena eta bizinahia indarrarekin, errealitatea eraiki nahi dugu.”²⁰

19. “Sobre el zapatismo” Txiapasekiko Elkartasunerako Taldea. Argitaratu gabea.

20. *Cuentos para una soledad desvelada*. Textos del subcomandante insurgente Marcos. Ekosol. Madril, 1997. 74-75. orr.

Herritarrek agindutako suetena onartu zuenetik, EZLNak gizarte zibilera zuzendu ditu bere ekimen politiko nagusiak: 1994ko abuztuan, Batzar Demokratiko Nazionala deitu zuen Lakandona oihanean. Herri-erakundeak, ezkerreko partiduak, intelektualak eta komunikabideak masiboki erantzun zioten deiari, baina proiektu politiko zehatzik ez zen lortu²¹. Horregatik, 1995ko maiatzean, EZLNak ekimen berri bat abiatu zuen, erreferendum bidez kontsulta eginez bere aldarrikapen nagusien inguruan eta indar politiko zibila bihurtzearen inguruan. Mexiko osoan bi miloi pertsonak baino gehiagok parte hartu eta gero, eta emaitzen ondorioz, 1996ko urtarrilean, Askapen Nazionalerako Fronte Zapatista (FZLN) sortzeko asmoa plazaratu zuten. Horiez gain, gizarte zibilera zuzendutako beste ekimen garrantzitsu batzuk honako hauek izan dira: Indigenen Topaketa Nazionala, Estatuaren Erreformatarako Foro Nazionala, Gizateriaren alde eta Neoliberalismoaren Kontrako Topaketa Kontinentalak, Gizateriaren alde eta Neoliberalismoaren Kontrako Topaketa Interkontinentalak, eta 1.111 ordezkari zapatistak Distrito Federalera egindako Martxa. Ekimen horiek guztiak helburu garbia izan dute:

“Bilatzen duguna, behar duguna eta nahi duguna hauxe da, partidurik eta organizaziorik gabe dagoen jendea ados jartzea, nahi dutena bilatzeko eta nahi ez dutena saihesteko. Eta gero antolaketa-moduak hartzea (aukeratzekotan zibilak eta bake-tsuak); antolaketa, ez boterea okupatzeko, boterea erabiltzeko baizik. Badakigu utopikoa eta ortodoxia gutxiokoa dela, baina holakoa da geure modua”.²²

Zapatistek behin eta berriz errepikatzen dute galdera asko dituztela eta erantzun gutxi: ez daukatela aplikatzeko moduko eskema politiko-ekonomikoa, ez daukatela erantzun prefabrikaturik. Gabezia hori apaltasun osoz onartzen dute eta, erantzun eta proposamenak sortzeko aproposa delakoan, elkarlanerako topaketak eta hausnarketa-guneak bultzatzen dituzte, beste ahots batzuk entzuteko eta ahots horiek beren artean entzun daitezkeen²³.

Topaketak, batzarrak, foroak..., ekintza-errepertorio berria da; elkarlana eta sormena eragitea helburu duena. Eztabaidarako topaketak antolatuz, zapatistek espazio berriak zabaldu nahi dituzte, antolatu-gabe daudenak erakartzeko eta antolatuta daudenak minimo batzuetan ados jartzeko. Hori eginez, presio demokratizatzaile garrantzitsua bultzatu nahi dute.

Zapatistek asko erabiltzen dute “*ez dakigu*” esamoldea, eta hori berria da. Aurretik, ezkerreko pentsamenduan gauza eta arazo guztietarako erantzun teoriko bat zegoen, eta horrek “garbitasun doktrinarioa” edo “dogmatismo ideologikoa”ren joera indartu zuen. Zapatistek joera hori saihestu nahi dute —eta ez da bakarra— eta aurkakotasunaren joera ere kritikoki ikusten dute; beraien ustez, sistema

21. Ikus. *Chiapas: El Despertar de la Esperanza*. Luis Condearena (Gepetto). Gakoa liburuak. Donostia, 1997an. 100-110. orr.

22. *Ibidem*. 143. or.

23. “*Entzuten dakiena handitu egiten da eta bere urratsak denboran zehar aurrera joatea lortzen du. Beste askoren urratsetan biderkatuz, urrun ailegatzea lortzen du*”. Askapen Nazionalerako Armada Zapatista. 1998ko urtarrileko komunikatua. <http://www.ezln.org>

sozialean eratuta dagoenaren kontrakoa bilatzeak ez du ziurtatzen zerbait berri eta alternatibo sortzea. Askotan, ideologia iraultzaileak “ispilu” efektua egin du, hau da, gauza bera eskaintzea baina alderantzizko itxurarekin: eskuinekoa ezkerrean, goikoa behean, zuria beltza, burgesiaren tokian proletarioak. Baina, azken finean, gauza bera²⁴.

EZLNkoek alde aurretik definitutako eskemetan baino, prozesuetan daukate itxaropena. Aldaketa erradikala bilatzen dute, baina bidean aurkitu eta sortu behar diren estrategien bidez. Beraien ikuspuntutik, eredu ekonomiko alternatiboa, adibidez, prozesu baten ondorioa izango da, eta ez abiapuntua²⁵. Ereduaren zain egongo dena, eredu ezean, ez da inoiz abiatuko.

Hortaz, beraien praktika politikoaren ardatza honako hau izango da, hots, partaidetzarako eta aniztasunerako espazioak zabaltzea, moral eta kultura politiko berri bat sortzeko, demokrazia partehartzailea bultzatzeko: “(...) *partaidetzaren bidez agintariak kontrolatzea, eta horrela agintzen duena obeditzen agintzea. (...) Aniztasuna sare moduko bat da, ideiak pasatzen dira eta adostuenak geratzen dira.*”²⁶

Ibon Le Bot-en iritziz, zapatisten asmoak ez dira gelditzen sistemaren eraldaketa lokalean, erregionalean edo nazionalean, boterearen piramidea hankaz gora jartzea eta kultura politikoaren birplanteamendua bilatzen baitute.

“Gure proposamen politikoa oso erradikala da eta horrexegatik proposamen politiko tradizional guztiek (eskuina, zentroa, ezkerria, eta alde bietako muturrekoak ere) kritikatu gaituzte. Erradikalitatea ematen diguna ez dira gure armak, proposatzen dugun praktika politikoa baizik; gizartea antolatzea bilatzen duen praktika politikoa, eta ez boterea eskuratzea”²⁷

Beraz, zapatisten ustez gaur egun politika iraultzailea egitea, mugimendu politiko zabala sortzea da, partaidetza anitza eta integratzailearen bidez soberania soziala eta indibiduala berreskuratzeko duena eta, anti-boterean oinarritutako praktika politikoaren bidez (agintzen duena obeditzen agintzea), “dena denontzat” gauzatuko duena.

Gauzak horrela, zapatistek baliogabetuta uzten dituzte orain arte erabilitako etiketa politiko asko; batzuen iritziz “erreformista armatuak” dira, beste batzuen

24. Ikus. *Cuentos para una soledad desvelada*. Textos del subcomandante insurgente Marcos. Ekosol. Madril, 1997. 52-53. orr.

25. “...*Ezin gara izan, eta ez dugu izan nahi batzuek espero dutena: irizpide guztien iturria, bide guztien abiapuntua, erantzun eta egia guztien jabeak. Ez dugu egingo*”. EZLNaren Batzorde Klandestino Indigena Iraultzailearen agurra Batzar Demokratiko Nazionalean bildu ziren erakunde eta mexikar guztiei.

26. “Detrás de nosotros estamos ustedes”. Sergio Rodríguez (FZLN). HIKA aldizkarian. 74. zbk. 1997ko urtarrila. 24. or.

27. *Cuentos para*148. or.

arabera “demokrata iraultzaileak”. Badirudi zapatistak definitzeko, batera erabili behar direla orain arte aurkakoak ziren terminoak: “ameslari errealistak” edo “erradikal pragmatikoak” (Le Bot, 80. or.). Berlingo harresia erori ostean azaldu den erakunde armatu honen aburuz, sinboloak armak baino garrantzitsuagoak dira eta komunikazioari indar-koerlazioari baino garrantzi handiagoa ematen diote. Beraien estrategia armatua da, baina biolentziarik gabeko estrategia armatua. Le Bot-en ustez, zapatistek sortarazi duten interesa eta sinpatia oso lotuta dago beren jarrera antimilitaristarekin eta pentsamendu politikoa berritzeko erakutsi duten ahalmenarekin: “*zapatisten indarra ez-biolentzian datza, sormen sinboliko eta politikoaren mesederako erabiltzen duten biolentzia eta ez-biolentziaren arteko dialektikan*”²⁸.

Dena den, mugimendu zapatistak definitu gabe uzten ditu gauza asko, eta hori da bere erakargarritasunaren beste elementu bat. Denbora pasatu ahala, ordea, nortasun zehatzagoa hartu beharko du eta bidegurutzea ez da batere erraza izango. Marcos-en hitzetan “*Denek esaten digute gehiago definitu behar garela, baina inork ez digu esaten nola edo, hobeto esanda, norantz. Gobernuak elkarriketan erakusten duen politikak adierazten digu ez dugula borroka politiko instituzionalean sartu behar; hori tranpan erortzea litzatekeela. Eta muturreko ezkerren politikak, talde armatuak dituenak, borroka armatuaren bidetik ez joateko adierazten digu. Lehenagoko jarrera eta planteamendu militarista horiek, orain berrartuak, ez dute inongo sostengu edo oihartzunik lortzen. Eskandalua besterik ez*”²⁹.

Marcos-en lerro horietan, zeharkako aipamena egiten zaio, 1996an Mexikoko Guerrero, Oaxaca eta beste estatu batzuetan agertu zen indar armatu berri bati, EPRa (Herri-Armada Iraultzailea). Bi erakundeek, EZLN eta EPR, elkarrekiko errespetua erakutsi dute, baina zapatistek distantziak markatu dituzte “*...ezberdinak gara, geure diskurtso eta praktika politikoan nabarmena da erabat ezberdinak diren proposamen politikoak defenditzen ditugula. Zuen agerpenari esker, jende gehiagok ulertuko du, guk bide berria eta erradikala urratu nahi dugula. (...) Zuek boterea hartzeko borrokatzen duzue. Guk demokrazia, askatasuna eta justiziaren alde borrokatzen dugu. Ez da gauza bera. Nahiz eta zuek arrakasta izan eta boterea zeuenganatu, zapatistak demokrazia, askatasuna eta justiziaren alde borrokatzen egongo gara. Ez du axola boterean nor egongo den, zapatistak, demokrazia, askatasuna eta justiziaren alde borrokatzen egongo dira*”³⁰.

28. Ibidem, 100-101. orr.

Aipaturiko jarrera antimilitarista, gizarte zibilari zuzendutako diskurtso-zati honetan adierazten dute argi: “*...Borrokatu. Borroka ezazue atsedetik gabe. Borrokatu eta gobernuari irabazi, borrokatu eta guri irabazi. Demokrazia eta justiziarako trantsizio baketsuak irabazten badu, gure porrota porrot gozoa izango baita...*” Batzorde Klandestino Indigena Iraultzailea-ren agurra Batzar Demokratiko Nazionalean bildu ziren erakunde eta mexikar guztiei.

29. “La originalidad del movimiento zapatista”. German. Pake eta Elkartasunerako Fundazioa, eta Txiapasekiko Elkartasunerako Taldea. Argitalpen mugatua. 22. or.

30. Marcos-ek EPRi zuzendutako komunikatua. Ikus. *Chiapas: El Despertar de la Esperanza*. Luis Condearena (Gepetto). Gakoa liburuak. Donostia, 1997an. 254-255. orr.

EPRa agertu zenetik, eztabaida interesgarria planteatu da Mexikon borroka armatuaren inguruan. Ikuspegi zapatistatik oso ulergarria da jendeak, miseria eta despotismo politikoaren aurrean, armak hartzea. Elkarrizketarako eta politikarako espazioak egongo ez diren bitartean, armek beren funtzioa dute; baina hori gauza bat da, eta praktika politikoa militarizatzea beste bat.

Zenbaiten ustez, Mexikoko gobernuak 100 EPR nahiago ditu EZLN bakar bat baino, gobernuak beste bideetatik lortzen ez duen zilegitasuna eta batasuna aurkari militar baten kontrako borrokan lortzen baitu. Ikuspuntu horretatik, gobernu errepresiboari ondo datorkie aurkari politikoak bere praktika militarizatzea, horrela eszenatoki aproposagoa baitute sakoneko gatazka ezkatatzeko —despolitizatze—, errepresioaren zilegitasuna defendatzeko eta gizarte-antolaketa historikoa desegiteko. Gainera, eskaera soziopolitikoak logika militarren esku uzteak kostu handia dauka erakunde armatu “fokalista” edo “abangoardistentzat”: gerra zikinaren prezioa ordaindu beharra, klandestinitateak eragiten duen isolamendu soziala, eta dogmatismo edo garbizaletasun ideologikoaren arriskua.

Hori guztiori antzeman daiteke zapatisten alternatiba politiko berriaren oinarrian ere, lehen aipatu dugun bezala, praktika iraultzailea beste era batera ulertzeko gonbitea egiten baitute: soberania individuala eta kolektiboa berreskuratuz, mugimendu demokratizatzaile handi eta zabala sortzea, ez boterea bereganatzeko, boterearen kontrola gauzatu ahal izateko baizik. Fronte Zapatistak (FZLN), EZLNaren ekimen guztien jarraipen gisa, hasiera eman dio dagoeneko lan zail bezain neketsu horri.

Mugimendu zapatistaren ezaugarri estrategikoak eta politikoak laburbildu eta gero, ikus dezagun Mexikoko gobernuaren eta, oro har, geostrategia neoliberalaren aldetik, altxamendu horri emandako erantzuna. Globalizazio neoliberalak sortarazten dituen eskubide historikoen txikizioa eta gatazka sozialak, erreakzio ikusgarria izan dute Txiapasen; baina zeintzuk dira mundu mailan nagusitzen ari diren estrategia gubernamentalak, gatazka horiek bideratzeko orduan?

BOTERE NEOLIBERALAREN GEOESTRATEGIA: BAZTERTUEN KRIMINALIZAZIOA ETA KONTROL PARAMILITARRA.

1994ko urtarrilean Mexikoko gizarteak bizi izan zituenak bizi eta gero, ez da berriz izango lehenago zena, zapatisten altxamenduak errotik astindu baitzuen gizarte mexikarra. Altxamenduaren ondorengo egunetan mobilizazio erraldoiak egin ziren herrialde osoan, gerra geldiarazteko. Gizarte zibilaren erantzuna benetako “bakearen aldeko erasoaldia”³¹ izan zen. Herri mexikarraren presio horrek, nazioarteko komunikabideetan zein nazioartean altxamenduak izan zuen oihartzunak eta gobernuak behar zuen denborak (zeinen aurka ari zen jakiteko eta estrate-

31. Ibidem, 93. or.

gia prestatzeko), ez-ohiko sueten azkarra ahalbidetu zuten. Urtarrilaren amaieran, San Cristobal de la Casas-en, negoziazioaren atariko akordioak sinatu ziren gizarte zibilaren protagonismo garrantzitsuarekin; Mexiko osotik etorritako jendeak giza kateak egin baitzituen elkarrizketen egoitzaren inguruan, EZLNak eskatutako babesa ziurtatzeko.

Urtebete iragan zen —gorabehera, eraso eta gobernuaren traizio batzuk tarteko—, 1995eko apirilean, S. Andrés de Larrainzar herrian, bake-mahaiak eta negoziazioak abian jarri arte. Ondorengo hauek izan ziren adostatutako elkarrizketa-mahaiak: “Indigenen kultura eta eskubideak” lehenengoa, “Demokrazia eta Justizia” bigarrena, “Ongizatea eta garapena” hirugarrena, eta “Emakumeen eskubideak” laugarrena. Negoziatio hauek 1996ko otsailean eman zuten lehenengo fruitua, orduan sinatu baitziren indigenen kultura eta eskubideen inguruko akordioak, baita akordioak betetzeko eratu beharreko Jarraipen-Batzordea ere.

Elkarrizketa-prozesua, ordea, geldituta dago 1996ko irailetik aurrera, gobernuak uko egin baitio Jarraipen-Batzordea eratzeari eta sinatutako akordioak betetzeari. Ondorioz, Komunitate Zapatistek elkarrizketak bertan behera uzteko agindua eman diote EZLNren ordezkariari, seriotasuna eta errespetua egongo ez den bitartean.

Denbora aurrera joan ahala, argi ikusten da Mexikoko gobernuaren benetako apostua intentsitate txikiko gerra dela, etengabe areagotu baitu errepresioa, eskualdearen militarizazioa eta gerra zikina. 1995etik aurrera, Txiapasen, gobernuak irizpide politiko-militarren arabera banatzen ditu dirulaguntzak; hau da, erreklutamendu-sare oso bat eratu du indigenak —klientelismo ofizialaren sarean nahastuta daudenak— erosteko eta horiekin talde paramilitarrak antolatzeko³². Estrategia horrekin, Txiapasko auzia indigenen arteko gatazka erlijioso edo politiko gisa aurkeztu nahi du. Itxura guztien arabera, gobernuak bi helburuekin erabili du elkarrizketa; bata, nazioarteko komunitatearen aurrean irudi demokratikoa lortzea, eta bestea, gerra zikina antolatzeko denbora izatea.

Ejertzitoak eta talde paramilitarrek eragiten duten terrorearen bidez, milaka eta milaka indigena kanporatzen dituzte beren komunitateetatik (5.000 inguru 1998aren hasieran), horrela, EZLNaren isolamendua bilatzen dute: azpiegitura ahultzea eta familiak urrunduz gerrileroen morala apurtzea. Paramilitarrek lan zikina egiten dute eta ondoren militarrek agertzen dira, salbatzaile gisa, “enfrentamenduak” eragozteko. Emakumeek, “erresistentzia zuzena” deitutako jarrerarekin, giza kateak egiten dituzte soldaduei sarrera oztopatzeko, baina komunitate gehiengotik mehatxu, erahilketa eta sarraskien ondorioz, benetako exodo latza gertatu izan da. Dagoeneko errefuxiatu-eremu batzuk osatu dira, eta beste jende ugari noraezean dago ohianean. Egoera humanitarioa benetan larria da.

32. *Proceso* aldizkari mexikarrak gobernu eta ejertzitoaren dokumentu batzuk lortu ditu eta 94an diseinatutako estrategia kontrainsurgentearen berri zehatza eman du. Ikus. <http://www.proceso.com>.

Intentsitate txikiko gerra honen beste elementu bat desinformazioa da, hots, arreta informatiboa beste gaietara desbideratzea. Kasu honetan, gobernuak erabiltzen ari den ke-gortina nazioarteko solidarioen presentzia da: brigadisten lana ingerentzia gisa salatzen du eta, horrela, kanporaketak justifikatzen ditu, lekukoak uxatzen ditu eta ez dio heltzen gatazkaren mamiari; hau da, atzeritarren presentziaz hitz egiten bada, ez da paramilitarismoaz edo sinatutako akordioez hitz egiten. Bitartean, biolentzia gora doa eta biolentziarekiko tolerantzia ere bai, egunerokoak bilakatu baitira mehatxuak, atxiloketak, desagertpenak eta erahilketak.

Gerra zikinaren ezaugarri nagusiak bete-betean aurkitzen ditugu Mexikon: paramilitarismoaren bidez banaketa soziala eta “enfrentamendu zibila” eragitea, bere oinarri soziala sakabanatuz disidentzia isolatzea eta desinformazio-kanpaina erraldoiak eginez insurgenteak kriminalizatzea. Badakigu, ordea, estrategia horiek ez ditugula Mexikon bakarrik aurkitzen. Kolonbian, Guatemalan eta toki hurbilagoetan ere, ezagunak diren “goitik” eragindako estrategiak dira. EEBBetan irakasten den “kontrainsurgentzia-egitaraua”n argi azaltzen da indar paramilitarren garrantzi estrategikoa insurgentziaren azpiegitura desegiteko³³. Kolonbian EEBBek agindutako politika kontrainsurgenteak beren bizilekuetatik errefuxiatu-eremuetara miloi bat pertsona baino gehiago mugiarazi ditu eta hogeita hamar talde paramilitar baino gehiago sortu ditu. Azken finean, neoliberalizazioak sortarazten dituen gatazka sozialaren aurrean, gobernuentzat kostu txikiagoa dauka elkarriketa- eta demokrazia-itxura emateak eta kontrol paramilitarra ezartzeak.

Gauzak horrela, globalizazio neoliberalaren kontrolaren, errepresioaren eta disidentziaren garbiketan globalizatzen ari dela esan genezake. Horrela, gatazka eta biolentzia soziala kontrol polizialaren bidez baretzea, estatuaren zeregin eta funtzio nagusi bihurtzen ari da. Eta polizian edo azpiegitura errepresiboan gastu publikoa areagotzeak ez omen du inflaziorik sortzen.

Mexiko bezalako herrialde askotan, globalizazio neoliberalak izugarri murrizten ditu bizirik irauteko aukerak pertsona askorentzat. Erabateko kompetentzia edo, beste era batera esanda, indartsuenaren legea oso biolentzia da (amildegiaren ertzean dagoen jende ugari salto egin behar du), eta ekonomia izkutuaren eta gaiztakeri antolatuen hazkundea horren adierazle garbia da. Biolentzia soziala gora doa etengabe eta segurtasun-eza arazo larri bihurtzen ari da; baina instituzioen erantzuna ez da lana, hezkuntza, osasuna edo etxebizitza aukerak ahalbidetzea, gizartea —batez ere sektorerik ahulenak— kriminalizatzea baizik, normaltasuna, ordena eta legea errespetatzen ez dutelako aitzakiaz: “herrialde honetan jendea oso biolentzia da”, hori da errepresioaren eta kontrol sozialaren justifikazio zaterra.

33. Mario Renan Castillo generalak Mexikoko ejerzitoaren ardura dauka Txiapasen 1995tik hona. EEBBetako Fort Bragg koartelatik irtenberria zegoen destino hori hartu zuenean, bertan trebakuntza berezitua jaso zuen “gerra psikologikoa”, “indar bereziak” eta “operatibo berezi”etan. Narko-trafikoaren kontrako borroka aitzaki moduan erabiliz, 1994tik aurrera Mexikoko ejerzitoaren 700 ofizial pasatu dira Fort Bragg-etik. Ikus. “El nuevo imperialismo” James Petras. El Mundo egunkaria. 1998ko martxoaren 2an. 4-5. orr.

Bazterketak eta marginazioak erantzun politikoa daukatenean, nortasun propioa duen aktore kolektibo bat agertzen denean, errepresioa militarizatu egiten da. Neoliberalismoak egonkortasun politikoa behar du eta gatazka politikoak militarizatu abantaila dauka, errazago eta kosturik gabe erabiltzen baitu oso estrategia krudela bezain eraginkorra: baztertuak eta insurgenteak kriminalizatu, sakoneko interes ekonomiko eta politikoak ezkutatu eta kontrol poliziala eta paramilitarra ezarriz.

Mexikon ikusten ari garenaren arabera, gobernuak estrategia berdina aplikatzen du disidentziak bere praktika politikoa militarizatzen ez duenean (EZLN), baina eszenatokia ez da hain eroso berarentzat: zailago egiten zaio disidentzia kriminalizatzea, gobernuaren jokaera autoritarioak nabarmenagoak dira, eta ageriago gelditzen dira benetako interesak eta horiek defendatzeko erabiltzen dituen estrategia krudelak. Estatu mexikarrak errepikatzen du, behin eta berriz, EZLNa “militarista” dela, “intolerantea”, “espazioak ixten” ari dela eta “gizarte zibilaren arerio nagusia” dela³⁴. Horiek dira, ikusi dugun bezala, zapatismoaren ezaugarri antitetikoak eta gobernu neoliberalari min gehien egiten dioten ezaugarriak. Beharbada, horixe da zapatismoaren irakaspide nagusia, alegia praktika politikoa militarizatu gabe elkarlanerako bide berriak urratzea. Azken finean, mugimendu demokratizatzaile sendoa sortzea, zapatistak etengabe errepikatzen ari diren ahalegina da. Hots, instituzioen joera autoritario eta errepresiboan aurrean, herritarren partaidetzarako eta elkarlanerako espazio berriak zabaltzea, arazo eta gatazka sozialak politikaren bidez —elkarrizketa eta kontsentsu zabalen bidez— bideratu ahal izateko.

BIBLIOGRAFIA

- CONDEARENA, L. (Gepetto), (1997), *Chiapas: El Despertar de la Esperanza* Gakoa liburuak. Donostia.
- MARCOS, (1997), *Cuentos para una soledad desvelada*. Textos del subcomandante insurgente. Ekosol. Madril.
- (1998) *Cuentos de Durito: historias zapatistas*. IXIM Txiapasekin Elkartasuna. Iruña.
- RODRIGUEZ, S (FZLN), *Detrás de nosotros estamos ustedes*. HIKA aldizkarian. 74. zbk. 1997ko urtarrila.
- LE BOT, I. (1997), *El sueño Zapatista*. Anagrama. Bartzelona.
- CASTELLS, M. (1998) *La era de la información: economía, sociedad y cultura*. 2. liburukia, *El poder de la identidad*. Alianza. Madril.
- GERMAN, (abizena eta urtea)?? *La originalidad del movimiento zapatista*. Pake eta Elkartasunerako Fundazioa, eta Txiapasekiko Elkartasunerako Taldea. Argitalpen mugatua.

34. Ikus. “La originalidad del movimiento zapatista”. German. Pake eta Elkartasunerako Fundazioa, eta Txiapasekiko Elkartasunerako Taldea. Argitalpen mugatua. 4. or.

STAVENHAGEN, R, "Mexiko 1994: el reclamo indígena en tiempos de globalización". *Proceso* aldizkaria. 905. zbk., Mexiko, 1994ko martxoaren 7an.

7. Neoliberalismoa teorian eta praktikan

Baleren Bakaikoa

UPV/EHUko irakaslea eta UEUKidea

ESKUHARTZE EZAREN MITOA

Neoliberalismoa hain sendo dagoen garai hauetan, badirudi estatuak ekonomian gutxiago eskuhartu behar lukeela. Baina hau ez da honela gertatzen ari. Horretarako nahikoa da geure inguruari begirada bat ematea, eta berehala ohartuko gara, estatuaren eskuhartzea etengabea eta neurri handikoa dela. Izan ere, inbertsio erraldoiek inoiz baino ugariagoak izaten jarraitzen dute; hor dauzkagu Itoizko urtegi erraldoia, Guggenheim, parke teknologikoak, abiadura handiko trenak, autobi-deak, etab. Inbertsio zuzen hauez gain, estatuak zeharka ere egiten ditu; hauen adierazle, enpresa pribatuei ematen dizkien diru-laguntzak dira eta geure artean aski ezagunak dira Daewoo-ri, Transpapel-i, Mercedes-Benz-i eta abarri emandakoak. Beraz, ezin esan dezakegu estatua geldirik dagoenik iharduera ekonomikoan.

Urrutiraxeago joanez eta orain dela gutxi burutu denez, hor dugu Yamachi japoniar bankuaren porrotaren aurrean estatuak erabaki duena, bere gain hartu baitu zorrak kitatzeko konpromisoa. Izan ere, esku pribatuen hankasartzea diru publikoekin konponduko dute, eta honela, banku horretan dirua inbertituta zeukate-nak lasai egon daitezke. Antzeko zerbait egin zuen Reagan presidete neoliberalak Chrysler-i diru-laguntza eman zionean. Gauza bera gertatu zen Banesto-ren kasuan, eta honela jarraituko genuke kasuak eta kasuak emanez.

Egia da, bestalde, orain dela gutxi arte estatuaren menpe edo estatuarenak ziren enpresa publiko asko eta asko sektore pribatura itzultzen ari direla. Gure artean ezagunenak Telefónica, Repsol, Endesa, edo Aceralia dira, nahiz eta zenbait kasutan oraindik erabat pribatizatu ez diren.

Bestalde, neoliberalismoak estatuaren sarrerak murriztea eskatzen du. Izan ere, ekonomialari klasikoekin bat eginez, sektore publikoaren pisu ekonomikoa urritu egin behar litzateke, hauen ustez alperrikakoa baita. Baina datu ekonomikoei begirada bat ematen badiegu, murrizketa, oro har, arbuigarria da. Beraz, estatuaren sarrera zergagarriak BPGarekiko ez dira ia aldatu laurogeiko hamarkadan, ezta honetan ere.

Alderantziz ere gertatzen da. Espainiako kasuan, adibidez, sarrera gehigarriak eratu dira. Hor dago aseguru-sariaren gaineko zerga berria. Zerga honen bidez, nolabait, espainiar zerga-sistemak izan duen atzerakortasuna konpentsatzeaz gain, defizit publikoa murriztu nahi da. Beraz, gastua bakarrik ez da urritu, sarrerak ere gehitu baitira, defizit publikoa apaltzeko.

Gure artean gastu batzuk murrizteko presio handia dago. Izan ere, Europa aldean, Maastrichteko konbergentzi planak honela eskaturik, gastu publikoak kontrolatu egin dira, defizit publikoa BPGren ehuneko 3ra hel dadin. Politika murriztaile honen adierazle, batik batik, gizarte-gastuen urritzea izan da; eta kopuru orokorrak nahiko antzekoak izan arren, indibidualki kopuru txikiagoak jasoko dituzte horretarako eskubidea dutenek.

Espainiako estatuan ere murrizketa-politika burutzen ari da. Honela, Gizarte-Asegurantzaren gastuak etengabe ari dira urritzen. Izan ere, Toledoko Hitzarmenak hori aurreikusten du eta nahiz era sofistikatuan egin, azken finean, pentsio osoak eskuratzeko zailtasunak egongo dira, eta ondorioz, gastuak apalduta geratuko dira. Antzeko zerbait ematen ari da langabetuen diru-laguntzekin, eta osasun arloan egiten ari direnekin. Beraz, batzuetan, gastu-maila berdintsua izaten jarraituko du, baina eskubidedunak ugariago izanik, bakoitzak eskuratutakoa kopuru txikiagoa izango da. Beste batzuetan gastu-kopuru oro ere murrizten ari dira

Gastuen bi aldeak

Estatuak alde bitan eskuhartzen du ekonomian: eskaintzaren eta eskariaren aldeetan. Estatuak bermatu eta etengabe laguntzen du eskaintza, ekoizpena ahal denik eta handiena izan dadin. Laurogeiko hamarkadaren hasieran asko mintzatzen zen eskaintzaren egokipenari buruz eta hortik landu zen “eskaintzaren ekonomiari” buruzko teoria. EEBBtako presidentziara heldu bezain azkar, Reagan-ek eskaintza hobetzearen aldeko politikari ekin zion. Baina politika hori ez zen berria, enpresek diru-laguntzak, zuzenak eta zeharkakoak, aspaldidanik eskuratzen baitituzte ekoizpena hobetzeko helburuaz. Helburu horretarako programa ugari daude, bai horizontalak —enpresa guztientzat eraturako laguntzak— eta bai bertikalak edo enpresa zehatz batzuentzat diseinatutakoak ere.

Bestalde, eskaintzaren aldean egiten diren gastuak ez dira zalantzan jarri, ezta murriztu ere, nahiz liberalismoa doktrina menperatzailea deneko garaietan bizi, eta ondorioz estatua ekonomiatik urrun egon beharko lukeen, printzipioz bederen. Inbertsioak egiteagatik enpresa bati diru-laguntzak ematen bazaizkio, edo teknologia berriak ezartzeagatik edo esportazio-sareak eratzeagatik sozietateei buruzko zerga arintzen bazaie, enpresarioek ez dute kritikatu estatuen eskuhartze hau ekonomian, alderantziz baizik.

Politika honetan, adibide hurbilen gisa, eskaintzari ematen zaion begiruneagatik, paradigmatikoa da Eusko Autonomi Erkidegoko ekonomia. Izan ere,

Europako Batasunak enpresari emateko zenbait diru-laguntza onartzen ditu, eta horretan oinarritu da Jaurlearitza arlo honetako politika burutzeko. Ondorioz, 1996-1999 bitartean, EAEko lurralde osoan, aurreko denboraldian ez bezala, industri sektorean egindako inbertsio errealean ehuneko 25erainoko diru-laguntza jaso dezakete inbertsioerak. Horrez gain, programaturik daude beste zeharkako zenbait laguntza ere. Eta laguntza hauei guztiei sozietateei buruzko zergaren kuotari aplikatu ahal zaizkion kenkariak erantsi behar zaizkie, inbertsio errealak direlako, ingurugiroa hobetzen dutelako, etab.

Beraz, dakusagunez, ekoizpena bideratzeko eta errazteko egitarau ugari daude, eta hauen bidez enpresei zuzenki ez bada zeharka laguntzen zaie. Hauxe da, hain zuzen, estatuak ekonomian eskuhartzeko modu bat, agintariak zalantzan jartzen ez dutena, are gutxiago liberalismoa predikatzen dutenek.

Bestalde, eskaria daukagu, zeina ongizate-estatuak garatu zenean babestuta geratu zen. Honela, kontsumo-maila duin samarra ziurtatu zen, bai indibidualki, bai orokorki ere, eta gutxienerako sarrera eskuratzeko moduan zeuden herritar pobreenak. Ongizate-estatuak, azken batean, eragin positiboa zeukan eskari agregatuan eta ondorioz, bizitzeko adina eskuratzen zuten ekonomikoki ahulenak zirenek ere.

Ongizate-estatuak dituen gastu-mota batzuei gizarte-gastu deituko diegu eta, esanenez, beren helburua eskari-maila egokia izatea da. Beraz, gizarte-gastuekin langabetu, gutxitutako pertsona, erretiratu, behin-behineko gaixo, alargun/alarguntza, ikasle behartu, etabarren premiak estaltzen dira.

Gizarte-gastuen murrizketak arlo askotan egiten ari dira eta horietako bat, lehenago esanenez, jubilatuen pentsioena da. Izan ere, hemendik aurrera jubilatutak hiruogeita bost urte bete ostean pentsio osoa jaso nahi badu, hogeita hamabost urte kotizatu beharko dio Gizarte-Asegurantzari. Urte gutxiago kotizatzen badu, pentsio apalagoa eskuratuko du. Horrez gain, pentsioaren tamaina azken hamabost urtetako batazbestekoaren arabera kalkulatu da, lehen baino denboraldi luzeagoa, eta jakina, tarte horretan inflazio txikiak ere eragin nabarmena izaten du.

Langabetuentzat ere diru gutxiago esleitzen du gobernuak. Izan ere, duela urte batzuk baino denbora luzeagoan kotizatu behar zaio INEMi diru-laguntzak jasotzeko, eta diru-laguntza hauek denbora laburragorako izaten dira. Hau dela-eta, gaur egun langabetuen estaldura urritu egin da.

“Medicamentazo” deritzonarekin ere antzeko zerbaite lortuko du gobernu zentralak, nahiz azken orduan lortuko den murrizketa hasieran erdietsi nahi zena baino apalagoa izan. Hala ere, bederatziehun botika inguru beren diruarekin ordaindu beharko dituzte gaixoek, eta hortik aurrezkoa etorriko da administrazio publikoarentzat.

Oro har, nabarmena da gizarte-gastuak murrizten ari direla eta honek eragina duela eskarian; bien bitartean, eskaintzaren aldea babestea eta indartzea bilatzen du estatuaren politika eskuhartzaileak.

Estatua eta neoliberalak

Neoliberalen arabera, estatuaren zereginak Adam Smith-en garaietan bezalakoa izan beharko luke, eta Smith-ek zioenez, estatuaren eskuhartzeak ahal den txikiena izan beharko luke ekonomian, jarduera ekonomikoa oztopa ez dezan. Honela, merkatua izango litzateke ekonomia osoa edo gehiena gidatuko lukeena.

Hauxe da, izan ere, Milton Friedman-ek “Free to Choose” liburuan¹ ematen digun mezua. Liburu honen lehenengo kapitulua Smith jaunaren Wealth of Nations liburuan merkatu libre eta oztoporik gabekoari buruz azaltzen diren pentsamenduak dira. Baina gaur egun gauzak asko aldatuta daude, Smith-en garaiko eta oraingo ekonomi jarduerak antz handirik ez baitaude.

Alde batetik, transakzio ekonomikoak izugarri gehitu dira eta berauek zaintzeko eta babesteko estatuaren premia asko gehitu da. Transakzio hauek estatu barruan eta kanpoan hedatu dira, baina, batik bat, korporazio handiek eta monopolizatzaileek dute protagonismoa, Marxek duela mende bat baino gehiago iragarri zuen bezala, eta leku urria dute enpresa txikiek eta ertainek zeinek, printzipioz, merkatu librearen arauak hobekiago bermatuko litzatekeen. Honela bada, Smith-en “esku izkutua” auzitan geratu da, korporazioak gai baitira prezioak nahi duten eran finkatzeko, oinarrizko lehengaiak kontrolatzeko, etab. Aldi berean, enpresa erraldoi hauentzat, hein batean, estatua beharrezkoa da, beronek bermatzen baitizkie errepideen edo tranbide egokien eraikuntza edo oinarrizko teknologiaren garapena komunikazio-sareak, etab., gero enpresa hauek erabil ditzaten.

Azken finean, estatua korporazioen zerbitzari bihurtu da, eta ez alderantziz. Estatuaren betebeharrak honetaz gardenki jabetzen da Galbraith jauna², dioenean ezen, erromantiko batzuek besterik ez dutela amesten gutxieneko estatu hori, beraz korporazio handien zerbitzari bilakatu baitzen aspaldi.

Korporazio hauek, bestalde, prezioak nahi duten eran igotzen dituzte, irabazi oparagoak izateko. Beraz, inflazioaren eragile ere badira enpresa hauek, langile-sindikatuak izan daitezkeen bezala. Horrez gain, aurrezkiek ez dituzte sortutako eskualdean bertan inbertitzen eta ondorioz, eskari agregatua ere ez da hazten behar lukeen abiaduran. Haatik, arazo edo egonkortasun-ezari aurre egiteko, ez da nahi-

1. Friedman, M. y R. (1981) *Libertad de Elegir*, Grijalbo, Madril. Teoria hauen aurkako liburu interesantea Rayack, E. (1987) *Not so free to Choose: the political economy of Milton Friedman and Ronald Reagan*, Praeger, New York..

2. Galbraith, J.K. (1982) *Anales de un liberal impenitente*, GEDISA, Bartzelona.

koa gutxieneko estatu, estatu indartsu eta ekonomian eragina izango duena baizik; eta Adam Smith-ek ez zeukan bere buruan honelako estaturik.

Bestalde, badaude egon, zenbait fenomeno, Smith-en garaietan ez bezala, estatuaren premia dutenak. Pertsonen bizi-itxaropena luzatzeak eta familiaren eraldaketak estatuaren premia indartzen du; bestela, nork zainduko lituzke zaharrak, estatuak ez bada? Antzeko gauza gertatzen da haurrekin; gurasoek lana egiten badute, nork zainduko ditu haurrak eta non utzi? Lehen erakunde erlijiosoek laguntzen zuten, baina gaur egun estatuari eskatzen zaio funtzio bera betetzea.

Halaber, estatua enpresa erraldoi askoren bezero hoberena da. Lan publiko erraldoi gehienek premia, herritarrek baino gehiago enpresa eraikitzaileek aldarrikatzen dute, estatuak “interes bereziko” modura berehala izendatzen dituelarik. Geure artean ere baditugu jokaera horien adierazgarri; esate baterako, Itoizko urtegia, abiadura handiko trenak, autobideak egiteko larritasuna, etab. Berauen alternatibak egon badaude, baina eraikitzaileentzat ez lirake hain negozio oparoa izago; hortik dator alternatiba horien bazterketa, eta lan erraldoiak burutu beharra derrigortzea.

Militargintza da beste arlo bat, non estatua bezero bakarra, erantzunezina eta eskuzabalena den. Bestela, nahikoa da estatu aberatsenetik pobreenetaraino begirada bat ematea. Armagintzan diharduten enpresek etengabe zaharkiarazten dituzte armak. Ondorioz, estatuak berriro egin behar ditu bere armategiak, horretarako aurrekon-tuan partida handiak erabiliz. Beraz, arlo honetan enpresen arteko lehia dago arma suntsigarrienak asmatzeko, gero estatuari beronen premia barneratzeko eta arma horiek saltzeko.

Orain arte esan dena kontuan hartuta, nire aburuz, teoria instituzionalak gai honi buruz duen ikuspegia, ez da batere zuzena. Izan ere, teoria honen arabera estatuaren funtzionarioak daude alde batetik eta bestetik enpresetako saltzaileak, bi mundu isolatu bailiren. Baina errealtatean ez da honela gertatzen. Estatuaren ordezkaria edo beronen “interesak” defendatuko dituen enpresa erraldoiek edo hauen “lobbiek” ondo ikusten duten pertsonaren bat izango da, eta bide batez bi aldeen arteko harremanak uste baino leunagoak izango dira.

Azken hitza, hots, erabaki politikoa, enpresa-hornitzaile batzuekin harreman estuak dituenak hartuko du, eta oso zaila izango da harreman horien ondorioz gastua murriztea, alderantziz ez bada behintzat.

Zalantzarik gabe, gastu publikoa baimentzen duen bulegoak ez du nolanahi gastuak handitzen utziko. Are gutxiago defizit publikoa puzteko arriskua baldin badago. Baina hortik gastu publikoak murrizteko politika aurrera eramatera pasatzea ez da batere erraza. Hori, Reagan presidentearen agintaldian aski frogatuta geratu zen, berorrek aldarrikatzen zuenaren aurka, gastu-mota batzuk handitu egin baitziren. Ez dut uste espainiar estatuan gauza bera gertatuko denik Barea jaunare-

kin; hala ere, nahiko zaila egingo zaio gastua asko urritzea, gorago aipatu ditudan gizarte-gastuak ez badira bederen.

Estatuaren beste irakurketa

Aspaldi zehaztu zituen R. Musgrave-k estatuaren aurrekontuaren funtzioak. Ekonomia honen arabera, edozein estatuaren aurrekontuak esleipen-, estabiltzazio- eta birbanaketa-funtzioak burutzen ditu. Funtzio hauen bidez estatuak merkatuak ongi betetzen ez dituen betebeharrak zuzentzen ditu. Hain zuzen, merkatuko indarrei bere kasa aritzen utziz gero, gizartean izugarritzko desorekak sortuko lirateke eta hori gerta ez dadin estatuak eskuhartzen du.

Badaude, egon ere, merkatuaren bidez esleiri ezin daitezkeen ondasunak eta zerbitzuak. Botika batzuk merkatuan determinatzen diren prezioen arabera salduko balira, erosle pobreak ez luke botika hori eskuratuko. Gauza bera sendagileen zerbitzu batzuekin, eta abarrekin. Merkatuak ez luke bermatuko oinarri eta osasunarentzat derrigorrezkoak diren ondasunak populazioaren zati batengana heltzea. Huts hau gainditzeko, aurrekontua dago, ondasun eta zerbitzu “problematiko” hauen esleipena burutu ahal izateko.

Errenta merkatuaren legeen arabera banatuko balitz, askorengana ez litzateke helduko, beste askorentzat eskasa izango litzateke eta gutxi batzuentzat, aldiz, gehiegizkoa. Izan ere, lana egiten dutenek eta kapitalaren jabeek eta kudeatzaileek errentaren zati bat eskuratuko lukete, baina kapitalik gabe edo lanik gabe daudenek (langabetu, gaixo, elbarri, jubilatatu, etab.) errenta eskuratzetik ez lukete izango, merkatutik at daudelako. Beraz, merkatuak huts edo akats nabarmenak ditu errenta banatzerakoan eta arazo horiek aurrekontuak arin ditzake.

Azkenik, Musgrave-k estabilitzazio-funtzioa definitzen du, batik bat, ziklo eko-nomikoak sortzen dituen gorabeherak baretzeko, horretarako aurrekontuak diseina baitaitezke. Estatuak portaera aktiboa izan dezake inflazioa kontrolatzeko, pagamendu-balantza orekatzeko edo jarduera ekonomikoa bizkortzeko, besteren artean.

Musgravek definitutako funtzio hauek nahiko argi azaltzen dira, eta begibistakoa da estatuak horretan diharduela. Hala ere, funtzio hauek burutzean, ez da bat ere garden ikusten estatuak noren alde diharduen eta zertan ari den. Kontuan hartzen al du estatuak gizarte osoaren onura bere aurrekontuak gauzatzean ala gizarte-klase batzuk gehiago profitatzen dira?

Galdera hauei erantzuteko, marxista edo neo-marxisten teoriak dauzkagu; hain zuzen, J. O’Connor-ek³ edo I. Gough-ek⁴ landutako teoriak, besteen artean.

3. O’Connor, J. (1981) *La crisis fiscal del estado*, Península, Bartzelona.

4. Gough, I. (1982) *La economía política del estado del bienestar*, H. Blume, Madril.

Estatuaren teorialari hauen arabera aurrekontuak bi funtzio nagusi burutzen ditu, eta honetan estatua lanabesa soila dela defendatzen dutenengandik bereizten dira. Hauen ustez, aurrekontuak metaketa eta legitimazio-funtzioak gauzatzen ditu.

Metaketa-funtzioa kapitalaren metaketak dituen zailtasunak leuntzeko izango da. Izan ere, kapitalismoak bere etengabeko prozesuan geldiuneak izaten ditu eta ondorioz, metaketa galgatu egiten da. Egoera horretatik irteteko, estatuak inbertsio publikoak gauzatzen ditu, gehien bat, metaketa bizkortzeko asmoz. Gastu hauek azpiegiturretan, parke teknologikoetan, errepideetan, aireportuetan, telekomunikazioetan eta antzeko lanetan egiten dira. Merkatuetara erosoago heltzea, enpresen arteko horniketak fiteago egitea, informazio egokiagoa eskuratzea edo enpresa-sareak sortzea izango da gastu hauen xedea. Azken finean, jarduera ekonomikoarentzat lubrikatzaileen modukoak izango dira inbertsio publikoak.

Inbertsio-gastu batzuek, metaketa-funtzioa burutzen dute, zuzen-zuzenean. Adibidez, lan publikoak, gehienetan, enpresa kapitalistek egiten dituzte eta honelako kontratuek irabazi oparoak sortarazten dizkiete estatua bezero ezinhoba gisa hartzen duten hornitzaileei. Horrez gain, zeharka ere lana eta irabaziak helarazten dizkiete inguruko enpresei.

Bigarren funtzioa legitimazioa da. Estatuak legitimatu egin behar du bere izaera eta horretarako zenbait gastu zuzentzen ditu, eta berauei gizarte-gastu deitzen zaie. Gizarte-gastu hauek langabetuei, jubilatuei, gaixoei, elbarrei, eta abarri zuzentzen zaizkie. Gastu hauen bidez, gizarte-talde hauek estatutik nolabaiteko onura jasotzen dute eta, beraz, estatuarekiko esker ona izan behar dute. Era berean, geroago profita daitezkeen gizarte-taldeek (jubilatuko direnak) ere estatuaren beharra sentituko dute. Beraz, hau izango da estatua legitimatzeko modua. Hala ere, askotan ideia okerra egiten dugu estatuaz, eta diru-hornitzailea dela pentsatzera heltzen gara, diru-administratzailea besterik ez denean; baina horrek ez dio kentzen funtzio batzuk betetzea.

Badaude egon, bestelako gastu-mota batzuk ere: gizarte-kontsumoan egiten direnak. Gastu hauen funtzioa bi eratakoa izan daiteke: metaketa edo legitimazioa. Har ditzagun, adibidez, hezkuntza-sistemara zuzendutako gastuak eta, ikus daitekeenez, bietako edozein funtzio bete dezakete.

Hezkuntzak, zalantzarik gabe, gizartea erosoago sentiarazten du estatu baten barruan, eta alde honetatik, legitimatu egiten du estatua bera. Baina, bestalde, gazteak prestatu egiten dira biharko egunean produkzio-sisteman sartzeko eta lantokian bere ekarpenak oparoak izateko; beraz, metaketarekin batera lotu daiteke formakuntza. Honela, bi funtzioak nahiko nahastuta agertzen dira.

Azkenik, badira zenbait gizarte-inbertsio metaketa baino areago legitimazio-funtzioa betetzen dutenak. Izan ere, estatuak diru-laguntzak eman ditzake zenbait

enpresak iraun dezaten, nahiz eta jakinaren gainean egon inoiz ez direla helduko errentagarritasun atarira. Honelako inbertsioak sarritan egiten dituzte estatuak ikatz-meategietan, altzairutegietan edo untzioetan. Langileak eta administrariak kale gorrian utzi ordez, gizarte-presioari amore ematen dio eta diru publikoa sartzen du egonezina baretzeko. Kasu honetan, gastu hau, nahiz inbertsio bezalakoa izan, gehiago da estatua bera legitimatzeko metaketa arintzeko baino.

Laburbilduz, neoliberalismoak estatuaren gastuak edo aurrekontuak murriztu nahi ditu, baina murrizketa hori ez da arlo guztietara zuzendu, legitimazioarekin zerikusia daukatenetara baizik. Izan ere, gizarte-gastuak, gehienbat, eskariarekin erlazionatuta aurkitzen dira eta hauek auzitan izan dira jarriak; eta gobernu gehienek politika, gastu-mota hauek urritzea izan da.

Bien bitartean, inbertsio-gastuak edo eskaintzarekin lotura daukatenak ez dira auzitan jarri, indartu baizik. Eta politika hau ez da soilik estatua, Europako Batasunak ere gastu-mota hauek bultzatzen baititu.

Eskuhartzea Europako Batasunean

Erromako Tratatuak lehiaketa libre eta gardena bermatu nahi du merkatuetan. Honela agintzen du Tratatuaren 3. artikulua f) atalak, Mahastrichteko erreforma ostean orain 3.g) denak. Artikulu honen garapena aurrerago dator, hain zuzen, 36. artikulutik aurrera, non estatuaren monopolioak gaitzesten dituen, eta monopolio horiek, epe baten barruan, suntsitu egin behar direla dioen, monopolioen ordez zenbait enpresaren lehia bultzatuz.

Agindu hau betetzeko, ez da egon eragozpen gehiegi. Izan ere, monopolio enblematikoak telekomunikazioenak, hidrokarburoenak, gasarenak, elektrizitatearenak edo tabakoarenak ziren, eta gaur egun monopolio hauek desagertu egin dira, eta lehia itxurako enpresak eratu dira estatu-monopolioen ordez, eta lehen estatuak eskuratzen zituen irabazi erraldoiak, orain sozietate pribatuek bereganatzen dituzte.

Bestalde, estatuari ez zaio ukatzen sozietatean parte hartzea; baina kapitalistak edo inbertsore pribatuak jokatu lukeen moduan aritu beharko luke. Beraz, estatua akziodun izan daiteke edozein sozietatetan, eta ateratzen dituen etekinekin nahi duena egin dezake.

Tratatuak, aurrerago eta zeharka bederen, enpresen “kartelizazioak” mintzo zaigu. Izan ere, Europako Batzordeak adi egon behar du, sozietateak elkartu ostean merkatuan “egoera menperatzailea” sor ez dadin. Elkarte hauek gai izaten dira salmentetan zein erosketetan nahi dituzten prezioak ezartzeko, eta hori ekidin egin behar da. Horregatik, elkarketatzearen jarraimena egin beharra dago, kontsumitzaileek kaltetu ez daitezela.

Hala ere, “kartelizazioaren” aurkako printzipio zurrun hau malgotu egin zen denboran zehar eta bereziki 80ko hamarkadaren erdi aldean. Eta gaur egun, EBk ez du hainbat eragozpen ezartzen Ekonomi Intereseko Talde Europarrak sortzeko. Honela, talde hauek edozein proiektu erraldoitan eskaintza integralak egiteko gaiturik geratzen dira.

Bestalde, Erromako Tratatuak industriako enpresei diru-laguntzak ukatzen dizkie. Honela, Tratatuaren 92.1 artikulua espreski esaten du, edozein diru-laguntza merkatu batuaren arauen aurka dagoela. Hala ere, 1994ean, krisialdi larria zela-eta, EBk zenbait diru-laguntza onartu zituen, kopuru txikikoak izan baziren ere. Diru-laguntza hauek 50 milioi eurora heldu behar zuten gehienez, 3 urteko epe-barruan, eta berauen helburuak krisialdiak jotako enpresen salbamendurako eta berregituraketarako izan behar zuen. Beraz, laguntza hauekin kolokan jartzen da Erromako Tratatuaren edukia, baina politika hau gauzatzean enpresari, politikari eta ekonomialari neoliberalak ez zuten kritikarik egin.

Laguntza bateragarriak Tratatuaren 92.2 artikulua azaltzen ditu eta nahiko arrazoizkoak direnez ez ditugu aipatuko. Baina ez da honela gertatzen 92.3 artikulua edukiarekin. Izan ere, arau honen arabera zenbait diru-laguntza bateragarriak dira merkatu batuarekin eta lehiaketa librearekin eta ondorioz, erregio azpigaratuetan bizimodu-maila apala denez, estatuak lagundu egin dezake inbertsioak erakargarriak izan daitezen. Erregio hauek, 1988tik aurrera, lehen helburuan kokatuko dira eta inbertsio pribatuen ehuneko 75erainoko subentzioa eman dezake estatuak.

Horrez gain, EBko erakundeek proiektu batek Europako dimentsioa duela onartzen badute, diru-laguntzak eskuratuko dituzte proiektu horietan diharduten sozietateek. Eta jakina, proiektu hauen atzean EBko lobbiak egoten dira eta hauen artean, adibidez, European Roundtable of Industrialists dago⁵, zeinak goi-mailako interesak bultzatzen dituen.

Hirugarren salbuespena, berriz, beren garapenean eragozpenak dituzten erregioetarako eginga dago. Erregio osoa edo zonalde bat gune babestu izenda daiteke. 1988tik aurrera bigarren helburuko erregio lege deklaratu dira eta horre-gatik, EBtik jasotzen dituzte laguntzak, batik bat, lan publikoak kofinantziatzeko, baina estatuak berak enpresa pribatuei ere lagundu ahal izango die, laguntza hauen mugak Europako Batzordeak ipintzen dituelarik.

Eusko Autonomi Elkarteak bigarren helburuko erregioa da EBn eta horregatik diru-laguntzak zuzenean Bruselatik jasotzen ditu, eta Jaurlaritzak, industriaren eskuduntza bere gain duenez, subentzioak eman diezaizkieke enpresa pribatuei, nahiz subentzio hauen neurria edo portzentaia EBk finkatu eta Jaurlaritzaren aurrekontuen gain ordaindu. EAE osoa, gaur egun eta 1999ra arte, gainbeherako erregioa da, eta inbertsioen ehuneko hogeita bost arteko subentzioa jaso dezake inbertsio berriak egiten dituen enpresarioak.

5. George, S. (1997), “Quinta columna en Bruselas”, *Le monde diplomatique*, 1997ko abendua.

Bestelako laguntza batzuk ere badaude aurrikusita Maastrichteko Tratatuan. Hain zuzen, enpresa baten jarduera kulturala edo ondare historikoa zaintzeko bada, estatuak laguntza eman ahal izango die. Laguntza-modu hau, beraz, erabilgarria izango zaie euskararen munduarekin lotuta dauden enpresei.

Laguntza hauek EAEn erabili eta enpresa asko profitatu dira. Hala nola GAMESA, CAF, MCC, Mercedes-Benz, etab. Azken aldean, Daewoo edo Transpapel bezalako multinazioanalek ere jaso dituzte laguntza hauek eta dirudienez, Daewoo-ren kasuan EBk subentzio baliokideentzat ezarritako muga, hain zuzen, inbertsioaren ehuneko hogeita bosta, gaintitu egin omen du Jaurlearitzak, eta arazoa Europako Batzordera eraman da, honek aipaturiko laguntzak zuzen edo oker gauzatu diren azter dezan.

Bestalde, azpimarratu egin behar da diru-laguntza hauek estatuaren (gure kasuan Jaurlearitza) aurrekontuetatik ematen direla. Eta arazo handienak dituzten erregioak herrialde pobreenetan kokatuta daude eta, beraz, erlatiboki bederen, aurrekontuaren zati handiagoa erabili beharko dute erregio-garapenerako eta gutxiago geratuko zaie ongizateko gastuetan erabiltzeko. EAEn kasuan ere berdin. Enpresentzat zenbat eta gehiago zuzendu, gizarte-gastuetan erabiliko dena hainbat eta urriagoa izango da.

EAEn 1992-1995 denboraldirako Garapen-Programa onartu zen, batik bat, enpresa erraldoientzat eta handientzat eraturik zegoena. Hurrengo denboraldirako, 1996-1999, Ekimen-Programa onartu zen, eta honekin enpresa gehiago profitatuko dira EAEn diru-laguntzekin. Horrez gain, badaude beste laguntza-mota ugari, nahiz garrantzitzuenak aipaturiko programakoak izan.

Ikus daitekeenez, laguntza hauek guztiak eskaintza hobetzeko eginda daude, eta ekonomian estatuaren eskuhartze zuzena izan arren, neoliberalak ez dituzte zailtasun jarri. Izan ere, eskuhartze hau legitimatuta dago gizarteko erakunde ofizial eta intelektual gehienek aldetik, nahiz predikatzen duten doktrinarekin kontrajarrita egon.

Neoliberalismoa eta agintea

Azken hamarkadetan nazioarteko finantza- eta ekonomi erakunde ugari sortu dira, munduko ekonomia zuzentzeko ahalmena dutenak. Ahalmen hau ez zaie demokratikoki eman; guztiz alderantziz, estatu boteretsuek antolatu dituzte eta horretarako eskuduntza eman diete. Beraz, inolako ezparririk gabe, erakunde ez-demokratikoak dira.

Erakunde hauen artean, Nazioarteko Moneta-Fondoa (NMF/FMI), Mundu-Bankua eta honek eskualde bakoitzean dituen adarrak, Munduko Merkataritzarako Erakundea (MME/WTO) edo Ekonomi Garapen eta Kooperaziorako Erakundea (EGKE/ECDE) daude. Erakunde hauek neoliberalismoaren neurriak indarrean

ezarrazten dizkiete laguntza jaso nahi duten estatuei. Eta jakina, neurri hauek aurrekontuen defizita murriztea, gizarte-gastuak urritzeta edo inflazioaren aurkako neurri gogorrak hartzea dakarte, inoiz ez giza-baldintzak hobetzea edo alokairu-gutxiengoak ezartzea.

Badirudi, erakunde hauen jokabidea ikusita, A. Smith-ek aipatzen zuen “esku izkutuak”ren zeregina erakunde boteretsu hauek betetzen dutela. Ekonomiaren indarrak bere kasa aritu ordez, gidatutako eskuek bideratzen dute gaur egungo ekonomia, eta ez “esku izkutuak”. Beraz, planifikazio-mota bat dago honen guztiaren atzean, hain zuzen, neoliberalismoak indar guztiakin arbuizatzen duen zerbeit. Izan ere, estatuek neurri batzuk hartuko lituzkete beren interesen defentsaren arabera, baina nazioarteko erakunde hauek herrialde hauen subiranotasunari muzin egin ostean, beste neurri batzuk hartzea behartzen dituzte, merkatu libre eta eskuhartze ezaren izenean.

Nazioarteko erakunde hauen politika gauzatzeko, estatu-mailan, paper aktiboena banku zentralak betetzen dute. Hasteko, azpimarratu egin behar da banku hauetako agintariak ez direla demokratikoki hautatuak izan. Are gehiago, EBren kasuan Europako Kontseilutik igaroko da Europako Banku Zentralaren Gobernadorearen izendapena, eta jakin badakigu, zer-nolako defizit demokratikoa dagoen EBn. Europako Kontseiluak legitimitate demokratiko eskasa baldin badauka, besteren artean Legebiltzarrak eragin urria duelako, are gutxiago Kontseiluak hautatuko duen gobernadoreak. Hala ere, agintari honen esku geratuko da EBren moneta-politika boteretsua, interes-tasetan, aurrekontuetan, etabarretan dituen ondorio guztiakin.

Gaur egun, estatuaren edo nazioarteko erakundeen eskuhartzea nabarmena da Asiako Hegoekialdeko estatuetan. Herrialde horietako finantzen egoera tamalgarriari aurre egiteko, NMF/FMIk maileguak eman dizkie eskualde hartako zenbait herrialderi; baina horretarako, barne-neurri gogorrak hartu beharko dituzte hango agintariak. Beraz, neurri neoliberalak areagotu egin beharko dituzte, diru-laguntzak jaso nahi badituzte.

Bestalde, azpimarragarria da, asiar herrialde hauek harrিতuta utzi gaituztela azken hilabete hauetan. Izan ere, nazioarteko agintariak eta geure ingurukoek ere, behin eta berriz, herrialde horiek neoliberalismoaren eredu gisa jarri dizkigute, itxuraz ekonomiak ezin hobekiago funtzionatzen zuelako. Europarrontzat hango eredu ekonomikoa kopiatzeko modukoa zen, baina gaudetik goizera dena hankaz gora geratu da. Non daukagu, orduan, behar dugun eredu? Ala umezurtz geratu zaizkigu geure agintariak?

Sakontzeko asmorik gabe, esan beharra dago herrialde horien finantza-sistemaren nolabaiteko porrot horrek ez duela ondorio modura esan nahi ekonomia errealak ere porrot egin duenik, finantza-burbuilak ez baitu lotura gehiegirik

enpresen irabazi errealekin. Baina lotura-ez hori nabarmentzen denean, krisialdia ematen da. Eta hau da eskualde hartan gertatzen ari denaren adierazgarrietako bat.

1994an GATTeke kideak negoziaketan azken txanpan sartuta zeudenean, kezka handia azaldu zuten mendebaleko estatu garatuek “tigre” hauen lehiaketa egarria zela-eta. Orduan, herrialde hauek gizarte-dumpinga egiten zutela esaten zen, eta horregatik ari zirela hain errazki beraien ondasunak Europa eta EEBBtako merkatuetan sartzeko. Eta orain denak isilik geratu dira.

Krisialdi honen azalpen nabarmenena Malasian eman zen joan den irailean eta bertako lehen ministroak Soros jaunari⁶ egotzi zion egoera honen sorrera. Izan ere, George Soros oso ezaguna da munduko finantza-espekulazioetan eta honen eragiketengatik sortu omen zen Malasiako monetaren beherakada. Hau honela balitz, neoliberalismoak oinarritzen duen ekonomiak sendotasun gutxi duela pentsatu beharko da, gizon baten eragina nahikoa delako moneta bat hankaz gora ipintzeko. Batzuek honela ikusi nahi izan dute, behintzat.

Bigarren kasuak Japoniako Yamaichi⁷ bankuaren porrotera garamatza. Porrotaldi honen ondoren merkatu librearen defendatzaile sutsuenek ere une larriak igaro zituzten, eta lasaitzen hasi ziren Japoniako agintariek galerei estatuak aurre egingo ziela ziurtatu zutenean. Berriro ere diru publikoak konpondu behar izan du enpresa pribatuaren hanka-sartzea.

Antzeko zerbait gertatu da Hego Korearen kasuan ere. Nazioarteko erakundeek (NMF/FMI buru dela) konpondu du “esku izkutuak” konpondu ordez. Hau ekonomian eskuhartzea ez baldin bada, zer da orduan? Paradoxikoa!

BIBLIOGRAFIA

- Cinco Días egunkaria, 1997ko abenduaren 1ekoa, “El bienestar de los liberales”, José Manuel Moránek idatzitakoa.
- Friedman, M. y R. (1981), *Libertad de Elegir*, Madrid: Grijalbo eta teoria hauen aurkako liburu interesgarria.
- Rayack, E. (1987) *Not so free to Choose: the political economy of Milton Friedman and Ronald Reagan*, Praeger, NY.
- Galbraith, J.K. (1982) *Anales de un liberal impenitente*, GEDISA, Bartzelona.
- George, S. (1997), “Quinta columna en Bruselas”, *Le monde diplomatique*, 1997ko abendua..
- Gough, I. (1982), “La economía política del estado del bienestar”, Madrid: H. Blume.
- O’Connor, I (1981), *La crisis fiscal del estado*, Península, Bartzelona.
- The Economist astekaria, 1997ko irailaren 27koa “Mahathir, Soros and the currency markets”.

6. The Economist astekaria, 1997ko irailaren 27koa, “Mahathir, Soros and the currency markets”.

7. Cinco Días egunkaria, 1997ko abenduaren 1ekoa, “El bienestar de los liberales”, José Manuel Moránek idatzitakoa.

8. Neoliberalismoaren eragina lan-zuzenbidean: prekaritatea*

Aitor Bengoetxea

UPV/EHUko irakaslea eta UEU Zuzenbideko Sailburua

Artikulu honetan, azken aldiko haize neoliberal indartsuak, 80ko hamarkadatik aurrera, lan-zuzenbidearen eremuan eragin duen astindua aztertzen saiatuko gara.

Hasteko, lan-zuzenbidearen eta neoliberalismoaren oinarriak ikusiko ditugu, filosofia kontrajarriak erakusteko asmoz. Gero, neoliberalismoak zehazki lanaren merkatuan dituen ondorioak aztertuko ditugu; bere eragina enpleguaren izaeran, enplegu egonkorra/enplegu prekarioa binomioa aztertuz. Ondoren, enpleguaren egonkortasunareb edo egonkortasun-ezaren gakoak ikusiko ditugu: lan-kontratuaren iraupena eta kaleratzea (despidoa). Azkenik, azaldutako guztiaren konklusio batzuk adierazten saiatuko gara.

NEOLIBERALISMOAREN ERAGINA LAN-ZUZENBIDEAN

Neoliberalismoak lan-zuzenbidean duen erabateko eraginaz jabetzeko, sustraitik hasita biak ideia desberdinetatik abiatzen direla esanez has gaitzke. Lan-zuzenbidearen ardatza, lan-harremanean langileak enpresarioarekiko behar duen babes publikoa da. Bitartean, neoliberalismoak, lan-harremana bere protagonista pribatuen utzi nahi du, hots, enpresario eta langilearen esku.

Ikus dezagun sakonkiago esandakoa —lan-zuzenbidearen funtsa, zergatik eta zertarako sortu zen—, ondoren korrante neoliberalaren eragina aztertuz.

Lan-zuzenbidearen sorrera: zergatik eta zertarako?

Lan-zuzenbidea, XIX. mendean sortu zen Europan, Frantziar Iraultzan garaile irten zen ideologia liberalaren testuinguruan.

Sozioekonomikoki, ekoizpen-sistema kapitalista nagusitu zen garaia izan zen hori, hots, langileek lana beste batentzat eta beste baten menpe (enpresarioa) egitearena. Beraz, enpresarioak agintzen du lana nola egin, eta lanaren fruituak enpresarioarentzat dira, langileari lanaren truke soldata ordaintzen diolarik.

* Artikulu hau 1997ko uztailaren 22an, UEUko Iruñeko Ikastaroetan, Aitor Bengoetxea-k eta Izaskun de Miguel-ek emandako hitzaldian oinarrituta dago.

Liberalismoaren testuinguru honetan, harreman pribatuetako irizpide juridiko nagusia pertsonen *borondatearen autonomiaren dogma* da. Honen arabera, lan-harremanaren nondik-norakoak enpresarioaren eta langilearen artean erabaki behar dituzte, askatasun osoz, lan-kontratuan. Bi alderdiak juridikoki berdina dira, autonomoak, eta estatuak ez dauka zertan esku hartu harreman pribatu horretan Garai honetan lan-harremana *zerbitzu-akurapenaren kontratu zibilaren bitartez* bideratzen da.

Baina errealitatean berdintasun juridiko-formal hori faltsua da. Enpresarioa eta langile indibiduala aurrez-aurre jartzen direnean, bien desberdintasun ekonomikoa nabarmena da enpresarioaren alde, eta kontratuko baldintzak erabakitzeke orduan, horrek indar-maila desberdina dakar. Formalki berdinen arteko hitzarmen edo kontratua dena, errealitatean inposaketa da, *atxekipen-kontratua*.

Egoera honetan, langileek esplotazio itzela jasaten dute. Honen ondorioz egoera soziala lehertze dagoenean, estatuak bere burua arriskuan ikusten du balizko langileen iraultzaren aurrean, eta lan-harremaneko alde ahula, langilea, babestea erabakitzen du. Lan-zuzenbidea sortu da.

Nahiz eta testuinguru liberal batean jarraitu, lan-zuzenbidearen bitartez adierazten da, lan-merkatua ezin dela beste edozein merkatu bezala tratatu, agente pribatuen eskuetan utziz. Lan-harremanean, lanarekin batera, langilearen duintasuna eta osasuna jokoan daude. Estatuak elementu horiek babesten ditu, langileak, beren menpekotasunagatik, enpresarioaren jostailu izan ez daitezten.

Lan-harremanean langilearen menpekotasun ekonomiko eta juridikotik abiatuz¹, lan-zuzenbidearen funtzioa oinarritzko desoreka hori nolabait orekatzea da.

Neoliberalismoaren eragina

Neoliberalismoak, ikuspegi ekonomikotik merkatuaren gorapamen klasikoa berreskuratuz, estatuak lan-merkatuan ahalik eta gutxien eskuhartzea eskatzen du². Lan-zuzenbideak lan-merkatuari jartzen dizkion mugak, trabak, desagertzea nahi du, malgutasuna aldarrikatuz.

Neoliberalismoa, ikuspegi juridikotik, gizabanakoen askatasunaren eta autonomiaren izenean, lan-harremanetan estatuaren eskuhartzea gutxitzearen alde agertzen da, halaber.

1. Espainiako Auzitegi Konstituzionalaren hitzak: “desigualdad originaria entre trabajador y empresario que tiene su fundamento no sólo en la distinta condición económica de ambos sujetos, sino en su respectiva posición en la propia y especial relación jurídica que los vincula, que es de dependencia o subordinación de uno respecto del otro”. (*STC 3/1983*).

2. Merkatuaren funtzioari buruz, iritzi erabat kontrajarriak aurki ditzakegu. Adam Smith liberal klasikoaren ustez, zentzu positiboan, “merkatuaren ikustezinezko eskuak” zirenak (*Wealth of nations*) beste batzuen iritziak, zentzu negatiboan, “merkatuaren indaritsuak” dira (Pedro Montes, *El desorden neoliberal*, ed. trota, 1996, 143. or.).

Idea neoliberalak aplikatzen direnean, lan-zuzenbidearen gutxitzeak langileen eskubideen murrizketa dakar, ezinbestean. Honela, enpresarioa eta langilea bakarka, aurrez aurre gelditzen direnean, enpresarioak bere nagusitasuna berreskuratzen du, are gehiago langabeziko testuinguruan.

Formula matematikoa bailitzan, neoliberalismoaren aplikazioak lan-zuzenbidearen (langileen eskubideen) ahultzea dakarrela esan genezake.

Neoliberalismoa: zaharrak berri

Lan-zuzenbidearen ikuspegitik, gaur egun bizi dugun egoera benetan bitxia da.

Lan-zuzenbidea, lan-harremanari XIX. mendean doktrina liberala aplikatzearen ondorioz eratortzen zen gaixotasuna nolabait sendatzeko sortu zen. XX. mendean bukaeran doktrina (neo)liberala oso indartsu agertzen zaigu berriz ere, formula zaharrek arazo zaharrak birpiztu dituztelarik.

Badirudi, kontraesana iruditu arren, lan-zuzenbidea atzerapauso bat ematen ari dela bere bilakaeran. Gaur egungo joeraren deskribapen esanguratsu gisa, “el discrete retorno al arrendamiento de servicios” (zerbitzuen akurapena, lan-zuzenbidea sortu baino lehen lan-harremana bideratzen zuen kontratu zibila da) dio Martín Valverde lan-zuzenbideko katedradunak.

LAN-ZUZENBIDEA ETA NEOLIBERALISMOA ENPLEGUAN: EGONKORTASUNA VERSUS PREKARIETATEA

Enpleguaren iraupenaren arazoan, lan-zuzenbideak “enpleguaren egonkortasun-printzipioa” dauka ardatz gisa. Planteamendu neoliberalak, aldiz, lan-kontratuaren iraupenaren puntu hau alderdien erabaki askearen esku uztea proposatzen dute.

Enpleguan egonkortasun-printzipioa

Lan-zuzenbidearen muinetik sorturiko printzipioa dugu enpleguan egonkortasunarena. Printzipio honen arabera, langilearen zeregina, lana mugagabea edo egonkorra denean, langile horren enpleguak (lan-kontratua) egonkorra izan behar du. Lan-kontratua aldi baterakoa izatea, egin beharreko lana aldi baterakoa denean onar daiteke soilik.

Printzipio hau eraginkorra izan dadin, lan-kontratuko bi elementu hartu behar dira kontuan. Kontratua gauzatzekoan lana egonkorra baldin bada, kontratuaren iraupenak mugagabea izan behar du, halabeharrez. Bestalde, enpresarioari ezin zaio kaleratze librerako aukerarik eman, kaleratze librea duen kontratu mugagabea

egonkorra ez delako. Txanpon bakarraren bi aldeak dira; aurreko atea ixteak ez du askorako balio, atzeko atea zabalik uzten badugu.

Langilearen borondateari dagokionez, berak amaitutzat jo dezake lan-harremana edozein unetan. Eskubide hau honetan oinarritzen da, alde batetik langilearen lana beti borondatezkoa izatean, eta bestetik langileak ogibidea aukeratzeko duen askatasunean³, lana utzi eta beste batean hasiz.

Prekarietatea

Enpleguaren prekarietatea (behin behinekotasuna) printzipio neoliberalak aplikatzearen ondorio zuzena da, hots, lan-kontratuaren iraupena eta amaiera alderdien borondatearen menpe egotearena.

Lan-kontratuaren iraupena, mugatua ala mugagabea izatea, langile eta enpresarioaren esku uzten badugu, normalean enpresarioak aldi baterako kontratua (mugatua) aukeratuko du, horrek langilearekiko lotura ahulagoa sortzen baitu, ekonomikoki gutxiago arriskatu.

Lan-kontratuaren amaiera edozein alderdiren borondatearen menpekota baldin bada, honek berekin dakar kontratua langileak edo enpresarioak nahi duenean amaituko dela. Beraz, langileak nahi duenean utz dezake lana eta enpresarioak edozein unetan lan-harremana bukatzea erabaki dezake, hots, kaleratze librea.

Kausalitatea ala borondatearen autonomia?

Ikus dezakegun moduan, lan-zuzenbideak eta neoliberalismoak filosofia desberdinak dituzte enpleguaren egonkortasun ala prekarietatearen arazoari aurre egiteko orduan. Bi aukerak ongi oinarrituta daude.

Lan-zuzenbidearen abiapuntua langilearen egoera babestea izanik, lan-harremaneko alderdi ahula denez, enpleguaren egonkortasun-printzipioa asmatu da. Beraz, lan-kontratuaren iraupena derrigorrez mugagabea izango da eta enpresarioak ezingo du kaleratzea erabaki *bidezko arrazoirik* ez badago.

Honen ondorioz, kontratua horretarako arrazoia dagoenean soilik, izan daiteke mugatua (prekarioa), hots, egin beharreko lana mugatua denean. Era berean, enpresarioak horretarako bidezko arrazoi bat duenean soilik erabaki dezake kaleratzea, langilearen gaitasuna, portaera edo enpresaren egoera ekonomikoan oinarrituta.

Planteamendu neoliberalak dioenez, ordea, kontratuaren iraupenak eta amaierak alderdien *borondatearen* araberakoak izan behar dute. Alderdiek, askatasun

3. Printzipio hau Espainiako Konstituzioaren 35. artikuluan aldarrikatzen da.

osoz, kontratua mugagabea ala mugatua izatea aukera dezakete, eta bietako edozeinen borondatea nahikoa da kontratua amaitutzat emateko, edozein unetan.

Indarrean dagoen eredua

Orain arte bi planteamendu teoriko kontrajarri ikusi ditugu. Gaur egun, indarrean dugun zuzenbide positiboan, zein da aplikatzen dena?

Hainbat gorabeheraren ondoren, une honetan, *formalki*, indarrean dugun printzipioa *kausalitate*arena da. Beraz, lan-kontratu guztiek printzipioz mugagabe izan behar dute eta bakarrik egin daitezke lan-kontratu mugatuak legeak espreski aurrikusi eta baimentzen dituen kasuetan⁴. Kaleratzeari dagokionez, beti bidezko arrazoi bat behar da; kaleratze librea legez kontrakoa da⁵.

Hala ere, esandakoa gaur egungo egoera juridiko-formal soila da. Azken urteotan lan-zuzenbideak jasan dituen lege-aldaketak, kutsu neoliberaleraz bustiak, ez dira alferrikakoak izan.

Azter dezagun enpleguaren egonkortasuna ala prekaritatea erabakitzen duten bi elementuen bilakaera: lan-kontratuaren iraupena eta langilearen kaleratzea. Ikus dezagun 80ko hamarkadaz geroztik bizitzen ari garen aro neoliberalaren eragina zein izan den.

LAN-KONTRATUAREN IRAUPENA: LEGEZKO ERREGULAZIOAREN BILAKAERA

Ondoren, bilakaera historikoa aztertuz, lan-kontratuaren iraupena erabakitzen duen legezko eraentza ikusiko dugu. Aro desberdinetan, ikus dezagun kontratuaren iraupena zeren arabera erabaki den; hots, kontratua mugagabea ala mugatua izatea alderdien borondatearen esku egon den ala ez.

Bilakaera historikoa ikusi ostean, konklusio gisa, 1980ko hamarkadaz geroztik inspirazio ideologiko neoliberalak enpleguaren prekarizazioan izan duen eragina aztertu ahal izango dugu.

Liberalismoa

Historikoki, Frantziako Iraultza baino lehen, alderdien askatasuna erabatekoa zen lan-kontratuaren iraupenari zegokionez. Aspaldiko agiriek frogatzen dutenez, zilegia zen langilearen bizitza osorako lan-kontratua, edo laurogeita hemeretzi urterako kontratua⁶.

4. Langileen Estatutuaren 15.1 art.

5. Langileen Estatutuaren 49. art.

6. Lana betiko kontratatzearen aukera Espainiako Partida III, 18, 89an aurki dezakegu. 99 urterako kontratua Kristo aurreko 42-41. urtean egipziar papiro batean aurkitu zen (Carlos Moradillo, *Los contratos de trabajo temporales e indefinidos. Incentivos a la contratación*, ed. CISS, 1996, 27. or.).

Frantziako Iraultzaren ondoren, liberalismoa nagusitu ostean, lan-kontratua-
ren gorabeherak kontratuko alderdien borondatearen menpe jarraitu zuten. Hala
ere, Ilustrazioaren ideologiarentzat ezinezkoa suertatu zen ordurarte zilegiak ziren
bizitza osorako kontratuak onartzea, horrek, azken finean, esklabutza zekarrelako.
Beraz, alderdiek erabaki behar zuten kontratuaren iraupena, baina bizitza osorako
kontratua debekatuta egotearen mugarekin.

Idea honen plasmazio juridikoa, XIX. mendean zehar, Kode Zibiletan gauzatu
zen. Lan-harremanak zerbitzuen akurapenaren kontratu zibilaren bitartez
bideratzen hasi ziren. Kontratuaren iraupena alderdiek erabakitzen zuten libreki,
eginbeharreko lanaren izaera mugatua ala mugagabea kontuan hartu gabe, bizitza
osorako akurapena ezinezkoa izanik⁷.

XX. mendean, lan-harremana bideratzeko, *lan-kontratua* sortu zen, zerbi-
tzuen akurapenaren kontratu zibilaren orde. Hala ere, aztertzen ari garen puntuari
dagokionez, hots, kontratuaren iraupenari zegokionez, egoerak berdin jarraitu zuen,
enpleguaren egonkortasun-printzipioa sortu arte.

Primo de Rivera-ren garaian, 1926ko Lanaren Kodean, II. Errepublikako
1931ko Lan-Kontratuaren Legean, eta Frankismoaren garaiko 1944ko Lan-
Kontratuaren Legean, sistema berdinak irauten du: kontratuaren iraupena, mugatua
ala mugagabea izatea, enpresario eta langile indibidualaren esku dago, kasu
konkretu bakoitzean, bizitza osorako kontratuaren debekua muga bakarrarekin.

Egonkortasuna enpleguan

Frankismoan, 1940ko hamarkadan, enpleguaren egonkortasun-printzipioa jaio
zen. Bi iturritatik sortu zen printzipio hau: Lan-Ministeritzak egiten zituen Lan-
Erreglamentazioak, alde batetik, eta Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia, bestetik⁸.

Printzipioaren oinarria honako hau da: enpresa eta bere baitako lan-harremanak
egonkorra diren neurrian, lan-kontratuak egonkorra behar du izan. Aldi baterako
kontratuak (prekarioak) bakarrik egin daitezke bidezko arrazoiz bat dagoenean,
hots, lanaren izaera aldi baterakoa denean.

Ondoren, aipaturiko printzipioak bere aintzatespen gorena ezagutu zuen
1976ko Lan-harremanen Legean. 1978ko Konstituzioaren osteko Langileen Esta-
tutuan (1980, aurrerantzean, LE), enpleguaren egonkortasun-printzipioa berretsi
da, aldi baterako kontratuak kasu zehatzetan soilik baimentzen zirelarik.

7. Espainiako lehendabiziko Kode Zibileko (1888. urtea) 1583. art.: “el arrendamiento hecho por toda la vida es nulo”.

8. Ik. R. Martínez Emperador, *Estabilidad en el empleo y contratación temporal*, IELSS, 1983, 35. eta 48. orr.

LEko 15. artikulua arabera, honako hiru kasuetan egin daitezke aldi baterako kontratuak:

- a) Lan edo zerbitzu zehatza egiteko.
- b) Koiunturalki, enpresak lan asko edo eskari asko dituenean.
- c) Lanpostua erreserbatua duen langile baten ordeztatzeko.

Hiru kasu hauek gain, heziketarako kontratuak (formazio-kontratua eta praktiketako kontratua), aldi baterakoak dira (LEko 11. art.).

Neoliberalismoa

1984. urtean Langileen Estatutuak jasan zuen aldaketarekin fase berri batean sartu ginela esan daiteke: neoliberalismoa nagusitzen hasi zen. Langabezia itzelaren testuinguruan, lan-merkatuaren malgutasuna defendatu zen, enplegua sustatzeko. 1994 eta 1997an Langileen Estatutuak aldaketa berriak jasaten zituen, ildo beretik.

1984ko aldaketa (32/84 Legea)

Langabezia bortitzari aurre egiteko, gobernuaren neurri nagusia “enplegua sustatzeko aldi baterako kontratua” izan zen (1989/84 Errege-Dekretua). Erabaki honen ondorioz, ordurarteko enpleguaren egonkortasun-printzipioa lehertu egin zen, ezerezean geldituz.

Hemendik aurrera, inongo arrazoirik eskatu gabe, edozein lan egiteko aldi baterako kontratua erabil daiteke. Iraupena gehienez 3 urtekoa da, beraz, kontratu honekin 3 urtez lan egin ondoren, enpresarioak erabakitzen du langilearekin harremana mugagabe bihurtu ala amaitzea⁹.

Enplegua sustatzeko kontratuaren erabilera handiak izugarritzko prekarizazioa eragin zuen 1985-90 bosturtekoan, hazkunde makroekonomiko nabariaren testuinguruan (ik 3.4.1). Egoera honen aurrean, 1992an lehenengo aldiz dirulaguntza publikoak eskaini ziren kontratu mugagabeak egiteagatik (22/92 Legea).

1994ko aldaketa (10/94 eta 11/94 Legeak)

1994an aurreko hamarkadan hainbesteko prekarizazioa eragin zuen “enplegua sustatzeko aldi baterako kontratua” bertan behera utzi zen. Kontratu-mota hau ahalbideratzen zuen 1989/84 E.D. derogatu zen. Honela, *kausaltatearen printzipioa* aldarrikatu zen, aldi baterako kontratua soilik lana aldi baterakoa zenean

9. Honez gain, Langileen Estatutuaren 15. artikuluan, aldi baterako kontratu berri bat sortu zen: kontratu ebentuala, enpresak aktibitate berri bat hasteagatik. Honen justifikazioa hau da, alegia, enpresak animatu nahi direla, aktibitate berri bat hastera arriska daitezen, horretarako enpresariaren eskuetan arrisku ekonomiko txikiagoa suposatzen duen tresna bat jarritz: aldi baterako lan-kontratua.

onartuz. Era honetan, lan-merkatuan egonkortasuna bultzatu eta berreskuratu nahi zen.

Baina, egonkortasunaren aldeko neurri honekin batera, 1994ko aldaketan kontrako norabideko neurri prekarizatzaileak hartu ziren, lan-harremanetako beste esparru batzuetan malgutasuna indartuz.

Lan-merkatuko bitartekaritzan, INEMek bere monopolioa galdu zuen eta, aldi berean, kolokazio-agentzia pribatuak eta aldi baterako laneko enpresak legezatu ziren.

Aldi baterako kontratu kausal klasikoaren erabilera asko indartu zen: Langileen Estatutuaren 15. artikulukoak eta kontratu hezitzaileak (ik. 3.2). Ordurarte formazioarako kontratua zena, “ikasketa kontratu” bihurtu zen. Sintomatikoki, sindikatuek “zabor-kontratua” esaten diote, alokairu oso baxua eta prestazio sozial gutxi dituelako. Modu berean, denbora partzialeko kontratuaren erregulazioa malgutu egin zen, bere erabilera indartzeko asmoz.

Beraz, aldi baterako kontratazioari dagokionez, enplegua sustatzeko kontratua bertan behera uztearekin batera, aldi baterako kontratu kausalen malgutzea gauzatu zen, azken hauen erabilera indartuz.

Lan-harremanean, kontratazioaren hurrengo fase kronologikoa diren harremanen garapen eta iraungipenean, malgutasunaren aldeko joera legegilea nabaria da. Lan-prestazioaren garapenari dagokionez, 1994ko aldaketak enpresarioaren zuzendaritza-boterea indartu zuen, langilearen eskubideei zegokienez atzerapausoa eraginez. Bestalde, iraungipena erraztu egin zen, aurrerago ikusiko dugun moduan (ik. 4.3).

1994eko aldaketa, aldi baterako kontratazioaren kausalitatearen printzipioa berreskuratuz, prekarietate-tasa jaisteko asmoz aurkeztua izan arren, hiru urte geroago prekarietatea handitu egin da. Zergatik? Aldi baterako kontratazio kausala handitu egin delako. Batez ere, ikasketa-kontratu asko egin dira.

1997ko aldaketa (8/97 eta 9/97 Errege-Dekretu Legeak)

1994-97 bitartean, hazkunde makroekonomikoaren testuinguruan, langabezi tasa apur bat jatsi zen, baina prekarietatea igo egin zen. Egin ziren kontratu berrietatik, %4 dira mugagabea, soil-soilik.

Egoera honen aurrean, aldaketaren helburu nagusia mugagabeko kontratazioa sustatzea zen, lan-merkatuko prekarietatea jaitsiz. Aldi berean kaleratzea erraztu zen (ik. 4.5).

Lege honetako berrikuntza nabarmenena “mugagabeko kontratazioa sustatzeko kontratua” da. Honela, hemendik aurrera lan-zuzenbidean kontratu mugagabeen bi mota bereizi behar dira: arrunta eta 1997ko kontratu finko berria.

Kontratu finko berri honen erabilpena sustatu nahi da, alde batetik, langabe-tuak kontratatzean¹⁰ eta, bestetik, aldi baterako kontratuekin lanean dihardutenen kontratuak mugagabe bihurtuz.

Zeintzuk dira kontratu mugagabe berri honek dituen desberdintasun nagusiak, betiko kontratu mugagabe arruntaren aurrean? Hobari fiskalak eta Gizarte-Seguran-tzako bonifikazioak (9/97 Errege-Dekretu Legea), eta, batez ere, kaleratze merkeagoa: kontratu finko arruntan, ez bidezko kaleratzearen kasuan kalteordaina lanurte bakoitzeko 45 eguneko den bitartean, kontratu finko berrian 33 eguneko da.

Konklusioa: prekarizazioa

Filosofia neoliberalaren pean jasan dugun aldaketaren balorazioa egiteko orduan, 1984ko lehendabiziko aldaketaz geroztik orain arte gezurrik esaten ez duen zientzia batean, oinarrituko gara, matematikan alegia. Ikus dezagun, fase desberdinetan, prekarietateak izan duen bilakaera. Lan-merkatuaren prekarizazioa agerian gelditzen da.

1984-1994 aldia

1984. urtean, %21eko langabezia¹¹ zela-eta, gobernuak desenpleguaren aurkako estrategia berri bat jarri zuen abian: enplegua sustatzeko aldi baterako kontratazioa, bestelako kausarik gabekoa. Ordurarte lan-merkatuan egoera prekarioan zeuden langileak, aldi baterako kontratuarekin, %11,3 ziren¹².

1994an, langabezia hazi egin zen %25 arte¹³. Aldi berean, prekarietatea %32 arte igo zen¹⁴.

Datu hauek ikusirik, kontratu prekarioen neurriaren ondorioa begi bistan dago: langabezia igo eta prekarietatea ia hirukoiztu egin zen. Beraz, enplegu finkoa deuseztu eta enplegu prekarioa sortu zen, eta hala ere langabeziak gora egin zuen.

10. Kontratu hau egin ahal izateko, hauetako baldintzaren bat bete behar du langileak: gutxienez urtebetez INEMen inskribaturik egotea, 18 eta 29 urte arteko adina edukitzea, 45 urte baino gehiago edukitzea, edo elbarritua izatea.

11. Iturria: EPA (populazio aktiboaren inkesta).

12. Ik. Julio Segura eta beste batzuk, *Análisis de la contratación temporal en España*, MTSS, Madrid, 1991, 70. or.

13. Iturria: EPA (populazio aktiboaren inkesta).

14. Iturria: EPA (populazio aktiboaren inkesta).

1994-1997 aldia

1994ko aldaketan malgutasuna aldarrikatu zen, enplegua sortzeko. Era berean, %32ko izugarritzko prekarietatearen aurka ekiteko, enplegua sustatzeko aldi baterako kontratazioaren aukera orokorra deuseztu zen.

1994-1997 hirurtekoan testuinguru makroekonomikoa positiboa izan zen, ekonomia hazi egin zelarik. Desenplegua zertxobait jeisten da, %25etik %22ra¹⁵. Bestalde, 1994ko aldaketan, aitorturiko helburu bat enpleguan egonkortasunaren alde jotzea izan arren, prekarietatea %32tik %34ra igo zen.¹⁶

1997ko aldaketaren ondoren

Beraz, 1997ko aldaketaren helburu nagusia prekarietatea murriztu eta kontratu mugagabeak sustatzea izan da. Ondorioak? Aldaketaren unean, egiten ziren kontratu berrien %4 ziren mugagabeak; harrez geroztik portzentaia hori haundituz doa¹⁷. Honen ondorioz, prekarietate-tasa zertxobait jaisten ari da.

Prezeski, kontratu finko “merke” berriaren ondorioz (ik. 3.3.3), prekarietatea jaitsiz doa. Hala ere, kontratu finko berriak, kaleratzearen kostua merkeagoa izateagatik, nolabait “bigarren mailako” egonkortasuna ematen duela esan genezake. Kontratu hau mugagabea izan arren, langileak kaleratua izateko arrisku handiagoa baitauka, kontratu finko klasiko “garestian” baino (ik. 2.1).

KALERATZEA: LEGEZKO ERREGULAZIOAREN BILAKAERA

Kaleratzea, enpresarioak lan-kontratu apurtzen duenean gertatzen da. Ordenamendu juridikoek, leku eta garai desberdinetan, erantzun desberdina eman izan diote arazo honi. Langilearen egonkortasunarentzat erabateko garrantzia du kaleratzearen elementu honek.

Oro har, galdera nagusia honako hau da: kaleratze librea ala kausala? Edo, bestela esanda, enpresarioaren borondate hutsa nahikoa da kontratu amaitzeko ala enpresarioak ezinbestekoa du bidezko arrazoi baten oinarria?

Nazioarte-mailan, Lanaren Nazioarteko Erakundearen 158. hitzarmenak (198ekoa) kaleratzean beti enpresarioa bidezko arrazoi oinarritzea ezinbestekoa dela aldarrikatzen du. Beraz, kaleratze librea ez du onartzen, eta hau da indarrean dagoen printzipioa hitzarmena sinatu duten Estatu guztietan. Bidezko arrazoi horrek zerikusia eduki behar du langilearen gaitasuna, langilearen jarrera edo enpresaren beharrezanekin (krisi egoera).

15. Iturria: EPA (populazio aktiboaren inkesta).

16. 8/97 Errege-Dekretu Legeko zioen azalpenak aitortzen duen bezala.

17. Kontratu-mota berria 1997ko maiatzean sartu zen indarrean eta, 1997ko irailean, kontratu berrien %9 inguru mugagabeak ziren. Iturria: EPA (populazio aktiboaren inkesta).

Ezbairik gabe, prekarietatearen ikuspegitik dagoen punturik delikatuena azkena da, hots, *enpresaren krisi egoera*, hori baita kausa malguena. Horregatik, hemendik aurrera hauxe izango da aztertuko dugun kaleratze-mota bakarra.

Ikus dezagun, espainiar estatuko lan-zuzenbidean kaleratzeak jasan duen bilakaera. Perspektiba honekin, azken aldiko joera neoliberalaren eragina haute-maten ahal izango dugu.

Langileen Estatutua baino lehen (1980 arte)

Langileen Estatutua egin arte, bi fase nagusi bereiz daitezke: lehenik liberalismo hutsekoa eta, ondoren, bidezko arrazoia eskatzen zenekoa.

XIX. mendean zehar, liberalismoaren mendea izanik, kaleratze librea zen. Lan-kontratua mugagabea zenean, enpresarioak bere borondate hutsez, nahi duenean, kalera zezakeen langilea. Bakarrik kontratua aldi baterakoa zenean eskatzen zen amaierako epea arte irautea; kontratu mugatueta, kaleratzeko, enpresarioak bidezko arrazoia behar zuen.

Ondoren, II. Errepublikaren garaiko 1931ko Lan-Kontratuaren Legean, bidezko arrazoia eskatzen zen kontratu-mota guztietan; mugagabe eta mugatueta. Enpresarioak beti bidezko arrazoia argudiatu behar zuen langilea kaleratu ahal izateko. Sistema honek berdin iraun zuen 1944ko Lan-Kontratuaren Legean.

Kaleratzea krisiatik Langileen Estatutuan (1980-1994)

Langileen Estatutuak prozedura desberdinak ezartzen ditu kaleratzea indibiduala edo kolektiboa denean. Kaleratzea indibiduala da enpresarioak langile bat kaleratzeko asmoa duenean; eta kolektiboa, kaleratu nahi dituenak bat baino gehiago direnean.

Kaleratze indibidualean, LEaren 52 c) artikularen arabera, enpresarioak, langile bat kaleratzeko, bidezko arrazoi gisa bere lanpostua objektiboki amortizatu beharra argudia zezakeen. Enpresarioak hartzen zuen kaleratze erabakia berehala zen eraginkorra, lan-harremana amaitzen zelarik. Langileak egin zezakeen gauza bakarra hauxe zen: enpresa utzi ondoren, epailearen aurrean erreklamatzea, kaleratze bidezko arrazoirik ez zegoela argudiatuz. Langileak erreklamatuz gero, epaileak erabakiko zuen bidezko arrazoia zegoen ala ez; kaleratzea zilegia den ala ez.

Kaleratze kolektiboan, LEaren 51. artikularen arabera, enplegu-erregulazioko espedientea egin behar zen. Enpresarioak, kaleratze kolektiborako asmoa eta berau oinarritzen zuten arrazoiak azaldu behar zizkien langileen ordezkariari (enpresa-komiteari, normalean). Ondoren, arazoa eztabaidatu behar zuten. Negoziazio horretan, arazoa bere osotasunean eztabaidatu behar zen: enpresaren krisia aztertu,

har zitezkeen neurri alternatiboak, langileei ahalik eta kalte gutxiena egiten saiatu, etab.

Negoiazio-prozesu hau akordiorik gabe amaituz gero, enpresariak espediente osoa, bere hasierako asmoa eta negoziazioen edukia barne, aurkeztu behar zion Administrazio laboralari. Administrazio laboralak erabakiko zuen ea kaleratze kolektiboa baimentzen zuen ala ez, azaltzen ziren arrazoien arabera. Enpresarioak, kaleratze kolektiboa aurrera eramateko, ezinbestekoa zuen alde aurretiko baimen administratiboa. Baimenik gabeko kaleratzea nulua zen (Lan-Prozeduraren Legearen 124. art.)

1994ko aldaketa (11/94 Legea)

1994ko aldaketa lan-merkatua malgutu beharraren ideia inguruan gauzatu zen. Gorago ikusitako LEaren 51. eta 52c) artikulua aldatu egin ziren. Aldaketa bi alorretan gertatu zen: forman eta funtsean. Formari dagokionez, prozedura aldatuz, kaleratu beharreko langile-kopuruaren arabera. Funtzari dagokionez, bidezko arrazoiak malgutuz.

Prozedura-aldaketa

1994ko aldaketa arte, gorago ikusi dugun moduan, langile bakarra kaleratzeko, prozedura indibiduala erabiltzen zen (LEaren 52 c) art.), eta langile bat baino gehiago kaleratzeko prozedura kolektiboa (LEaren 51. art.). Desberdintasun nagusia, kaleratze indibidualean enpresarioaren erabaki hutsa eraginkorra izatean zetzan, lan-harremana berehala amaitzen zelarik, kaleratze kolektiboan alde aurretiko baimen administratiboa ezinbestekoa zen bitartean.

Sistema honetan, enpresarioak kexu ziren, Administrazio laborala oso zorrotza baitzen baimenak emateko orduan. 1994ko aldaketaren bitartez, irizpide kuantitatiboaren arabera, lehen prozedura kolektiboa behar zuten zenbait kaleratze prozedura indibidualera pasatu ziren.¹⁸

Era honetan, ordutik aurrera proportzionalki garrantzi handiko kaleratzeak soilik kontsideratzen dira kolektiboak, lehen irazpen kolektibo ziren asko kaleratze indibidualerako prozedurara igarotzen direlarik. Honela azken hauen prozedura malgutzea lortzen da; lehen baimen administratiboa behar zuten, eta orain ez.

18. LEko 51. artikulua berriaren arabera, irazpen kolektiboko prozedura bakarrik honako kasuetan jarraitu beharko da:

- a) 100 langile baino gutxiago dituzten enpresetan, gutxienez 10 langile kaleratu behar direnean.
- b) 100 eta 300 arteko langile-kopurua duten enpresetan, gutxienez langileen %10 iraitzi nahi denean.
- c) 300 edo langile gehiago dituzten enpresetan, gutxienez 30 langile kaleratu nahi direnean.

Funtsaren aldaketa: bidezko arrazoiaren malgutzea

LEaren 1994ko aldaketa arte, kaleratze kolektiboetan administrazio laborala oso zorrotza zen kaleratzeko baimena emateko. Nolabait, enpresaren krisi latza frogatu behar zen, kaleratze kolektiboa azken aukera edo “*ultima ratio*” kontsideratzen zelarik.

11/94 Legeak ezarri zuen aldaketa malgutzailea nabaria da. Kaleratze kolektiborako bidezko arrazoi gisa baliabideak hobeto antolatu beharra jarri zen, enpresak ongi funtziona dezan, enpresaren etorkizuneko bideragarritasuna bermatzeko.

Beraz, ordurarte kaleratze kolektiboa lehendik zetorren krisi egoera gainditzeko baimentzen zen soilik, beste irtenbiderik ez zegoenean. Ordutik aurrera, badirudi atzera begiratu gabe aurrera begiratzen dela, era horretan “baliabideak hobeto antolatzen” direnean kaleratze kolektiboa onartuz, “etorkizuneko bideragarritasuna”ri begira (LEaren 51. art.).

1996ko aldaketa: Auzitegi Gorenaren apirilaren 24ko eta ekainaren 14ko epaiak

1994ko aldaketaren filosofiak, malgututasuna eta kaleratzea erraztearen alde argi jokatu arren, hasieran ez zituen espero ziren fruituak eman. Prozedura-aldaketarekin (ik. 4.3.1), lehen baimen administratiboa behar zuten kaleratze askok ez zuten horrelakorik behar. Baina, egoera berrian, kaleratzea gauzatu ondoren, langileek epaile laboralen aurrean erreklamatzeko zutenean, epaileen jarrera nahiko zorrotza zen kaleratzeen arrazoia bidezkoa zen ala ez erabakitzeko orduan.

Beraz, legea zentzu malgutzailean aldatu arren, epaileek jarrera zorrotza mantentzen zuten. Kaleratzean bidezko arrazoia egon dela aitortzeko, epaileek enpresaren krisi-egoera latza eskatzen jarraitzen zuten. Azken finean, lan-zuzenbidearen oinarritzko printzipio bat zen, epaileek legeak beti “*pro operario*” (langilearen interesen alde) interpretatu behar zituztela.

1996. urtean, Espainiako Auzitegi Gorenak gai honi buruzko bi funtsezko epai eman zituen (apirilaren 24koa bata eta ekainaren 14koa bestea). Epai hauetan, krisiagatik kaleratzearen arazoaren aurrean, joera-aldaketa nabaria ikusten da. Ordurarte, kaleratzea justifikatzen zuen bidezko arrazoi gisa, enpresaren egoera larria, hots, kaleratzeko behar gorria eskatzen zen. 1996ko epai hauetan bestelako irizpidea ikusten da: kaleratzeko bidezko arrazoi gisa, nahikoa da, *enpresaren iragana, oraina eta geroa kontuan hartuz, enpresako egoera hobetzeko kaleratzea komeni izatea.*

Honela, Auzitegi Gorenak, hierarkikoki epaile laboralen organu gorena izanik, interpretazio berria inposatu zuen. 1996ko bi epai hauek teknikoki jurispru-

dentzia ezarri zuten, eta hemendik aurrera kaleratzeetan epaile guztiek ildo berriaren arabera epaitu behar zuten.

1997ko aldaketa (8/97 Errege-Dekretu Legea)

1997ko aldaketarekin, aipatutako Auzitegi Gorenaren epaien espiritua lege bihurtu zen. Idazkera berriaren arabera (LEaren 52.c) art.), kaleratzea zilegia da “enpresaren funtzionamendu ona eragozten duten zailtasunak gainditzeko” balio duenean. Malgutasuna begi bistan dago.

Hortaz, gaur egungo egoeran, kaleratzeko bidezko arrazoia modura ez da derri-gorrez eskatzen enpresaren egoera ekonomikoa txarra izatea. Nahikoa da enpresaren eraginkortasuna hobetzea eragozten duten oztupoak egotea¹⁹.

Konklusioa: etengabeko malgutze-prozesua

Kaleratzea oso elementu delikatu da langilariarentzat. Korrante neoliberalaren barruan, 1994 arte ez zuen aldaketarik jasan. Ondoren, 1994-1997 hirurtekoan, formaren eta funtsaren aldetik kaleratzea era nabarmenean malgutu zen. Kaleratzea gero eta errazago eta merkeagoa da.

Printzipioen mailan, kaleratze libre ez da inondik inora onartzen. Printzipioetatik azterketa erreala jaisten bagara, honako ondorioa heltzen gara: *kaleratzeko premia ez da bidezko arrazoia, kostu ekonomikoa baizik*.

Izan ere, 1994ko aldaketaz geroztik, epaile batek kaleratzea ez dela legezkoa erabakitzen duenean, edozein arrazoirengatik, enpresarioak bi aukera ditu: langilea berronartu ala kaleratzea berretsi, azken kasu honetan langileari legeak agindutako kalteordaina ordainduz. Legeak kaleratze diskriminatzailea izan denean soilik behartzen du enpresarioa langilea berronartzera, edo Konstituzioaren oinarritzko eskubideak bortxatuz gauzatu denean. Beste kasu guztietan, kaleratzea legez kontrakoa izan arren, enpresarioak berretsi egin dezake diru-kopuru baten truke²⁰.

ONDORIOAK

Neoliberalismoaren azpijokoa lan-zuzenbidean: printzipioak mantendu eta errealitatea aldatu

Maila formalean, lan-zuzenbidearen muinetik sortu diren langileen aldeko printzipio nagusiak indarrean dira: enpleguaren egonkortasun-printzipioa eta bidezko arrazoiaren beharra kaleratzeko. Hots, formalki, lan-kontratu guztiek mu-

19. Ik. Ignacio Albiol eta beste batzuk, *La reforma laboral de 1997*, ed. tirant lo blanch, 1997, 71. or.

20. Lan-Prozeduraren Legearen 108., 110. eta 113 art.

gagabeak izan behar dute, lana berez aldi baterakoa denean izan ezik; eta, bestalde, kaleratze librea debekatuta dago, kaleratzea beti bidezko arrazoiaren oinarritu behar delarik.

Beraz, lan-kontratuan, iraupen zein kaleratzeari dagokienez, kausalitatearen printzipio klasikoak indarren dirau. Kontratuko alderdien borondatea ez da nahikoa ez iraupena ez kaleratzea erabakitzeko.

Errealitateak bestelako konklusioetara garamatza, ordea. Iraupenari dagokienez, legediak eskuzabaltasunez aurreikusten ditu aldi baterako kontratu kausalak. Beraz, enpresarioak nahiko aukera ditu aldi baterako kontratuak egiteko, legeen arabera.

Horrez gain, 1997.ean kontratu mugagabe berria sortu zen, langileentzat kontratu finko klasikoak baino berme gutxiago dituen. Era mugagabean kontrata dezaten, legegileak enpresarioei gizarte-segurantzako bonifikazioak, hobari fiskalak eta, batez ere, kaleratze merkeagoa eskeintzen dizkie (ik. 3.3.3).

Kaleratzeari dagokionez, ikusi dugun moduan (ik. 4.6), errealitatean kaleratze librea badagoela esan dezakegu, kostu ekonomikoarekin, bidezko arrazoi legala egon ez arren. Beraz, *dohainiko kaleratzerik ez dago, baina librea bai*.

Arrisku soziala

Ideologia neoliberalaren aplikazioak ondorio latz nabariak sorrarazi ditu lan-zuzenbidean. Langabeziari dagokionez, neurri malgutzailak aplikatu ondoren, desenplegu-tasak berdin dirau²¹. Langileen egoera gero eta prekarioagoa, okerragoa da. Pobrezia handitzen ari da.

Gure azterketa espainiar estatuko egoerara mugatu arren, neoliberalismoaren ondorioak oso antzekoak dira mundu-mailan.

Testuinguru honetan, inoiz baino egokiago dirudi Lanaren Nazioarteko Erakundearen sorkuntzan (1919) eta, ondoren, 1944ko Filadelfiako Aldarrikapenean esandakoa: nonahi dagoen pobrezia, guztiontzako arriskua dakar.

21. 1985ean %20 inguru eta 1997an %21 inguru. Iturria: EPA (populazio Aktiboaren Inkesta).